



GIZARTE-EKONOMIAREN ESTADISTIKA 2008

2006-2008 biurtekoaren txostena

Ikertalde egindako txostena.

Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Estadistika-organo espezifikokoak egokitua, berrikusia eta garatua


2010eko maiatzaren 26a

EMAITZEN LABURPENA

EXEKUZIO LABURPENA

2008. urtean EAEko euskal gizarte-ekonomiaren sektorea 2.203 enpresak osatzen zuten guztira, Kooperatibak, Sozietate Anonimo Laboralak eta Sozietate Mugatu Laboralak kontuan hartuta. Enpresa horiek guztira 2.986 establezimendu zituzten EAEn barruan, 62.615 langileri ematen zieten enplegua eta Balio Erantsi Gordinaren (BEG) ia 3.000 milioi euro sortzen zituzten.

EAEko ESTABLEZIMENDUEN ETA ENPLEGUAREN BILAKAERA GIZARTE-EKONOMIAN 1994-2008 EPEA



2006-2008 biurtekoaren ezaugarri nabarmena da, Gizarte-ekonomiaren Estatistika abian jarri zenetik aurrera lehenengo aldiz, sektore horretan enplegua suntsitu eta establezimenduak itxi egin direla. Hain zuzen ere, 2008an egiaztatu da 2006. urtera arte EAEko gizarte-ekonomiaren produkzio-egituran erregistratu zen hazkundera hautsi egin dela. Alde batetik, antzematen da 2008an enplegua %1,4 murriztu dela 2006an zegoen enpleguarekin alderatuz gero (aurreko biurtekoan, 2004-2006an, izandako %3,8ko hazkunderaren aurrean). Horrekin batera, 2006. eta 2008. urteen artean establezimenduen desagertzea ere antzematen da, %3,6koa hain justu (2004 eta 2006 artean antzemandako %2,1eko hazkunderaren aurrean).

2006 eta 2008 artean gizarte-ekonomiaren barruko enpleguak izan duen bilakaerak nabarmen kontrastatzen du 2004-2006 biurtekoan izandako enplegu sorrerarekin. Izan ere, biurteko horretan hazkunde-tasa %3,8koa izan zen. Aldea are nabarmenagoa da 2000-2002 epearen hazkunde-tasarekin alderatuz gero, orduan %12,5ekoa izan baitzen. Are gehiago, 2006 eta 2008 artean gizarte-ekonomiak enplegua sortzeko izan duen ahalmenaren murrizketaren eragin negatiboa 2002 eta 2004 artean izandakoa baino handiagoa da, epe hartan enpleguaren hazkunde positiboa ematen baitzen oraindik (%+0,2).

Euskadiko ekonomia osoarekin alderatuz gero, 2006 eta 2008 artean 2002-2004 epean izandako joerari ekin zaio berriro ere, hau da, gizarte-ekonomiaren jarrera euskal ekonomia osoarena baino negatiboagoa izan da. Gizarte-ekonomiaren alorrean izandako enplegu galeraren aurrean (%-1,4) 2006 eta 2008 artean EAEko okupazioaren batez bestekoa %2,7 handitu da, eta adierazle hori 2002-2006 epearen bi biurtekoetan erregistratu zen %3aren inguruko kopuruak baino hamarren batzuk txikiagoa baino ez da.

GIZARTE-EKONOMIAREN ESTABLEZIMENDUEN eta ENPLEGUEN HAZKUNDE-TASEN GAINEKO ANALISI
KONPARATIBOA: 2004-2006 eta 2006-2008 BIURTEKOAK.
KONPARAZIOZKO ERREFERENTZIA: EAEko BIZTANLERIA LANDUNA 2004-2008an

	Establezimenduak	Enpleguak	Biztanleria landuna EAE
▲ %06/04	%+2,1	%+3,8	%+3,3
▲ %08/06	%-3,6	%-1,4	%+2,7


Iturria: Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA), Eustat 2008

Epe luzera begirako ikuspegi batez, 1996 eta 2002 artean enplegu garbia sortzeari dagokionez, gizarte-ekonomia euskal ekonomia osoa baino dinamikoagoa izan zen bitartean (gizarte-ekonomiaren enpleguaren hazkundea %40,4 izan zen eta EAEko ekonomia osoaren okupazioaren hazkundea, berriz, %24), 2002 eta 2008 artean aurkako joera eman da (epe horretan gizarte-ekonomiaren alorrean eman den enpleguaren hazkundea %2,6koa izan da euskal ekonomia osoan izandakoaren %9,4aren aurrean, azken kasu horretan hiru aldiz handiagoa izanik).

Euskal ekonomia osoari dagokionez, azken urteotan gizarte-ekonomiaren bilakaeraren dinamika negatiboa izatea azaltzen duten arrazoiak dira, nagusiki, sektorearen espezializazio industrial eta kanpoko merkatuetara gehiago ireki izana. Hain zuzen ere, gizarte-ekonomia irekiago dago tokiko merkatuek baino lehenago atzeraldi ekonomikoa nozitu zuten kanpoko merkatuetara, baita globalizazioarekin zerikusirik duten prozesuetara ere, batez ere deslokalizazio terminoetan hitz eginda. Aitzitik, EAEko ekonomia osoa 2008an oraindik ez zen krisi ekonomikoa bere intentsitate osoz nozitzen ari, ezta horri lotutako enplegu galera ere.

Nolanahi ere, 2008an gizarte-ekonomiaren enpleguaren garrantzi erlatiboa murriztu egin zen. EAEko biztanleria landunari dagokionez, horren ekarpena 4 hamarren murriztu zen 2002. urtean lortutako gehiengo historikoarekin alderatuz gero (2002an %6,7 murriztu zen, 2008ko %6,3aren aurrean).

**GIZARTE-EKONOMIAREN ENPLEGUAK EAEko EKONOMIAN DUEN PISU ERLATIBOAREN BILAKAERA
1994-2008 (EAEko enplegu osoaren gainera %).**



Iturria: Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA), Eustat 2008

ntzemandako aldaketekin batera, 2006 eta 2008 artean gizarte-ekonomiaren establezimenduen eta enpresen batez besteko dimentsioaren hazkunde moderatua eman da. Zentroetako batez besteko tamaina handitzearen arrazoia izan daiteke sektorean eman den enpresa-kontzentrazioaren prozesu orokorrago bat. Hori horrela, 2006 eta 2008 artean erregistratutako enpresa kopuruaren jaitsiera handiagoa da establezimenduen kopuruan erregistratutakoa baino. Era horretan, enpresa bakoitzeko dauden establezimendu kopurua 2006an 1,30 izatetik 2008an 1,36 izatera pasatu da.


2006 eta 2008ko GIZARTE-EKONOMIAREN ENPRESEN TAMAINAREN GAINEKO ADIERAZLEAK

	2006	2008
Enpresako establezimendu kopurua	1,30	1,36
Enpresen batez besteko tamaina (Enpleguak)	26,6	28,4
Establezimenduen batez besteko tamaina (Enpleguak)	20,5	21,0

Sektorearen ikuspegitik begiratuta, gizarte-ekonomia —tradizionalki industriari lotua— hirugarren sektorerara bideratzeko prozesu etengabea erregistratzen ari da 1994. urtean estatistika operazioa hasi zenetik. Hala eta guztiz ere, 2006 eta 2008 artean prozesu hori bizkortu egin zen industriaren sektoreko enpleguaren galeraren ondorioz, bere bolumenaren murrizketa aztertzen ari garen biurtekoan %7,5ekoa izanik. Testuinguru horretan, industria-enpresa handi eta ertainen jarreraren ezaugarri nabarmenena da, zehatzago esateko sozietate laboralena, aurreko biurtekoetan izandakoa baino jarrera negatiboagoa izan dutela, eta, era horretan, eragina izan dute industria-sektoreak gizarte-ekonomian duen pisu erlatiboa nabarmen murrizteko garaian.


Hirugarren sektoreko enpresek, berriz, 2008an enpleguaren bolumen osoa mantentzea lortu dute, are gehiago, 2006. urtearekin alderatuta, %5,5eko hazkundea izan dute. Hazkundearen portzentaje hori 2004-2006 epean izandakoa gainditu badu ere, ez du lortu 2004-2006 epean erregistratutako %8,8ko hazkunde-mailara iristea.

**GIZARTE-EKONOMIAREN INDUSTRIA-ENPLEGUAREN ETA HIRUGARREN SEKTOREKO ENPLEGUAREN
BILAKAERA**
(Hazkunde-tasak 2004-2006 eta 2006-2008 biurtekoetan)



Adierazitako hazkunde-tasa dibergenteen inplikazioak erabakigarriak dira. Izan ere, antzematen da 2008an garrantzi handiko aldaketa kualitatiboa eman dela, hautsi egin baita gizarte-ekonomiak 2006 arte erakutsi zuen profil industrialia. Estatistika egiten denetik lehenengo aldiz, 2008an zerbitzuen sektorearen pisu erlatiboa industria-sektorearen pisu erlatiboa baino handiagoa da enpleguari dagokionez. Industriaren parte hartzea gizarte-ekonomian 2006 eta 2008 artean %51,0tik %47,8ra murrizten den bitartetan, zerbitzuen pisua %45,3 izatetik %48,5 izatera pasatu da.

ENPLEGUAREN ARLOZ ARLOKO BANAKETAREN KONPARATIBA, EAEko EKONOMIAN ETA GIZARTE-EKONOMIAN. 2008an (esparru bakoitzeko enplegu osoaren gaineko bolumenaren %)




Oharra: Konparazio datuak Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestatik (BJA) hartutakoak dira. Eustat 2008. urteko okupazioaren batez bestekoa

2006 eta 2008 artean antzemandako aldaketek eragin nabarmena izan dute gizarte-ekonomiaren enpleguaren pisu espezifikoan eta EAEko jarduera-sektore guztietan. Gizarte-ekonomiaren pisuaren murrizketak, enplegu osoari dagokionez, industria-sektorean du garrantzirik handiena. Kasu horretan, gizarte-ekonomiaren enpleguaren pisu erlatiboa 2006 eta 2008 artean %13,2tik %12,1era jaitsi da. Gizarte-ekonomiaren hirugarren sektoreak, berriz, zertxobait handitu du bere pisu espezifikoa EAEko hirugarren sektoreko enplegu osoari dagokionez (%4,6tik %4,8ra 2006-2008 biurtekoan).

Hala eta guztiz ere, industriaren alorreko enpleguaren pisua gizarte-ekonomian oraindik ere askoz handiagoa da sektore horri euskal ekonomia osoan dagokiona baino (%47,8 dagokion %25,4aren aurrean). Aitzitik, zerbitzuen pisua enpleguan EAEko enplegu osoan antzematen dena baino txikiagoa da (%48,5 gizarte-ekonomian euskal ekonomian ematen den %65,3aren aurrean). Hain zuzen, 2008an EAEko industria-sektorearen zortzi enpleguetatik bat oraindik gizarte-ekonomiaren barruko enpresei dagokie.

GIZARTE-EKONOMIAREN GARRANTZI ERLATIBOA EAEko EKONOMIAN
(Enpleguaren pisu erlatiboa) 2006-2008




Iturria: Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA), Eustat 2008

Lurralde-dimentsioari dagokionez, 2006-2008 biurterako deskribatutako bilakaerak arrasto handiagoa utzi du Gipuzkoako enpleguan. Bere profila industrialagoa izatearen ondorioz, 2006 eta 2008 artean Gipuzkoak bederatzi hamarren galdu ditu, pisu erlatiboan, EAEko gizarte-ekonomiaren enplegu osoari dagokionez, eta %50,6ko kopuruan gelditu da. Nolanahi ere, kopuru horrekin Gipuzkoa oraindik buruan dagoen lurraldea da, enpleguaz ari garela, gizarte-ekonomiaren esparruan eta, aldi berean, Gipuzkoako gizarte-ekonomiaren sektoreak pisu erlatibo handiena du lurraldearen enplegu osoan (%9,7).

Beste alde batetik, Arabako enpleguaren pisu erlatiboa zortzi hamarren handitu da gizarte-ekonomiak sortutako enplegu osoan, eta %10,3an jarri da. Bizkaiko enplegua, bere aldetik, mantendu egin da 2006an lortutako maila bertsuetan, %39,0an kokatuta.


Lurralde guztietan eman den bilakaera ez da berdin gauzatu establezimenduei dagokienean. Gipuzkoak ehuneko lau hamarren galdu du pisu erlatiboan baina, kasu honetan, Bizkaia da parte hartze handiena galtzen duen lurraldea (ehuneko bat), eta horrekin batera Arabaren parte hartze erlatiboaren hazkundera eman da (2006ko %14,3tik 2008ko %15,6ra). Bilakaeraren dinamika horrek agerian uzten du, neurri handi batean, Gipuzkoako enpleguaren murrizketak ez duela hain zerikusi handia establezimenduen galerarekin (oro har prozesu hori enpresa txiki eta ertainekin du zerikusia) eta bai duela nolabaiteko tamaina duten enpresetan ematen den enpleguaren murrizketarekin.

GIZARTE-EKONOMIAREN ENPLEGUAREN ETA ESTABLEZIMENDUEN LURRALDE-BANAKETAREN BILAKAERA. 2006-2008



Gizarte-ekonomiak lurralde historiko bakoitzaren enplegu osoan duen pisu erlatiboaren analisiak agerian jartzen du bilakaera konparatiboa okerragoa dela Gipuzkoan eta Bizkaian. Hori horrela, kooperatiba-sozietate eta sozietate laboralen galera Bizkaian fokalizatu da (0,2 puntu galduta lurraldearen enpleguaren parte hartzean) eta batez ere Gipuzkoan (parte hartzean ehuneko 0,5 puntu galdu dituzte). Arabako gizarte-ekonomiaren jarrera, berriz, zertxobait hobea izan da lurraldearen produkzio-egitura osoa baino, eta ehuneko hamarren bat irabazi du 2006. urtearekin alderatuz gero.

GIZARTE-EKONOMIAREN GARRANTZI ERLATIBOA EAEko EKONOMIAN
(Enpleguaren pisu erlatiboa lurralde historikoaren arabera). 2006-2008




Iturria: Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA), Eustat 2008


Ondorengo irudian zehaztu egiten dira gizarte-ekonomiaren pisu erlatiboak jarduera-sektore bakoitzaren eta lurralde historiko bakoitzaren arabera. 2008an oraindik ere daturik nabarmenena da Gipuzkoan gizarte-ekonomiak duen garrantzi handia, batez ere industriari dagokionez. Ildo horretan, Gipuzkoan industria-sektoreko bost enpleguetatik bat, %20,2 hain zuzen, gizarte-ekonomiaren establezimenduei dagokie.



GIZARTE-EKONOMIAREN GARRANTZI ERLATIBOA EAEko EKONOMIAN, SEKTOREAREN ARABERA
(Enpleguaren pisu erlatiboa, lurralde historikoaren arabera)

EAE



ARABA





Iturria: BJA, Eustat

Analisia gizarte-ekonomiaren establezimenduen izaera juridikoaren arabera eginez gero, 2006-2008 biurtekoan hainbat joera antzematen dira. Joera horietako batzuek dagoeneko aurreko ekitaldi batzuetan azpimarratutako joerei jarraipena ematen dieten bitartean, beste batzuek berrikuntza handiak sartu dituzte:

- Kooperatiben kasuan, 2004-2006 biurtekoan erregistratutako bilakaera positiboaren testuinguruan, bai enpleguari dagokionez bai sortutako establezimendu kopuruari dagokionez, 2006 eta 2008 artean eman den jarrera oraindik positiboa izan da, baina askoz ere moderatuagoa. Hala eta guztiz ere, zerbitzuen sektoreko kooperatibak dira industriaren sektoreko kooperatiben enplegu galera konpentsatzea lortu dutenak, eta, era horretan, kooperatiben sektorearen enplegu globalaren bolumena mantentzea lortu dute (hazkundea %0,4koa izan da ozta-ozta, 2006. urtearekin alderatuta).
- Sozietate Anonimo Laboralek (SAL) gizarte-ekonomian duten garrantzi erlatiboa galtzen jarraitu dute, establezimenduei zein enpleguari dagokienez, eta aurreko biurtekoetan antzemandako joerari jarraipena ematen diote. Enpleguaren murrizketak, hain zuzen okupazioan %9,5eko jaitsiera orokorra inplikatzan dutenak, batez ere industria eta eraikuntzaren esparruetan dira nabarmenak.

- Bere aldetik, Sozietate Mugatu Laboralek (SLL) 2008an joera aldaketa nozitu dute, bilakaera negatiboa izanik. 2006. urtearekin alderatuz gero, murriztu egin dira establezimendu kopurua zein sortutako enplegu kopurua; horrek aldaketa esanguratsua suposatzen du sozietate horiek joan den mendearen bukaeran gizarte-ekonomiaren barruan sartu zirenetik erregistratutako hazkunderen aurrean. 2006 eta 2008 artean, kasu horretan, enplegu-maila %5,3 jaitsi zen.

GIZARTE-EKONOMIAREN ESTABLEZIMENDUEN ETA ENPLEGUEN BILAKAERA FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. 2006-2008 (c.a., % v.)

ESTABLEZIMENDUEN BILAKAERA

	2006		2008		%Δ08/06 (1)
	c.a.	%v.	c.a.	%v.	
Kooperatibak	1.855	59,9	1.895	63,5	+2,2
SL	1.241	40,1	1.091	36,5	-12,1
SAL	437	14,1	364	12,2	-16,7
SLL	804	26,0	727	24,3	-9,6
GUZTIRA	3.096	100,0	2.986	100,0	%-3,6

ENPLEGUEN BILAKAERA

	2006		2008		%▲08/06 (1)
	c.a.	%v.	c.a.	%v.	
Kooperatibak	50.167	79,0	50.359	80,4	+0,4
SL	13.313	21,0	12.257	19,6	-7,9
SAL	8.238	13,0	7.451	11,9	-9,5
SLL	5.075	8,0	4.806	7,7	-5,3
GUZTIRA	63.480	100,0	62.615	100,0	-1,4

(1) Kopuru absolutuen gainean erregistratutako hazkunde portzentuala.

EAEko gizarte-ekonomiaren establezimendu guztiek 2008an sortutako BEGa 2.927,7 milioi euroko kopurura iritsi da, eta horrek termino nominaletan %0,54ko jaitsiera suposatzen du 2006. urtean erregistratutako kopuruarekin alderatuz gero. Hortaz, 2006 eta 2008 artean BEGak izandako bilakaerak 2002-2004 biurtekoan erregistratutako mantsotze-prozesu nabarmenaren bideari ekin dio berriro ere, nahiz eta oraingoan testuingurua larriagoa izan, jaitsiera nominalak eman baitira.

Dinamikaren bilakaera horrek dakar gizarte-ekonomiak EAEko Barne Produktu Gordin (BPGd) globalari egindako ekarpena txikiagoa izatea. Nahiz eta aurreko urteetakoa baino txikiagoa izan, 2008an euskal BPGdaren indizea oraindik egoera positiboan mantentzen da, %2ko hazkundearekin, 2006 eta 2008 artean gizarte-ekonomiaren enpresa-egiturak sortutako BEGan erregistratutako jaitsieraren aurrean.

Arloz arloko datuek adierazten dute 2006 eta 2008 artean egoerak okerrera egin duela bai industriaren alorrean bai zerbitzuetan, baina bi sektoreen arteko aldeak funtsezkoak izan dira. Zerbitzuen kasuan egiaztatu da hazkundera nabarmen mantsotu dela 2004-2006 epean izandako %24ko hazkundeari dagokionez, baina, hala eta guztiz ere, 2006 eta 2008 artean hazkunde-erritmoa oraindik ere handia izan da, hazkunde nominaleko %10,3ko tasa erdietsiz.

Aitzitik, industria-sektorearen krisiak gizarte-ekonomiak epean izandako bilakaera markatu du, eta agerian geratu da aurreko biurtekoekin alderatuz gero joera aldaketa nabarmena eman dela: 2004 eta 2006 artean hazkunde nominaleko %16,5eko tasa izatetik 2006 eta 2008an %7,2ko jaitsiera izatera pasatu da.

ARLOZ ARLOKO BEG-aren HAZKUNDEA 2006-2008 EPEAN (Ohiko prezioak)

Sektoreak	Hazkunde-tasa
Industria	%-7,22
Zerbitzuak	%+10,34
GUZTIRA*	%-0,54

Deskribatutako dinamikak berekin dakar gizarte-ekonomiak EAEko BPGd globalari egindako ekarpen erlatiboa ehuneko bat txikiagoa izatea (2006an %5,3tik 2008an %4,3 izatera pasatuta). Murritzeta hori, neurri handi batean, industria-sektorean antzemandako dinamikarekin du zerikusia. Hori horrela, 2008an EAEko industriak sortutako 100 eurotik 9,3 gizarte-ekonomiaren industria-establezimenduek sortutakoak dira, 2006an sortzen zituzten 10,7 euroen aurrean.

GIZARTE-EKONOMIAREN PARTE HARTZEA ARLOZ ARLOKO BARNE PRODUKTU GORDINEAN. KONPARAZIOZKO ERREFERENTZIA 2006-2008

	2006	2008
Industria	10,7	9,3
Eraikuntza	1,6	1,3
Zerbitzuak	3,3	3,2
GUZTIRA	5,3	4,3


Iturria: Kontu ekonomikoak, 2008 Eustat

Enpleguaren eta BEGaren bilakaera adierazten duten kopuruek (bi kasuetan nolabaiteko jaitsiera izan delako joera adierazten dutenak), era berean enplegu bakoitzeko ematen dituzten batez besteko produktibitatearen kopuruak termino nominaletan antzeko mailetan mantentzen dira 2006 eta 2008 artean (46.756 euro enplegu bakoitzeko 2008an eta 46.667 euro enpleguko 2006an). Termino errealetan bilakaeraren kopuruetara hurbiltze bat eginez gero, nolabaiteko beheranzko joera ematen dela antzeman daiteke, 2008ko magnitudea termino errealetan aztertze deflaktatu ondoren.

Euskal gizarte-ekonomiaren enpresa-establezimendu guztiek eskuratutako emaitzen ezaugarri nagusia da 2006-2008 biurtekoan murrizketa nabarmena jaso izana, termino nominaletan hitz eginda %32,5eko jaitsiera izan baitute, eta jaitsiera hori oso bestelakoa da 2004-2006 biurtekoan erakutsitako hazkundearekin alderatuz gero, epe horretan emaitzek %43,2ko hazkundera izan baitzuten termino nominaletan. Emaitza da termino nominaletan gizarte-ekonomiaren emaitzen zenbatekoa 2004. urtekoa baino zertxobait txikiagoa ere badela (356,1 milioi euro 2008an, 368,1 milioi 2004an, eta 527,2 milioi 2006an).

Hala eta guztiz ere, ikuspegi positiboago batetik begiratuta, egiaztatzen da 2008an EAEko gizarte-ekonomiaren enpresek cash-flowa sortzeko mailak mantentzeaz gain, 2006arekin alderatuta, %6,3ko hazkundera ere izan dutela. Dinamika positibo hori azaltzen duten faktoreen artean daude, partzialki behintzat, amortizazio eta hornidurei egindako dotazioetan izandako gehikuntza nabarmenak, batez ere hirugarren sektoreko finantza-enpresen kasuan. Ondorioz, egoera horrek konpentsatu egiten du 2008an eskuratutako emaitzetan izandako jaitsiera.


**GIZARTE-EKONOMIAREN EMAITZA EKONOMIKOEN BILAKAERA ETA CASH FLOWAREN (MOZKINAK)
2006-2008 (c.a. milakotan)**



Zenbait kasutan izandako zailtasunak gorabehera, eta deslokalizazio prozesuak mantendu diren arren, EAEn kokatutako gizarte-ekonomiaren establezimenduek, bereziki nolabaiteko tamaina duten industria-kooperatibek, 2008an kanporako merkatuetarako irekitze-maila handiak mantentzea lortu dute. Fakturazio-mailak txikiagoak diren testuinguru batean, horrek adierazten du esportazioen pisu erlatiboa gizarte-ekonomiaren enpresen fakturazioan ehuneko 1,4 hazi dela 2006 eta 2008 artean. Hazkunde horrek esportazioek fakturazioan duten parte hartzea %24,9an kokatzen du, eta hori da, hain zuzen ere, proportziorik gorenena gizarte-ekonomiaren estatistika egiten denez geroztik, eta, horretaz gain, jarraipena ematen dio 2002-2004 biurtekoan izandako jaitsieraren ondoren hasi zen goranzko joerari.

Kopuru absolutuetan, 2008. urtean gizarte-ekonomiaren enpresen esportazioen bolumena 2.425,6 milioi eurokoa izan da, eta %8,3ko hazkundera suposatzen du 2006an izan zen 2.239,4 milioien aurrean. Bilakaera horrek adierazten du euskal gizarte-ekonomiaren enpresa eta establezimenduak merkatu berrietara irekitzeak duen garrantzi ekonomikoa, eta, era berean, kanpoko merkatuetan establezimendu berriak irekitzea ere horren osagarri da.

KANPOKO MERKATUETARAKO IREKITZE-MAILAREN BILAKAERA (esportazioen bolumena fakturazio osoaren gainean). 1994-2008



Azkenik, finantziazio propioaren eta inbertsio ahaleginaren esparruan ondorengo alderdiak, azpimarratzekoak oso, egiaztatu dira. Horietako batzuk oraindik positiboak dira, batez ere kontuan hartzen bada nolako testuinguru ekonomiko konplexuan kokatzen diren:

- Kapitalizazio propioaren eta finantziazioaren esparruan, azpimarratzekoa da atzerapen nabaria eman dela euskal gizarte-ekonomiaren balantze globalean apuntatutako Fondo Propioen bolumenean, eta 2006arekin alderatuta jaitsiera nominala %7koa dela esan daiteke. Adierazitako aldaketak hautsi egiten du aurreko urteetako goranzko joera, 2004 eta 2006 artean Fondo Propioak oraindik hazi egin baitziren, %7 inguru. Biurteko horretan euskal gizarte-ekonomiaren finantzaren sendotasun-maila kontsolidatu egin zen.
- Gizarte-ekonomiaren enpresek 2008an egindako inbertsio garbiak, ibilgetu material zein immaterial ukiezinean, bere aldetik, 327,6 milioi euroko zenbateko agregatua eskuratu du. Ibilgetu materialean egindako inbertsioa guztira 266,2 milioi eurokoa izan da, eta ibilgetu immaterial edo ukiezinean egindako inbertsioari guztira 61,5 milioi euroko kopurua dagokio. Gizarte-ekonomia osatzen duten enpresek egindako inbertsio garbiaren mailak %0,7ko hazkundea suposatzen du 2006. urtearekin alderatuz gero. Inbertsio prozesuan antzeman daitekeen egonkortasun hori positiboa da oso ziurgabetasun testuinguru batean, itxaropen handirik gabeko eta ezegonkortasunezko testuinguru horrek ez baitu enpresa-dinamismo handi baterako biderik ematen.

TXOSTEN OROKORRA

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak gizarte-ekonomiaren estatistikaren zortzigarren edizioa garatu du, hain zuzen ere 2008. urteari dagokiona. Proiektuaren exekuzioaren garapena Ikertalde Aholkularitza Taldeak burutu du, eta Sailaren Estatistika Organo espezifikoak gainbegiratu du.

Lanaren helburua da gizarte-ekonomia EAEko ekonomia testuinguruaren barruan kokatzea eta haren ezaugarriak zehaztea, baita 2006. urtearekin alderatuta izan duen bilakaera azaltzea ere. 2009. urteko azken lau hilabetekoan landa-lana burutu zen datu-bilketa egiteko asmoz, eta datu horiek estatistikoki erabili ondoren Gizarte-Ekonomiaren Estatistikari buruzko Txosten Nagusia gauzatu zen. Txosten horrek 2006-2008 biurtekoan Gizarte-Ekonomiaren magnitude nagusien bilakaerari buruzko emaitza adierazgarrien berri ematen du.

Egin beharreko denbora konparazioak egin ahal izateko, aurreko urteetako aurkezpen-egitura mantendu da, edukia honako atal nagusietan banatuta:

- Lehenengo atalak biurtekoaren enpresa-dinamikari heltzen dio, jarduera-sektoreen arabera, eta kontuan hartzen ditu bai establezimenduen bilakaera bai enpleguaren sorrera eta enpleguaren beraren ezaugarri nagusienak. Horretaz gain, sortutako BEG balioa eta produktibitate-ratioen berri ere ematen du, baita 2008. ekitaldiari dagozkion diru sarreren eta gastuen kontuak ere.
- Bigarrenak aurreko analisiari heltzen dio establezimenduen forma juridikoaren arabera: Kooperatibak, Sozietate Anonimo Laboralak (SAL) eta Sozietate Mugatu Laboralak (SLL). Epe horretan honako alderdiek izandako bilakaera ere aztertzen da: sortutako enplegua, BEGa, eta produktibitate antzemangarria.
- Hirugarrenak, berriz, gizarte-ekonomiaren magnitude nagusien lurralde-irakurketa egiten du, eta 2006. urtearekin alderatuta izan duten bilakaera jasotzen du.
- Laugarren atalak EAEko gizarte-ekonomiaren produkzio-egituraren esportazioarekin eta kanpoko merkatuetarako irekitze-mailarekin zerikusia duten aldagaien azterketa egiten du.
- Bosgarren atalak beste magnitude ekonomiko batzuen analisia egiten du, hala nola funts propioak eta errentagarritasun-mailak, ibilgetu material eta immaterialean egindako inbertsioak edo gizarte-ekonomiaren alorreko enpresek jasotako dirulaguntzak.

Azkenik, bi eranskin gehitu dira:

- I. eranskinean Galera eta Mozkinen Kontuen xehetasunak ematen dira, izaera juridikoaren eta lurralde historikoaren arabera banatuta, eta kasu bakoitzean kontu horien gaineko xehetasunak ematen dira jarduera-sektore bakoitzaren arabera.
- II. eranskinak enpresa-establezimenduen kudeaketari lotutako aldagai batzuk aztertzen ditu. Horiek horrela, enpresen eta establezimenduen eguneroko kudeaketan erabiltzen diren tresnak eta teknika espezifikoak aztertzen dira, baita enpresen arteko lankidetzarako erabiltzen diren bestelako tresnak edo ereduak ere.

1.- ENPLEGUAREN ETA ESTABLEZIMENDUEN DINAMIKA 2006-2008 BIURTEKOAN

Gizarte-ekonomiaren alorrak bere gain hatzen dituen enpresa-establezimenduak Euskal Autonomia Erkideagoan (EAE) kokatuta daude eta honako forma juridikoa dute: Kooperatibak, Sozietate Anonimo Laboralak eta Sozietate Mugatu Laboralak. 2008. urtean EAEko gizarte-ekonomia **2.203 enpresak** osatzen zuten guztira, **2.986 establezimendu** eta **62.615 lanpostu** biltzen zituztenak.

1.1 taula

GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ESTABLEZIMENDUEN ETA ENPLEGUAREN BILAKAERA.
KONPARAZIOZKO ERREFERENTZIA: EAEko BIZTANLERIA LANDUNA 2004-2008

	GIZARTE-EKONOMIA ¹		Biztanleria landuna EAEn / Lan-jarduera duen biztanleria
	Establezimenduak	Enpleguak	
2000	2.803	54.259	830.200
2002	2.976	61.022	902.200
2004	3.032	61.140	930.600
2006	3.096	63.480	961.000
2008	2.986	62.615	987.100
	%-3,55	%-1,36	%+2,72

Oharra: Okupazio datuak Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestatik (BJA) hartutakoak dira.
Eustat 2008. urteko okupazioaren batez bestekoa

2006 eta 2008 artean %3,6ko bilakaera negatiboa antzematen da establezimenduen sorreraren dinamikan, aurreko biurtekoetan antzemandako hazkundearen aurrean. Dena den, hazkunde-tasa horiek 2000-2002² biurtekoan eman zirenekin alderatuz gero, %6,2koak, nabarmen beherago egon arren, 2002 eta 2006 artean bi urtez behingo epean %2aren inguruan handitu ziren (2002 eta 2004 artean %1,9 eta 2004 eta 2006 artean %2,1).

¹ Azpimarratu behar da 2006. urteko enpleguari buruzko datuak zertxobait gorantz doitu direla, 2006ko estatistikaren estimazioari dagokionez. Ildo horretan, antzeman da 407 enplegu osagarri daudela guztira 2008. urtean egindako informazio-bilketa prozesuan zehar.

² Establezimendu berriak sortzeko tasa handi horrek zerikusia du, neurri handi batean, SLL sozietateak sortzeko dinamikarekin, joan den mendearen 90eko hamarkadaren bukaeran horien araudi bidezko erregulazioa eman ondoren.

Horretaz gain, enpleguaz ari garenean ere bilakaera negatiboa antzematen da, nahiz eta zertxobait txikiagoa izan establezimenduen kasuan. Zehazki, enplegu kopurua %1,4 baino ez da murriztu 2006 eta 2008³ artean. Nolanahi ere, bilakaera horrek kontrastatu egiten du, nabarmen, 2004-2006 biurtekoan izandako enplegu sorrerarekin, epe horretako hazkunde-tasa %3,8koa izan baitzen, eta are nabarmenago 2000-2002 epean izandakoarekin, %12,5koa izan zena. 2006 eta 2008 artean gizarte-ekonomiak enplegua sortzeko izan zuen gaitasunaren eragin negatiboa are handiagoa da 2002 eta 2004 artean izandakoa baino, epe hartan oraindik ere enpleguaren hazkundera positiboa baitzen (%+0,2).

2002-2004 epean bezalaxe, gizarte-ekonomiaren azkenaldiko bilakaerak erakusten duen jarrera EAEko ekonomia osoak erakusten duena baino negatiboagoa da. Hori horrela, gizarte-ekonomian izandako enplegu galerarekin kontraste eginez, Euskadiko batez besteko okupazio orokorra 2006 eta 2008 artean %2,7 handitu da. Adierazle hori 2002-2006 epeko bi biurtekoetan erregistratu ziren %3tik gertuko kopuruak baino hamarren batzuk beheragokoa da soilik.

2006 eta 2008 artean, beraz, gizarte-ekonomiaren produkzio-egiturak egoera negatiboa erakusten du euskal ekonomia osoarekin alderatuz gero. 2002 eta 2004 artean gertatutakoak adierazten duen bezala, hain zuzen ere gizarte-ekonomian enpleguaren hazkundera %0,2koa izan zen bitartean euskal ekonomian %,3,1koa izan baitzen, enplegua sortzeko gaitasunean dinamismo txikiagoa izatearen arrazoia lehenago bilatu behar da. 2002 eta 2008 artean gertatutakoa alderatzen bada, nahiz eta 2004 eta 2006 artean eman den joera zertxobait hobea izan, egiaztatu egiten da gizarte-ekonomian enpleguaren hazkundera %2,6koa izan den bitartean okupazioaren hazkundera %9,4koa izan dela euskal ekonomia osoaren baitan, hiru halako baino handiagoa⁴.

Aldea nabaria da 1996-2002 epean antzemandakoarekin erkatuz gero, 2002tik 2008ra bitarteko epeak izan zuen denbora iraupen bera duen epea. Bada, epe horretan, gizarte-ekonomiaren eta euskal ekonomia osoaren enpleguaren bilakaeraren erlazioa ondorengoa zen: enpleguaren hazkundera %40,4koa zen gizarte-ekonomian eta okupazioaren hazkundera %24koa euskal ekonomia osoaren kasuan.

Hortaz, ondorengo tesia defenda daiteke: mende berrian hazkunde ekonomikoak izan dituen muga horiek aurretik ere antzeman dira gizarte-ekonomiaren enpresa-egituraren gainean. Izan duten eragina askoz ere negatiboagoa izateaz gain, eta enpleguaren galera ekonomiaren gainerako sektoreetan baino lehenago hasi arren, muga horiek adierazten dute haustura nabarmena gertatu dela 90eko hamarkadaren bigarren zatian eta mende berriaren lehenengo urteetan antzemandako hazkunde handiarekin alderatuz gero.

³ 2006 eta 2008 artean produkzio zentroen kopuruan ehunekotan izandako jaitsieraren joera, enplegu kopuruei dagokienez, oso bestelakoa da aurreko biurtekoan antzemandakoarekin alderatuz gero. 2004-2006 biurtekoan, hain zuzen ere, enpleguaren hazkunde-tasa establezimenduen tasaren bi halako zen (%4,5 zen %2,1aren aurrean).

⁴ Gizarte-ekonomiatik kanpo estimatutako okupazioa soilik kontuan hartzen bada okupazioaren hazkundera %9,9ra handitzen da.

Azterlan honen beste atal batzuetan egiaztatu ahal izango den bezala, errealitate horrek, zalantzarik gabe, zerikusi handia du sektorean espezializazio handiagoa izatearekin, baita tokiko merkatuek baino lehenago atzeraldi ekonomikoa nozitu zuten Europako merkatuetara irekitzearekin ere. Era berean, globalizazioarekin lotutako prozesuek ere eragina utzi dute, mende berria⁵ hasi duen lehenengo hamarkadan euskal gizarte-ekonomia kanpora ateratzeko prozesuak handitu egin baitira.

1.2 taula

GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ESTABLEZIMENDUEN ETA ENPLEGUEN HAZKUNDE-TASAK.
2000-2002tik 2006-2008ra bitarteko BIURTEKOAK.
KONPARAZIOZKO ERREFERENTZIA: EAEko BIZTANLERIA LANDUNA 2004-2008

	Establezimenduak	Enpleguak	Biztanleria landuna EAE
▲ %02/00	%+6,2	%+12,6	%+8,7
▲ %04/02	%+1,9	% +0,2	%+3,1
▲ %06/04	%+2,1	%+3,8	%+3,3
▲ %08/06	%-3,6	%-1,4	%+2,7

Oharra: Okupazio datuak Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestatik (BJA) hartutakoak dira. Eustat 2008. urteko okupazioaren batez bestekoa


Baina, horretaz gain, berriro azpimarratu beharra dago arestian izandako aldaketen izaera negatiboa areagotzen duen elementu berri bat sartzen duela 2006-2008 biurtekoaren bilakaeran. Ildo horretan, erreferentziazko biurtekoaren ezaugarria da, gizarte-ekonomiaren estatistika abian jarri zenez geroztik lehenengo aldiz, sektorearen barruan enpleguaren galera eman dela. Kopuru absolutuetan galera hori 865 enpleguren galera soilik ekarri badu ere, errealitate oso esanguratsua da 1994 eta 2006 artean sektorean enpleguaren hazkundera etengabea izan zelako.

⁵ Puntu honi dagokionez, komenigarria da gogoraraztea gizarte-ekonomian 2004 eta 2006 artean, 2002-2004 biurtekoarekin alderatuz gero, establezimenduak eta enplegua sortzeko dinamika positiboagoa izan bada, aurreko epe batzuetan antzematen zen bezalaxe, hori horrela izan dela sektoreko enpresen hazkunderaren zati handi bat deslokalizazio prozesuen bidez bideratzen zelako.

Ildo horretan, industria eta zerbitzuen alorreko kooperatiba handiek epe horretan zuten hazkundera EAEtik kanpo establezimendu berriak sortzearen ondoriozkoa zen. Industria-kooperatiben kasuan, egoera hori Europaren Ekialdeko herrialdeetan batez ere zen oso nabaria, baina Europar Batasunetik kanpoko herrialde batzuetan ere antzeman zitekeen, goraka ari diren ekonomian dituzten herrialdeetan, Txina edo Indian esaterako, irekitzen baitziren produkzio plantak. Beste alde batetik, zerbitzu-enpresa handiak autonomiaren eremutik kanpo merkatu berrien bila zebiltzala ere antzeman zitekeen, finantzen arloko enpresak bereziki.


Sektore honetako hazkunde-mailan sumatu daitekeen azkenaldiko krisak ez du soilik EAEko enpleguaren galeran islarik izan. Izan ere, horrekin batera euskal gizarte-ekonomia kanpora hedatzeko prozesua mantsotu egin da.

1.1 irudia
GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ESTABLEZIMENDUEN ETA ENPLEGUAREN BILAKAERA 1994-2008



2006-2008 biurtekoan erregistratutako aldaketen ondorio nagusienetako bat da hiru puntu hamarren jaitsi dela —2006. urtearekin alderatuta— gizarte-ekonomiaren enpleguak euskal ekonomia osoan duen pisu erlatiboa. Hori horrela, sektoreak duen proportzioa 2006an %6,6 izatetik 2008an %6,3 izatera pasatu da, 2002an izandako jaitsiera-maila baino maila handixeagoa erakutsita, urte horretan sektoreak bere eragin erlatibo handiena eskuratu baitzuen, %6,8arekin, baita 2004an izandakoa baino handiagoa ere (%6,6).

1.2 irudia
GIZARTE-EKONOMIAREN ENPLEGUAKNEAko EKONOMIAN DUEN PISU ERLATIBOAREN BILAKAERA 1994-2008
 (% EAEko enpleguen kopuru osoarekiko).



Oharra: Konparazio datuak Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestatik (BJA) hartutakoak dira. Eustat. urteko okupazioaren batez bestekoa

Euskal gizarte-ekonomiaren enpresen eta establezimenduen tamainari dagokionez, nabarmena gertatzen da produkzio zentro kopuruen bilakaera diferentziala okerragoa izatea. Hain zuzen ere, 2006 eta 2008 artean antzematen da establezimenduen batez besteko tamaina handitu egin dela, 2006an establezimendu bakoitzeko 20,5 enplegu izatetik 2008an 21,0 izatera pasatuta. Hala eta guztiz ere, establezimenduen batez besteko tamaina handitzeko joera hori egiturazko prozesuari eragiten dio gehienbat, eta 2000. urtetik aurrera goranzko joera erregistratzen da, urte horretan zentroen batez besteko tamaina establezimendu bakoitzeko 19,4 enplegu izanik. Enpleguaren alde zuzeneko hazkundearen ezaugarria, ordea, zentroen tamaina txikiagoa izatea zen: 1994. eta 1998. urteetan gehienezko kopuruak establezimendu bakoitzeko 21,8 enplegu izan ziren.

Zentroen batez besteko tamainaren hazkundeak zerikusi handia du sektorean enpresak kontzentratzeko eman zen prozesu orokorrarekin, eta 2006 eta 2008 artean izandako enpresa kopuruaren jaitsiera handiagoa izan zen establezimenduen jaitsiera baino. Hori horrela, 2008an gizarte-ekonomia osatzen duten enpresen bolumena %7,7 murriztu da, eta EAEko sektore horretako enpresen batez besteko tamaina 2006an enpresako 26,6 enplegu izatetik 2008an 28,4 izatera pasatu da. Prozesu horrekin batera handitu egin da enpresa bakoitzeko establezimendu kopurua, eta 2006an 1,30 izatetik 2008an 1,36 izatera pasatu da.

1.3 taula
GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPRESEN TAMAINARI BURUZKO ADIERAZLEAK

	2006	2008
Establezimendu/enpresa kopurua	1,30	1,36
Enpresen batez besteko tamaina (Enpleguak)	26,6	28,4
Establezimenduen batez besteko tamaina (Enpleguak)	20,5	21,0

Nolanahi ere, gizarte-ekonomiaren enpresa-egituraren analisia enpresen batez besteko tamainaren arabera eginez gero, ñabardura garrantzitsuak sartu behar dira:

- Alde batetik, egiaztatu egin da enpresa-egitura batez ere tamaina txikiko enpresek osatzen dutela oraindik ere.

Enpresa gehienak (%78,8, 2006ko %79,1arekin alderatuz gero oso gutxi murriztu den kopurua, hain zuzen ere) 15 enplegutik beherakoak dira. Oraindik gehienez 5 enplegu dituztenak gehiengoa dira: %51,1, kasu honetan beherago 2006ko %54ko kopurua baino.

Kontuan hartu beharreko beste datu bat da enpresa horiek batez besteko tamaina murrizteko joera hartu dutela (3,1etik 3ra 5 enplegu arteko enpresetan; 9,6tik 9,2ra 6tik 15 enplegu bitartekoetan). Hori dela eta, gizarte-ekonomian 2006an zuten pisua mugatua baldin bazen, %15,5 hain zuzen ere, 2008an %14,3ra murriztu da.

- 2006 eta 2008 artean enpresen batez besteko tamaina murrizteko joera hori 16 eta 50 enplegu bitarte dituzten enpresetan ere antzeman daiteke, 2006an enpresa bakoitzeko 27,9 enplegu izatetik 2008an 27,6 izatera pasatuta. Era berean, enpresa horiek euskal gizarte-ekonomiaren enplegu osoan zuten parte hartzea %14,8tik %13,1era murriztu da.
- 50 langiletik beherako enpresen pisu erlatiboaren galera hori, bere aldetik, konpentsatua dago enplegu-maila handiagoko enpresei dagokien hazkundearen bidez. Era horretan, 50 enplegutik gora dituzten enpresek 2008an enplegu osoaren %72,6 biltzen dute, 2006. urtean erregistratutako % %69,8tik gora, nahiz eta gizarte-ekonomiaren enpresa guztien %7,8a baino ez bildu. Horrekin kontsolidatu egin da tamaina ertaineko eta handiko enpresetan bildutako enpleguaren pisua handitzeko joera.

Hala eta guztiz ere, eta espero zitekeenaren aurka, bilakaera hori ez dago loturik enpresa horien batez besteko tamainaren hazkundearekin, tamaina hori jaitsi egin baita, hain zuzen ere 2006an enpresa bakoitzean 269,6 enplegu zeuden bitartean, 2008an 267,3 zeuden.

Aurreko datuak oso garrantzitsuak dira, gutxienez hiru arrazoiengatik. Alde batetik, adierazten dute gizarte-ekonomiaren enpresen errealtatearen funtsezko dualtasunaren kontsolidazioa: alde batetik, zentro gehienak tamaina txikikoak dira, gehienez 15 enplegu dituztenak, eta enplegu osoaren %14,3 biltzen dute ozta-ozta; beste alde batetik, 50 enplegu baino gehiago dituzten zentro nukleo txiki bat dago, enpleguaren %72,6 biltzen duena.

Bigarrenik, egiaztatu egiten da datuak enpresen enpleguaren bolumenaren arabera aztertzen direnean gizarte-ekonomiaren enpresen batez besteko tamaina handitzearen atzean ezkutatzen dela tamaina horretan beheranzko joera orokorra dagoela. Kopuru orokorrak adierazten duen hazkundera, hortaz, soilik lotu daiteke 50 enplegutik gora dituzten enpresen pisu erlatibo handiagoarekin. Hori horrela, 2006an enpresa kopuruaren %6,9 zen bitartean 2008an %7,8 izatera pasatu zen (enplegu osoan duen pisua %69,8tik %72,6ra hazi da).

Baina, zalantzarik gabe, hirugarren puntua da garrantzitsuena. Egiaztatzen da 50 langile edo gehiago dituzten enpresen enpleguaren pisu erlatiboa loturik dagoela enpresa horietan enplegua handitzearekin, eta 50 enplegutik beherako enpresetan, ordea, jaitsiera ematen dela. Lehenengo kasuan, enplegua benetan %3,4 inguru handitu da (43.951 enplegutik 45.441 enplegura pasatu zen 2006 eta 2008 artean), eta 50 langile baino gutxiago dituzten enpresetan %10,2 jaitsi da (erreferentziazko epean 19.259 enplegu izatetik 17.174 izatera pasatu da).

1.4 taula
GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPRESEN TAMAINA
(c.a. eta %v)

	Enpresa kopurua	%v	Enpleguak	%v	Batez besteko tamaina
5 enplegu arte	1.125	51,1	3.343	5,3	3,0
6tik 15era	610	27,7	5.608	9,0	9,2
16tik 50era	298	13,5	8.223	13,1	27,6
51tik 100era	86	3,9	6.441	10,3	74,9
101etik 200era	39	1,8	5.738	9,2	147,1
201etik 500era	26	1,2	7.668	12,2	294,9
500 enplegutik gora	19	0,9	25.594	40,9	1.347,1
GUZTIRA	2.203	100	62.615	100	28,4

Enpresa txikiek sektorean duten garrantzia gorabehera, gizarte-ekonomiaren establezimenduen batez besteko tamaina oraindik ere EAEko establezimendu guztiei dagokiena baino nabarmen handiagoa da. Eustaten Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendaren arabera, euskal enpresek enpresa bakoitzeko batez beste 5,1eko enplegu kopurua dute, gizarte-ekonomiaren 28,4tik baino askoz beharago, hortaz (21,0eko 4,6 establezimendu/enplegu kopurua adierazten duen adierazlearekiko) Diferentzial hori azaltzeko esan beharra dago gizarte-ekonomiaren barruan tamaina ertaineko edo handiko enpresei dagokien pisu espezifiko handiagoa dela, batez ere kooperatiba izaera juridikoa duten eta industriaren alorrean kokatzen diren enpresen kasuan.

1.5 taula
GIZARTE-EKONOMIAREN ETA EAEko EKONOMIAREN ESTABLEZIMENDU/ENPRESEN TAMAINA, ENPLEGUAREN ARABERA

	Establezimenduen batez besteko tamaina	Enpresen batez besteko tamaina
Gizarte-ekonomia, 2008	21,0	28,4
EAEko ekonomia, 2008	4,6	5,1

Oharra: EAEri buruzko datuak Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendatik hartutakoak dira. Eustat 2008


1.1.- GIZARTE-EKONOMIAK SORTUTAKO ENPLEGUA

Gizarte-ekonomia tradizioz industrialia izan da, baina azkenaldian norabide aldaketa ematen ari da eta hirugarren sektorerara jotzen ari da. 1994. urteaz geroztik gizarte-ekonomiaren estatistikak horren berri jaso du. Datuek erakusten dute 1994. urtetik aurrera industria-enpleguaren pisu erlatiboa etengabe murrizten ari dela.

2006 eta 2008 artean adierazitako joera hori areagotu egin da, industria-enpleguak izan duen jaitsiera nabarmenaren ondorioz, kontuan hartutako biurteko horretan industria-enpleguaren bolumena %7,5 jaitsi baita. Joera horrek kontrastatu egiten du enplegu mota horretan 2004-2006 biurtekoan antzematen zen joerarekin, %3,2ko hazkundera izan baitzen, 2002 eta 2004 artean industriaren alorreko enplegua lehenengo aldiz jaitsi ondoren. 2002ko 33.155 lanpostuen kopuruari dagokionez, 2008ko 29.922 lanpostuek %9,8ko murrizketa suposatzen dute azken sei urteotako euskal gizarte-ekonomiaren industriaren alorreko enpleguaren bolumenean.

Industria-enpleguaren jaitsierak nabarmen kontrastatzen du zerbitzuen sektorearen aurrerapen handiarekin. Nahiz eta ez iritsi 2002 eta 2004 artean erregistratu ziren %8,8ko hazkunde mailetara, 2006-2008 biurtekoaren tasa %5,5ean kokatzen da eta 2004-2006 epean izandako %5,2koa gainditzen du. Industriaren alorreko lanpostuen bolumenaren jaitsieraren aurrean, gizarte-ekonomiaren barruko zerbitzuen sektoreko enplegua %22,2 handitu da 2002 eta 2008 artean.

1.3 irudia
GIZARTE-EKONOMIAREN INDUSTRIA-ENPLEGUAREN ETA HIRUGARREN SEKTOREKO ENPLEGUAREN
BILAKAERA (Hazkunde-tasak 2004-2006 eta 2006-2008 biurtekoetan)



Adierazitako hazkunde-tasa dibergenteen inplikazioak erabakigarriak dira. Izan ere, 2008an garrantzi handiko aldaketa kualitatiboa eman dela antzematen da: 2006 arte gizarte-ekonomiak erakutsi zuen profil industrialia hautsi egin da. Estatistika egiten denetik lehenengo aldiz, 2008an zerbitzuen sektorearen pisu erlatiboa industria-sektorearen pisu erlatiboa baino handiagoa da enpleguari dagokionez. Industriaren parte hartzea gizarte-ekonomian 2006 eta 2008 artean %51,0tik %47,8ra murriztu den bitartetan, zerbitzuen pisua %45,3 izatetik %48,5 izatera pasatu da.

Enplegu gaitan izandako joera negatiboek industriari ez ezik eraikuntzari ere eragin diote, azkeneko sektore horretako enpleguan 2006 eta 2008 artean %4,9ko jaitsiera eman baita, 2002 eta 2006 artean izandako jaitsierari jarraipena emanez. Hori horrela, 2002. urteko 2.468 enpleguei dagokionez, egungo 2.120 enpleguek %14,1eko jaitsiera suposatzen dute eraikuntzaren esparruak biltzen dituen lanpostuen kopuruan. Hala eta guztiz ere, aipatzekoa da sektore horrek %3,4ko parte hartzea baino ez duela gizarte-ekonomiaren enplegu osoan. Bere aldetik, lehen sektoreak erakusten duen ehunekoa oso txikia da, %0,4 baino ez.

1.6 taula

GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPLEGUAREN ARLOZ ARLOKO BANAKETA. 2006 eta 2008 (c.a. eta %v)


	2006		2008	
	c.a.	%v.	c.a.	%v.
Lehen sektorea	133	0,2	220	0,4
Industria	32.350	51,0	29.922	47,8
Eraikuntza	2.229	3,5	2.120	3,4
Zerbitzuak	28.768	45,3	30.353	48,5
GUZTIRA	63.480	100,0	62.615	100,0

Zerbitzuen sektoreak pisu erlatibo handiagoa hartu arren, 2008an industriak eta eraikuntzak zerbitzuen sektoreak bildutako %48,5a baino kopuru handiagoa eman dute oraindik, industriak gizarte-ekonomian duen funtsezko zeregina adieraziz.

Euskal ekonomiaren testuinguruan gizarte-ekonomiaren profila, oro har, nabarmen industrialagoa da: enpleguaren %47,8, euskal ekonomia osoaren %25,4aren aurrean. Eta horrekin batera eman beharreko beste datu bat honakoa: gizarte-ekonomian zerbitzuen sektoreak askoz garrantzi txikiagoa du (enpleguaren %48,5 gizarte-ekonomian, ekonomia osoaren %65,3aren aurrean), eta egoera hori eraikuntzaren sektorean ere ematen da (enpleguaren %3,4 doi-doi, euskal ekonomia osoaren %8,2aren aurrean).

1.4 irudia

ENPLEGUAREN ARLOZ ARLOKO BANAKETAREN KONPARATIBA, EAEko EKONOMIAN ETA GIZARTE-EKONOMIAN. (%v, eremu bakoitzeko enplegu osoari dagokionez))



Oharra: Konparazio datuak Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestatik (BJA) hartutakoak dira. Eustat 2008. urteko okupazioaren batez bestekoa.

Egia esan, gizarte-ekonomiari lotutako industriaren pisua erabakigarria da EAEko ekonomia osorako. Ildo horretan, gizarte-ekonomiaren alorreko industria-sektoreak enplegu osoaren %12,1 hartzen du bere gain, zerbitzuen sektorean antzemandako %4,8 horretatik askoz gorago. Kopuru hori %2,7ra jaisten da eraikuntzan eta %1.9ra lehen sektoreari dagokionez.

Baina, gizarte-ekonomiaren barruko industriaren alorreko enpleguak EAEko industria-enpleguari egiten dion ekarpena funtsezkoa dela ahaztu gabe, 2006-2008 biurtekoaren daturik esanguratsuena da ekarpen hori jaitsi egin dela ehuneko bat baino zertxobait gehiago: 2006ko %13,2tik 2008ko %12,1 izatera pasatu da. Industria-enpleguan eman den bilakaera hori, beraz, gizarte-ekonomian negatiboagoa izan da.


Nekazaritzan gertatzen den bezala (%1etik %1,9rako hazkundera izan du), 2006 eta 2008 artean gizarte-ekonomiaren ekarpena hirugarren sektorean handitu egin da, %4,6tik %4,8ra. Eraikuntzan, bere aldetik, nolabaiteko jaitsiera sumatu da, %2,8tik %2,7ra hain zuzen ere. Hala eta guztiz ere, jarduera-sektore horiek guztiek EAEko enplegu osoan duten parte hartzea oraindik txikiagoa da gizarte-ekonomia osoaren batez besteko parte hartzea baino (%6,3koa 2008. urtean).

Aurkeztutako kopuruek adierazten duten bezala, nahiz eta gizarte-ekonomia hirugarren sektorerako norabide aldaketa ematen hasia egon, esan beharra dago prozesu horren intentsitatea oraindik oso txikia dela. Gertatzen ari den bilakaera horrek ez du aldaketa zorrotzik ekarri, eta ekonomian parte hartzeko mailak nahikoa egonkorrak dira oraindik ere 2004an erregistratutako %4,7arekin alderatuta.

Aurkeztutako datuak ikusirik, gizarte-ekonomiak hirugarren sektorera jotzeak ez du benetan bere eraginaren hazkunde erlatiboa ekarri sektore honetako euskal enplegu osoan. Beste ezer baino lehen zerikusia du industrian erregistratu diren enplegu-mailen jaitsiera diferentzialarekin. Euskal Autonomiako industria-sektoreari globalki eragiten dion enplegu krisiari (zegoeneko 2007. urtean igarri zitekeena) nabarmen luzatu da 2008. urtean zehar. Sektore horetako enplegu-mailaren murrizketak eragin erabakigarriagoa du gizarte-ekonomian duen espezializazio industrialaren ondorioz, baita sektorea osatzen duten enpresa handien profil esportatzaile beraren ondorioz ere.

Hala eta guztiz ere, EAEko hirugarren sektorea 2008an dinamikoena izan da, eta hazkunde-tasa positiboak erregistratu dira bai enpleguari bai BEGari dagokienez. Gizarte-ekonomiaren kasuan, sektore horrek izan duen hazkundera markatua egon da kooperatiba handien enpleguak izan duen bilakaerarengatik. Ildo horretan, sektoreko hiru kreditu kooperatibetan, Eroskiz gain, izan den enpleguaren hazkunde garbia gizarte-ekonomia osoan 2006-2008 biurtekoan galdu den enpleguarekin parekatu daiteke.

1.5 irudia
GIZARTE-EKONOMIAREN GARRANTZI ERLATIBOA EAEko EKONOMIAN (Enpleguaren pisu erlatiboa)
2006-2008



Oharra: Konparazio datuak Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestatik (BJA) hartutakoak dira. Eustat 2008. urteko okupazioaren batez bestekoa

Enpresa-egituraren eta gizarte-ekonomiaren barruan pisu espezifiko handiena duten adarrak kontuan hartuz gero, jarduerari buruzko analisi zehatzago bat egin daiteke. Enpleguari dagokionez, 2008an batez ere ondorengo ezaugarri nagusiak azpimarratu behar dira:

- Industria eta eraikuntzaren barruan, 2008an gizarte-ekonomiaren langile kopuru osoaren erdiari baino zertxobait gehiagori enplegua ematen dieten jarduera-sektoreak (%51,1) batez ere ondorengoak dira: metalurgia eta produktu metalikoen fabrikazioa (%12,4), material eta ekipa elektriko, elektroniko eta optikoen industria (%12), eta makinaria eta ekipa mekanikoen eraikuntza (%9,7). Aipatutako hiru adar horiek hiru enplegutatik bat baino gehiago biltzen dute 2008. urtean, zehazki %34,1, baina, hala eta guztiz ere 2006ko %37,1aren azpitik daude. Horretaz gain, aipatu beharra dago oinarritzko industriaren enplegua ere %5etik gora dagoela (%5,2, 2006ko %4,7aren gainetik, kasu honetan).
- Hirugarren sektorearen kasuan, txikizkako komertzioaren pisua nabarmentzen da. Jarduera-adar horrek enplegu guztien %15,8 biltzen du. Merkataritza-sektore osoa kontuan hartuz gero, proportzio hori %17,2ra igotzen da, 2006ko %16aren gainetik.

Zerbitzuen sektorearen barruan beste adar garrantzitsu bat hezkuntzarena da. %11,6ko pisu erlatiboa du gizarte-ekonomiaren enpleguan, kasu horretan 2006ko %10aren gainetik nabarmen. Garrantziari dagokionez hirugarren lekuan, %5,1ko pisuarekin, higiezinen eta alokairuaren inguruko jarduerak daude, enpresei ematen zaizkien gainerako zerbitzuekin batera. Nolanahi ere, kasu horretan, joera beheranzkoa da 2006ko %5,3ari dagokionez.

Aipatutako industria- eta zerbitzu-adar horien guztien artean gizarte-ekonomiaren enpleguaren %73,2 biltzen dute.

2006 eta 2008 artean lanpostuak galdu dituzten adarretako enpleguaren bilakaera kontuan hartuz gero, egiazta daiteke manufaktura-industriaren joera izan dela lanpostuen galeran eragin handiena izan duena. Zehazki, 2006-2008 epean okupazio joera negatiboa duten adarretan galdutako 3.251 lanpostu garbiei dagokienez, manufaktura-industriari dagokion proportzioa kopuru osoaren %75,1 suposatzen du.

Hala eta guztiz ere, manufaktura-industriaren testuinguruan egiaztatzen da %51,7 material eta ekipo elektriko, elektroniko eta optikoaren industriari soilik dagokiola, metalurgia eta makinaria eta ekipo mekanikoen fabrikazioaren %12,8 eta manufaktura-industriaren gainerako adarrekin zerikusia duen industriaren %10,7 garbiaren gainetik. Industriatik kanpo, nabarmentzekoa da antzemandako %9,2ko galera (galdutako 3.251 enplegu garbi guztien gainean), hain zuzen ere osasun, albaitaritza eta gizarte-zerbitzuen adarrei dagokiena.

Enpleguari dagokionez hedatzeko joera duten adarretan, 2006 eta 2008 artean 2.387 enplegu garbi berri sortzeko gaitasuna dutenak, egiaztatu egiten da enplegu berri garbiaren %78,2 zerbitzuen sektorearen lau adar handiri dagokiola. Enplegu garbia sortzen gehien laguntzen duen adarra, lanpostu berrien %41,1ekin, hezkuntza da, merkataritza-jardueren %17,5, garraio, biltegiatze eta komunikazioen alorreko jardueren %12,2, eta finantza bitartekaritzaren %7,5aren gainetik. Zerbitzuetatik kanpo, oinarritzko industriak sortutako enplegu berriaren %11,3ko ekarpena egin du.

1.7 taula
GIZARTE-EKONOMIAREN ENPLEGUAREN EGITURAREN BILAKAERA JARDUERA-ADARREN ARABERA
2006 - 2008
(c.a. eta %v.)

	GIZARTE-EKONOMIAREN JARDUERA-ADARRAK 2006		GIZARTE-EKONOMIAREN JARDUERA-ADARRAK 2008	
	c.a.	% v.	c.a.	% v.
LEHEN SEKTOREA	133	0,2	220	0,4
ATERATZE-INDUSTRIAK	9	0,0	23	0,0
MANUFAKTURA-INDUSTRIA	32.342	50,9	29.899	47,8
♦ ELIKAGAI, EDARI ETA TABAKOAREN INDUSTRIA	902	1,4	661	1,1
♦ EHUNGINTZA ETA JANTZIGINTZA	200	0,3	100	0,2
♦ EGURRAREN ETA KORTXOAREN INDUSTRIA	1.392	2,2	1.229	2,0
♦ PAPERAREN INDUSTRIA; ARGITALPENAK, ARTE GRAFIKOAK ETA EUSKARRI GRABATUEN ALDAKIAK	859	1,4	812	1,3
♦ OINARRIZKO INDUSTRIA	2.997	4,7	3.267	5,2
♦ METALGINTZA ETA PRODUKTU METALIKOEN FABRIKAZIOA	8.016	12,6	7.759	12,4
♦ MAKINERIA ETA EKIPO MEKANIKOAK	6.233	9,8	6.075	9,7
♦ MATERIAL ETA EKIPO ELEKTRIKO, ELEKTRIKO ETA OPTIKOAREN INDUSTRIA	9.181	14,5	7.501	12,0
♦ HAINBAT MANUFAKTURA-INDUSTRIA MOTA	2.562	4,0	2.495	4,0
ERAIKUNTZA	2.229	3,5	2.120	3,4
MERKATARITZA; MOTORDUN IBILGAILUAK, MOTOZIKLETAK ETA ZIKLOMOTOREAK, ETA SALGAI PERTSONALAK ETA ETXEAN ERABILTZEKOAK				
KONPONTZEA	10.370	16,3	10.787	17,2
OSTALARITZA	2.046	3,2	2.068	3,3
GARRAIOA, BILTEGIRATZEA ETA KOMUNIKAZIOAK	1.046	1,6	1.337	2,1
FINANTZA-BITARTEKOTZA	2.106	3,3	2.284	3,6
ONIBAR-JARDUERAK ETA ALOKAIRU-JARDUERAK; ENPRESA-ZERBITZUAK	3.342	5,3	3.211	5,1
HEZKUNTZA	6.299	9,9	7.279	11,6
OSASUN- ETA ALBAITARITZA -JARDUERAK, GIZARTE -ZERBITZUAK	1.379	2,2	1.081	1,7
BESTELAKO GIZARTE -ZERBITZUAK ETA KOMUNITATEARI EMANDAKO ZERBITZUAK; ZERBITZU PERTSONALAK	2.179	3,4	2.307	3,7
GUZTIRA	63.480	100,0	62.615	100,0

1.2.- GIZARTE-EKONOMIAREN ENPLEGUAREN EZAUGARRI NAGUSIENAK

1.2.1.- Generoa eta adina

Industriak sektore honetan pisu handia du oraindik ere, eta, hori dela eta, euskal gizarte-ekonomiaren enpleguan gizonezkoen presentzia handiagoa da emakumezkoena baino. Hori horrela, enpleguen %59,2 gizonezkoek betetzen dituzte. Kopuru hori 2006koa baino zertxobait altuagoa da.

Deigarria gertatzen da, bestalde, gizarte-ekonomiaren enpleguaren feminizazio-prozesua gelditu izana. Ildo horretan, hautsi egin da 2004-2006 biurtekoan gizarte-ekonomian antzeman zitekeen emakumezkoen pisu erlatiboaren hazkundeak definitutako prozesua; emakumezkoen enpleguaren pisua 2004an %36,2 izatetik %41,1 izatera pasatu zen. Nahiz eta aldaketa kuantitatibo esanguratsurik ez adierazi, emakumezkoen enpleguari dagokion proportzioa epean %40,8ra murriztu da⁶.

2006 eta 2008 artean gizarte-ekonomian emakumezkoen pisuaren murrizketak zerikusia du industrian duen presentzia murriztu izanarekin (%24,8tik %22,6ra), baina baita zerbitzuetan duen presentzia murriztearekin ere (%63,6tik %61,4ra). Dena den, zerbitzuen sektorean emakumezkoen presentzia nagusi da, beste sektore batzuetan antzemandakoarekin kontrastatuz: lehen sektorean eta industria-sektorean %22-22,5 ingurukoa da eta eraikuntzan %11,5era jaisten da. Azken kasu horretan, gizonezkoen presentzia nagusi da ia.

1.8 taula

GIZARTE-EKONOMIAREN JARDUERAREN ARLOZ ARLOKO BANAKETA, GENEROAREN ARABERA 2008 (%v)

	GUZTIRA	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Gizonezkoak	59,2	78,0	77,4	88,5	38,6
Emakumezkoak	40,8	22,0	22,6	11,5	61,4

Zerbitzuen sektorean duen pisua txikiagoa izan arren, EAE osoari dagokionarekin alderatuta, 2008an emakumezkoen presentzia gizarte-ekonomian EAEko ekonomia osoan ikus daitekeenaren nahikoa gertu dago oraindik: %40,8 da %43,2aren aurrean.

⁶ Komeni da adieraztea ehunekoak ezin direla era zorrotzean alderatu aurreko edizioetako emaitzekin. Sexua, adina edo kontratu mota bezalako aldagaiei buruzko emaitzek ez dute magnitude ekonomikoek goratzeko jarraitzen duten prozedura bera jarraitzen, eta ez dugu erregistro izaerako daturik. Hortaz, joera horiek tentu handiz hartu beharrekoak dira.

Horretaz gain, gizarte-ekonomian industriaren presentzia handiagoa izateak, eta eremu sektorial horretan emakumezkoen presentzia eskasa izateak, azaldu egiten du antzemandako alde hori. Enpleguaren banaketa sexuaren eta sektorearen arabera aztertzen bada, emakumezkoen pisu erlatiboa gizarte-ekonomian oro har EAEko mailetatik baino gorago dagoela ikusten da, lehen sektorearen salbuespen bakarrarekin.

Era horretan, hirugarren sektorean gizarte-ekonomiak enplegua ematen dien emakumezkoen ehunekoa euskal ekonomia osoan ikus daitekeena baino handiagoa da: %61,4, %57aren aurrean; gauza bera gertatzen da industrian (%22,6, %20aren aurrean) eta eraikuntzan (%11,5, %9,8aren aurrean). EAEko okupazio osoan emakumezko gehiago egotearen arrazoia da, funtsean, hirugarren sektoreak pisu handiagoa duela gizarte-ekonomian baino.

Hala eta guztiz ere, adierazi beharra dago 2006 eta 2008 artean jaitsi egin dela gizarte-ekonomiaren emakumezkoen enpleguaren diferentzial positiboa. Zehazki esateko, 2006an gizarte-ekonomiako industriaren aldeko 6,7 puntukoa izatetik 2,6koa izatera pasatu da 2008an; zerbitzuen sektorean izandako jaitsiera ere oso nabarmena da (7,1etik 4,4 puntura 2006-2008 biurtekoan) eta zertxobait baxuagoa eraikuntzan (2,8tik 1,7ra).

Gizarte-ekonomiak hirugarren sektorerantz jotzeko prozesua mantentzen bada ere, eta horrek emakumezkoen presentziaren pisua handiagoa izan dadin lagundu, adierazitako joerak azaltzen du aurreko urteetan antzematen zen diferentziala murrizteko prozesua hautsi dela. Hori horrela, 2006ko 0,9ko alde negatiboaren aurrean (%41,4 gizarte-ekonomian eta %42,3 euskal ekonomia osoan), gizarte-ekonomiaren emakumezko-enpleguaren eta EAEko enpleguaren arteko diferentzia negatiboa 2008an 2,4 puntu hazi da.

1.9 taula

EAEko EKONOMIAKO JARDUERAREN ARLOZ ARLOKO BANAKETA, GENEROAREN ARABERA. 2008 (%v)

	GUZTIRA	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Gizonezkoak	56,8	76,2	79,9	90,2	43,0
Emakumezkoak	43,2	24,6	20,0	9,8	57,0

Iturria: INE, Biztanleria aktiboaren inkesta, jardueraren arabera 2006-2008

Forma juridikoaren arabeko genero azterketak erakusten du sozietate motaren arabera zertxobait desberdina dela egoera. Horiek horrela, emakumezkoen presentzia handiena kooperatibetan ematen da. Zentro mota horietan emakumezkoen enplegua enplegu osoaren %44,7ra iristen da, SLLen %29aren eta SALen %21,9aren gainetik nabarmen.

Neurri handi batean, antzemandako aldea emakumezkoek kreditu eta kontsumo kooperatibetan duten presentzia handiari zor zaio; SAL eta SLL sozietateetan, berriz, industria-sektorearen pisua handiagoa da. Dena dela, eragina du, aldi berean, emakumezko-enpleguaren pisuaren diferentzialaren bilakaera izaera juridikoaren arabera. Hori horrela, kooperatiben sektorean emakumezkoen pisua mantentzen bada ere, nolabaiteko beheranzko joera izan arren (%45,1eko emakumezko-enplegua 2006an, %44,7aren aurrean 2008an), enplegu mota horren pisua 2006-2008an ehuneko 3,2 puntutan jaitsi da SAL motako sozietateetan eta 2,6 SLLetan.

1.10 taula
IZAERA JURIDIKOAREN ARABERAKO BANAKETA, GENEROA KONTUAN HARTUTA
2008 (%v)

	GUZTIRA	Kooperatibak	SAL sozietateak	SLL sozietateak
Gizonezkoak	59,2	55,3	78,1	71,0
Emakumezkoak	40,8	44,7	21,9	29,0

Enpresetako zuzendaritza eta kudeaketa organoetan emakumezkoek duten parte hartzea kontuan hartzen badugu, egiazta daiteke maila horiek oraindik txikiagoak direla, enpresen barruko emakumezkoen enpleguaren pisua baino nabarmen txikiagoak, gainera.

Horiek horrela, zuzendaritza kontseilu eta administrazio kontseiluetako kide guztiei dagokienez, emakumezkoen batez bestekoa %26 da. 2006ko %25,1 baino zertxobait altuagoa bada ere, ehuneko hori emakumezkoek enpresen barruan okupatzen dituzten enpleguen %40,8tik oso urruti dago.

Organo horietan zerbitzuen jarduera-sektorea da emakumezkoen pisu erlatibo handiena duena, %34,9ko parte hartzearekin, eta hori emakumezkoek gizarte-ekonomiaren zerbitzuen sektore osoan okupatzen dituzten enpleguen %61,4tik oso urruti dago.

1.11 taula
JARDUERA-SEKTOREAREN ETA GENEROAREN ARABERAKO BANAKETA, GIZARTE-EKONOMIAREN
ZUZENDARITZA KONTSEILU ETA ADMINISTRAZIOKO KONTSEILUETAN.2008 (%v)

	GUZTIRA Kontseilua	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Gizonezkoak	74,0	77,7	83,7	91,7	65,1
Emakumezkoak	26,0	22,3	16,3	8,3	34,9

Enplegua adin tarteen arabera aztertuz gero, egiaztatu egiten da 30 eta 45 urte bitarteko biztanleriaren pisu erlatiboa handitzeko joera. Adin talde horren parte hartzea, 2004 eta 2006 artean 1,2 puntutan handitu zena, 4,1 puntu handitu da 2006-2008 biurtekoan. 30 eta 45 urte bitarteko pertsonen euskal gizarte-ekonomiaren enpleguaren zatirik nagusia osatzen dute, %46,8, 2008ko kopuru osoarekiko.

Aitzitik, gazte eta zaharrenen adin segmentuek garrantzia erlatiboa galtzen jarraitzen dute, 2004 eta 2006 artean gertatzen zen bezalaxe. 30 urtetik beherako pertsonen enplegu osoaren %21,6 baino ez dira, 54 urtetik gorako pertsonen dagokien %31,7aren azpitik.

Jarduera-sektoreen arabera, enpleguaren banaketa adin tarte guztietan antzekoa da, baina kasu guztietan batez ere 30 eta 45 urte bitartekoak dira nagusi. Hala eta guztiz ere, azpimarratzekoa da zerbitzuen sektorean 30 urtetik beherako presentzia erlatiboa handiagoa dela (%28,9), eta gora egin duela 45 urtetik gorakoek industrian (%38) eta eraikuntzaren sektorean (%34,1) duten parte hartzea.

Hala eta guztiz ere, adin eta jardueraren arabera analisiaren testuinguruan aipatu beharra dago 2006 eta 2008 artean gizarte-ekonomiaren alorrean 30 urtetik beherako enpleguaren pisua nabarmen jaitsi dela industrian. 2006an kolektibo horrek enpleguaren %21,9 biltzen zuen, eta 2008an 8,5 puntu jaitsi da, %13,4an kokatuta. Gazteen parte hartzea eraikuntzan ere jaitsi egin da, jaitsiera apalagoa izan arren (2006an %19,9ko pisua izatetik 2008an %18,1era pasatu da). 30 eta 45 urte bitarteko pertsonen dagokien pisua ere neurri berean handitu da bi jardueraren sektore horietan.

1.12 taula
ENPLEGUAREN ARLOZ ARLOKO BANAKETA, ADINAREN ARABERA
(%h) 2008

	GUZTIRA	30etik behera	30-45 bitarte	45etik gora
Lehen sektorea	100	11,9	50,0	38,1
Industria	100	13,4	48,6	38,0
Eraikuntza	100	18,1	47,8	34,1
Zerbitzuak	100	28,9	45,1	26,0
GUZTIRA	100	21,6	46,8	31,7

Forma juridikoa kontuan hartuz gero, antzematen da 45 urtetik gorako pertsonen pisu espezifikoak nagusi dela zentro mota guztietan, are gehiago SLL sozietateetan ere nagusi da, %50,6arekin (%46,7 kooperatibetan eta %44,7 SALetan). Dena dela, SAL sozietateen kasuan, konparatiboki altua da 45 urtetik gorako pertsonen pisu erlatiboa, enpleguaren %37,8ra iristen baitira, kooperatibetan duten %30,7 eta SLL sozietateetan duten %32,8aren aurrean. Pertsona gazteen enpleguaren pisu erlatiboak kooperatiben sektorean du bere maila gorengoa, beste izaera juridiko batzuetan ikus daitezkeen %16,5etik %17,5era bitarteko kopuruetatik gora nabarmen.

Hala eta guztiz ere, deigarri egiten dira azken urteotan parte hartze erlatiboan izan diren aldaketa batzuk. Alde batetik, azpimarratu behar da 30 urtetik beherako enpleguaren pisuaren jaitsiera nozitu dela kooperatiben sektorean, %26,9tik %22,5era. Beste alde batetik, oso deigarri suertatzen da SAL motako sozietateetan eman den jaitsiera, %45,6tik %37,8ra, 45 urtetik gorako biztanle enplegatuen artean. Kooperatibetan zein SALetan handitu egin da oso nabarmen 30 eta 45 urte bitarteko pertsona enplegatuen protagonismo erlatiboa.

1.13 taula
ENPLEGUAREN BANAKETA ADINAREN ETA FORMA JURIDIKOAREN ARABERA (% h). 2008

	GUZTIRA	30etik behera	30 - 45	45etik gora
S.KOOP	100	22,5	46,7	30,7
SAL sozietateak	100	17,5	44,7	37,8
SLL sozietateak	100	16,5	50,6	32,8
GUZTIRA	100	21,6	46,8	31,7

Aldagai demografikoak aztertzeko testuinguru horretan, aipatu beharreko beste datu bat da atzerriko immigraziotik datozen langileek gizarte-ekonomian okupatzen duten enpleguaren murrizketa. 2006an erregistratutako %5etik, kolektibo hori 2008ko enpleguaren %1 izatera pasatu da. Horretaz gain, aztergai dugun biurtekoan minusbalotasuna duten pertsona enplegatuen proportzioa ere jaitsi egin da (2006ko %2tik 2008an erregistratutako %1,2ra)⁷.

Kolektibo mota horien presentzia zertxobait handiagoa da enpresa txikietan, eta langile atzerritarren kasu espezifikoan, eraikuntzaren sektorean.

1.2.2.- Kontratu bidezko harreman motak

Kontratu bidezko harreman motak kontuan hartuta, 2008. urtean sozietateen kolektiboak gizarte-ekonomiaren enplegu osoaren %66,8 biltzen zuen. Nahiz eta 2006ko %66arekin alderatuta hazkunde nabarmenik ez eman, erdietsitako maila bai da 2004an erregistratutakoa baino altuagoa, urte horretan %59,2 izan baitzen.

Gainerako enpleguaren %33,2 soldatapeko langileei dagokie. Soldatapeko langileen %15,8 finkoak dira eta %17,3 behin-behinekoak. Antzematen da behin-behineko langileen kolektiboaren pisu erlatiboak behera egin duela, 2004an %24,3 izatetik, 2006an %21,6 izatera pasatu baitzen, eta 2008an %17,3ra, azken biurtekoan jaitsiera azkarragoa emanez.

⁷ Aurretik kontuan hartu diren beste aldagai batzuen kasuan bezalaxe, aldagai honetan ere ez dago erregistro daturik.

Dena den, 2006-2008 biurtekoaren jaitsira handia behin-behineko soldatapeko langileen pisu erlatiboari dagokionez ez da izan sozietateen kolektiboaren mesedetan —2004 eta 2006 artean gertatzen zen bezalaxe—, eta lan-kontratu mugagabea duen biztanleriaren pisua handitu egiten da. 2004 eta 2006 artean soldatapeko langile finkoen kolektiboaren pisu erlatiboa ehuneko 4 puntu jaitsi ondoren, aipatutako pisua %12,4tik %15,8ra pasatu da 2006 eta 2008 artean.

Neurri handi batean beren espezifikotasunari eta araudi erregulatzaileri erantzunez, kooperatibetan du pisu espezifikoa handiena bazkideen presentziak, %68,9rekin, SAL sozietateen %59,6aren eta SLLen %56,6aren gainetik. Aitzitik, behin-behineko lanpostu gehienak SLL motako sozietateetan aurki daitezke, soldatapeko langileen %21,1 behin-behinekoa izanik, kooperatiben %18,1 eta SAL sozietateen %9,7aren gainetik.

2008an azpimarratzekoa da SAL sozietateetan kontratu finkoa duten langileen pisu erlatiboa, %30,7, SLL sozietateen %22,4a eta kooperatiben %13a nabarmen gaitzen duena.

1.14 taula
ENPLEGUAREN BANAKETA, KONTRATU BIDEZKO HARREMANETAN ETA ESTABLEZIMENDUAREN FORMA
JURIDIKOAREN ARABERA. 2008 (%h)

	GUZTIRA	Kideak	Soldatapekoak	Finkoak	Behin-behinekoak
S.KOOP.	100	68,9	31,1	13,0	18,1
SAL sozietateak	100	59,6	40,4	30,7	9,7
SLL sozietateak	100	56,6	43,4	22,4	21,1
GUZTIRA	100	66,8	33,2	15,8	17,3

Aldez aurretik aurkeztutako datuek hainbat aldaketa esanguratsu adierazten dituzte 2006an antzemandako egoerarekin alderatuta, batez ere behin-behineko enpleguaren pisuari dagokionez.

Behin-behineko soldatapeko biztanleriaren pisu erlatiboaren jaitsiera izaera juridiko mota guztietan orokorra bada ere, batez ere SAL sozietateetan da deigarria. Kasu horretan, behin-behineko langileen pisua 2006an %25,8 izatetik —urte hartan altuena— 2008an %9,7 izatera pasatu da, kasu honetan maila baxuena izaera juridikoaren arabera.

Horretaz gain, kooperatibetan eta SLL sozietateetan behin-behineko biztanleriaren garrantzi erlatiboa kontratu finkoa duten langileen pisuaren hazkundearekin erlazionatzen bada, aldi berean sozietateetako langileen kolektiboak enpleguan duen proportzioa murriztuta⁸, SAL sozietateetan joerak pisu erlatiboaren hazkundera adierazten du, bai sozietateetako kolektiboan bai kontratu finkoa duten soldatapeko langileen kopuruan.


SAL sozietateetako langileen kolektiboaren kasuan, bilakaera horrek suposatzen du 2004 arte sozietateetako langileen pisu erlatiboan etengabe erregistratzen zen murrizketarako joera haustea, era horretan 2006an sozietateetako langileen pisu erlatiboa errekuaratzeko antzematen zen prozesua finkatuta (sozietateetako kolektiboaren pisua SAL motako sozietateetan 2004an %46,2tik, 2004an %50,3 eta 2008an %59,6 izatera pasatu da). Dena dela, bilakaera horrek ez ditu soldatapeko langileak kide izatera pasatzea ahalbidetzen dituzten erabakiak soilik adierazten. Horrekin batera, neurri handi batean, lan-merkatuaren beraren bilakaeraren ondorio ere bada; izan ere, eskaera zerrenda eta fakturazioa murrizten diren uneetan, behin-behineko enpleguaren jaitsiera erlatiboa handiagoa izaten da. Hain zuzen ere, egungo egoerak ez du funtsezko datu bat aldatzen: sozietateetako kolektiboaren pisua, izaera juridikoaren arabera, sozietate mota guztietan baxuagoa da 2008an Estatistikaren hasierako urteetan (1996 kooperatiben eta SAL sozietateen kasuan, 1998 SLL sozietateen kasuan) antzemandakoa baino.

Nolanahi ere, behin-behineko enpleguaren pisu erlatiboaren azkenaldiko jaitsiera handiak badu beste ondorio garrantzitsu bat. 2006an antzemandakoa ez bezala, urte horretan izaera juridiko mota guztietan behin-behineko langileen pisua handiagoa baitzen —soldatapeko kolektiboaren barruan—, 2008an kontratu finkoa duten langileen pisua handiagoa da SLL sozietateetan eta, batez ere oso deigarria SAL sozietateetan. Kooperatibetan behin-behineko kontratua duten langileen parte hartzea nabarmen handiagoa izan arren, langile finkoen pisuarekiko diferentziala 10,7 puntutik 5,1era murriztu da.

⁸ Baliteke azkenaldiko bilakaerak adieraztea, kooperatiben kasuan, berrir 2004 arte antzemandako joerari heldu zaiola, hau da, sozietateetako kolektiboaren pisu erlatiboa etengabe jaisten jarraitzea. Hala eta guztiz ere, 2006 eta 2008 artean erregistratutako %69,3tik %68,9rako jaitsiera txikiegia da, are gehiago, egungo kopuruak nabarmen handiagoak dira 2000-2004 epean erregistratutakoak baino, ondorio hori zalantzarik izan gabe hartzeko.

SLL sozietateen kasuan, ordea, 2008ko datuek bai egiaztatzen dute 2004tik aurrera hasi zen sozietateetako kolektiboaren beheranzko joera hori, eta deigarria da 2004 arte epe luzera kide kopuruen ehunekoa mantentzea lortzen zuen izaera juridiko bakarra izatea.

1.6 irudia
SOZietateen kolektiboaren pisu erlatiboa (Portzentajea enplegu osoarekiko)
1996-2008



Jarduera-sektorea kontuan hartuz gero, egiaztatzen da bazkideen kolektiboaren pisua handiagoa dela industria-enpresetan (%72,9), eta eraikuntza ere maila horretara hurbildu dela (%68,6). Proportzioa %60 ingurukoa da lehen sektorean eta zerbitzuetan. Kasu guztietan, baina batez ere eraikuntzan, kopuru horiek hazkundera adierazten dute 2006an antzemandako egoerarekiko.

Adierazitako hazkundera neurri handi batean uztarturik dago industrian, eraikuntzan eta zerbitzuen sektorean antzeman den behin-behineko enpleguaren garrantziaren murrizketarekin, galerak 2006 eta 2008 artean 3,5 eta 7,5 bitartekoak izanik. Konparazioan zerbitzuen sektoreak izandako jaitsiera txikiagoa da, eta ondorioz, 2008an sektore hori da behin-behineko kontratazioan presentzia erlatibo handiena duena (%20,1, gainerako sektoreetan kopuruan %14,5 eta %17 bitarteko kopuruetan kokatzen diren bitartean), eraikuntzaren gainetik. Azken sektore hori da 2006an behin-behineko kontratazioarako joera handiena erakusten zuena.

Behin-behineko kontratazioaren jaitsierak ere lagundu egiten du soldatapeko enplegu finkoaren pisu erlatiboa industrian eta zerbitzuetan handiagoa izan dadin. Nekazaritzan izan ezik, behin-behineko enpleguaren pisua enplegu finkoarena baino handiagoa da oraindik ere 2008ko gainerako jarduera-sektore guztietako soldatapeko langileen artean.

1.15 taula
ENPLEGUAREN BANAKETA KONTRATU BIDEZKO HARREMANETAN ETA ESTABLEZIMENDUAREN JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA. 2008 (%h)

	GUZTIRA	Kideak	Soldatapekoak	Finkoak	Behin-behinekoak
Lehen sektorea	100	60,6	39,4	22,5	16,9
Industria	100	72,9	27,1	12,5	14,6
Eraikuntza	100	68,6	31,4	15,1	16,3
Zerbitzuak	100	60,6	39,4	19,3	20,1
GUZTIRA	100	66,8	33,2	15,8	17,3

1.3.- GIZARTE-EKONOMIAK SORTUTAKO BALIO ERANTSI GORDINA (BEG) BALIOA ETA PRODUKTIBITATE ANTZEMANGARRIA

1.3.1.- BEGaren dinamika 2006-2008 biurtekoan

2008an gizarte-ekonomiaren produkzio-egiturak sortutako BEGa **2.928 milioi eurokoa** izan zen. Horrek termino nominaletan %0,54ko atzerapena suposatzen du, 2006an sortutakoari dagokionez, eta haustura argia markatzen du 2004 eta 2006 artean erregistratutako %19,2ko hazkunde nominalari dagokionez. Azkenaldiko datuak berriro ere heltzen dio 2004an 2000ari dagokionez erregistratutako mantsotze-prozesuari, nahiz eta jaitsiera nominalak definitutako oraingo testuinguruan nabarmenagoa izan.

Adierazitako joerak erakusten du gizarte-ekonomiaren produkzioaren konparaziozko bilakaera ez dela aurrekoetan bezain onuragarria. Ildo horretan, nahiz eta euskal ekonomiak 2008an BPGdari dagokionez merkatuko prezioetan hazkunde txikiagoa izan (%2, aurreko urteetan erregistratutako hazkundearen erdia: 2006an %4,4), emaitza erreala globalki oraindik positiboa izan da.

Sektoreen araberrako bilakaerak adierazten du hazkunde-erritmoen jaitsiera handia izan dela, bai industrian bai zerbitzuetan.

Baina, bi sektoreen arteko aldeak funtsezkoak dira. Zerbitzuen kasuan, hazkunde-tasa nominalak jasotzen du, zalantzarik gabe, jaitsiera nabarmena eman dela, 2004-2006 biurtekoaren %24tik 2006 eta 2008 artean %10,3 nominalera pasatuta. Dena dela, hazkunde-erritmoa funtsezkoa da oraindik ere, %10etik gorako kopuruekin.

Industriaren alorrean, berriz, aurkakoa gertatzen da. 2006 arte bi urtetik behin erregistratzen ziren hazkunde-tasak handiak ziren oso, baina, kasu horretan, 2004 eta 2006 arteko %16,5eko hazkunde-tasa nominala izatetik %7,2ko jaitsierara pasatu da 2006 eta 2008 artean. Industriaren produkzio krisiak markatzen du, beraz, gizarte-ekonomiaren azkenaldiko bilakaera.

Ez da, ordea, albo batera utzi behar 2006-2008 biurtekoan industrian gertatutakoaren eta 2002 eta 2004 artean gertatutakoaren arteko konparazioa. Hain zuzen ere, 2004-2006 epean izandako suspertze nabarmenaren aurretik, gizarte-ekonomiaren alorreko industria-enpresa handien kopuru esanguratsu batek galerak zituela antzeman zitekeen.

Gizarte-ekonomian 2006 eta 2008 artean krisiak eragindako beste sektore bat eraikuntzarena da. 2004 eta 2006 artean BEG balioa %20,9 handitu ondoren, %6,3ko jaitsiera erregistratu da, hortaz, 2006 eta 2008 artean industriak jasandako atzerapenaren oso gertuko kopurua.

1.16 taula
BEGaren ARLOZ ARLOKO HAZKUNDEA 2006-2008 epean (Ohiko prezioak)

Sektorea	Hazkunde-tasa
Industria	%-7,2
Eraikuntza	%-6,3
Zerbitzuak	%+10,3
GUZTIRA*	%-0,5

* Lehen sektorea ere barne dago

Gizarte-ekonomiaren BEGaren atzerapen 2006 eta 2008 artean azaltzeko, batez ere ondorengo inguruabar edo gertakari zehatzak hartu behar dira kontuan:

- Industriaren alorrean, deigarria egiten da emaitzen kopuruetan izandako atzerapena nabaria dela.

Industriaren emaitzak 2006-2008 biurtekoan erdira baino gehiago murriztu dira era agregatuan. Hori horrela, 2006an 224.880.286 €ko etekinak izatetik 2008. urtean 127.272.560 €ko etekinak izatera pasatu da.

Emaitzetan izandako murrizketa hori azaltzen duen faktorea industria-sektorearen fakturazioan izandako murrizketa da, %3tik gertukoa 2006. urtearekin alderatuta. Baina, jaitsiera horrekin batera praktikan gastuaren kopuru globalak egonkortu egin dira, neurri handi batean sektoreak egituraren alorrean jasaten dituen kargak direla eta.

- Zerbitzuen sektorean ere murrizketa sumatu da emaitzen mailari dagokionez.

Zerbitzuen sektoreak %7ko murrizketa jasan du bere emaitzei dagokionez. Kopuru hori oso bestelakoa da 2004 eta 2006 artean erregistratutako %24ko hazkunde positibo handiarekin alderatuz gero.

Sektore honetan, hirugarren sektoreko finantza-enpresa handien gastuen partidaren hazkundeak nabarmen baldintzatu du emaitzen jaitsiera hori. Ildo horretan, erabakigarriak dira higiezinaren sektorearen krisia arintzeko egindako ekarpenak.

Nolanahi ere, zerbitzuen sektoreko BEGaren hazkunde absolutuaren eta industria- eta eraikuntza-sektoreetan antzemandako jaitsieraren arteko aldearen ondorioa da gizarte-ekonomiaren hirugarren sektoreko BEGaren pisu erlatiboaren hazkunde-prozesuaren finkatzea. Joera hori gainera areagotu egin da 1994. urtean estatistika egiten denetik hirugarren sektorera jotzeko ematen ari den prozesu orokorrarengatik. Hori horrela, metatutako BEG balioan zerbitzuen sektoreak zuen pisua 2004 eta 2006 artean %36tik %37,4ra pasatu zen, eta %41,5eraino handitu zen 2008an. Zerbitzuen sektoreak establezimendu eta enpleguen pisu gero eta handiagoarekin lotu beharko dira industria eta eraikuntzaren alorretako produkzioan arestian izan den jaitsieraren ondorioak.

1.17 taula

GIZARTE-EKONOMIAK SORTUTAKO BALIO ERANTSI GORDINAREN (BEG) ARLOZ ARLOKO HAZKUNDEA. 2006 ETA 2008 URTEETAKO KONPARAZIOZKO ERREFERENTZIA (c.a. euro kopurua, milakotan, % v.) (Ohiko prezioak)

Sektoreak	2006		2008	
	c.a.	%v.	c.a.	%v.
Lehen sektorea	3.880	0,1	5.885	0,2
Industria	1.757.119	59,7	1.630.259	55,7
Eraikuntza	81.066	2,8	75.954	2,6
Zerbitzuak	1.101.580	37,4	1.215.505	41,5
GUZTIRA	2.943.644	100	2.927.603	100

Hala eta guztiz ere, azkenaldiko bilakaerak ez du aldatzen gizarte-ekonomiaren industriaren alorreko enpresek betetzen duten zeregin ekonomikoaren garrantzia handiagoa izatea. Industriak, oraindik ere, EAEko gizarte-ekonomiaren produkzio-egiturak sortutako BEGaren erdia baino gehiago biltzen du (2008an %55,7, jaitsiera nabarmena jasan da 2004an izandako %61 eta 2006an izandakoa %59,7ari dagokienez).

Industria-sektoreak sortutako BEGaren terminoetan duen garrantzi handia agerian geratzen da euskal ekonomiaren sektore bakoitzak Barne Produktu Gordinean duen parte hartzea aztertzerakoan. Hori horrela, gizarte-ekonomiaren parte hartzea EAEko Barne Produktu Gordinean, sektoreen terminoetan neurtuta, askoz altuagoa da industriaren alorrean. Jasaten ari den krisia gorabehera, gizarte-ekonomiaren industria-enpresen mailak gainerako sektorek ematen dituzten mailen hiru halako dira gutxienez. Ondorioz, 2008. urtean EAEko industrian sortutako 100 euroetatik 9,3 gizarte-ekonomiari dagozkio, zerbitzuen 3,2 euroen eta eraikuntzaren 1,3 euroen gaineratik.

Beste alde batetik, kontuan hartu behar da azkenaldian industriaren BEGak izan duen jaitsiera garrantzitsua izan dela oso gizarte-ekonomiak euskal ekonomia osoan duen zeregina kontsideratzerakoan. Ildo horretan, egiaztatu da 2006 eta 2008 artean jaitsiera handia eman dela gizarte-ekonomiaren industriak EAEko BPGdean duen pisu espezifikoa, 2006ko %10,7tik 2008ko %9,3ra jaitsita. Jaitsiera horrek eraikuntzaren parte hartzeari ere eragin dio, eta 2006-2008 biurtekoan %1,6tik %1,3ra pasatu da. Zerbitzuek soilik mantendu dute beren parte hartzea, eta oso gutxi jaitsi dira, 2006ko %3,3tik 2008ko %3,2ra, hain zuzen ere.

Hortaz, industrian antzemandako jaitsieraren eragina erabakigarria izan da. Gizarte-ekonomiaren BEGaren parte hartzea EAEko BPGdean ehuneko bat jaitsi da 2006 eta 2008 artean, 2006ko BPGdaren %5,3tik 2008ko %4,3ra pasatuta. Hala eta guztiz ere, zerbitzuen sektorean hondamen erlatiboa eman dela azpimarratu behar da. 2004 eta 2006 antzemandakoaren aurka, orduan gizarte-ekonomiaren BPGden parte hartze erlatiboa handitu egin baitzen, 2006 eta 2008 artean sektorea eritmo apalagoz hazi da gizarte-ekonomian, eta BPGdean duen parte hartzea %3,2 jaitsi da.

1.18 taula
GIZARTE-EKONOMIAREN PARTE HARTZEA ARLOZ ARLOKO BARNE PRODUKTU GORDINEAN. 2006-2008ko
KONPARAZIOZKO ERREFERENTZIA

	2006	2008
Industria	10,7	9,3
Eraikuntza	1,6	1,3
Zerbitzuak	3,3	3,2
GUZTIRA	5,3	4,3

Konparaziorako iturria: Kontu Ekonomikoak, 2008 Eustat

Testuinguru horretan, aipatu beharra dago industria-sektoreak EAEko industria-sektorean pisu erlatiboa galdu izana ez dagoela loturik soilik gizarte-ekonomiaren industriaren BEGaren jaitsierarekin. Jaitsiera horren eragina areagotu egin da euskal ekonomian 2006 eta 2008 artean EAEko industria-sektorearen BPGdaren hazkundera positiboa izan delako oraindik ere. Hori dela eta, gizarte-ekonomiaren industria-sektorearen garrantzi erlatiboaren galera gizarte-ekonomiaren industriaren beraren dinamikarekin ez ezik gainerako euskal industriaren bilakaera hobearekin ere dago loturik.

Ondorengo taulan EAEko ekonomiaren bilakaera globalaren berri ematen da. 2006-2008 biurtekoaren barruan, EAEko BEG industrialaren hazkunde-eritmoaren moteltzea antzeman daiteke 2007-2008 epean, baina, betiere, urteen arteko aldaketa-tasak oraindik balore positiboetan mantendu dira.

1.19 taula
EAEko EKONOMIA: BARNE PRODUKTU GORDINA ETA HORREN OSAGIAK URTEAREN ARABERA EAEn.
ESKAINZA ETA ESKAERA. OHIKO PREZIOAK. URTEEN ARTEKO ALDAKETA-TASAK (%) 2006-2008(a)

	2006/2007	2007/2008
Industria	5,5	2,5
Eraikuntza	17,7	2,8
Zerbitzuak	8,0	6,5
BEG ohiko prezioei	8,1	4,9

Konparaziorako iturria: Kontu Ekonomikoak, 2008 Eustat

1.3.2.- Produktibitate antzemangarriaren bilakaera 2006-2008 biurtekoan

Termino nominaletan, gizarte-ekonomiaren establezimenduen batez besteko produktibitatea 2008. urtean enplegu bakoitzeko 46.756 eurokoa izan da, 2006. urtean antzemandako kopuruaren antzekoa (enpleguko 46.667 euro). Batez besteko produktibitatean izan den egonkortasunaren zergatia, beraz, BEGaren jaitsiera da, 2006-2008 biurtekoaren enpleguan antzematen den murrizketaren nahikoa antzekoa.

Dena dela, inflazioari begiratuz gero, datuek gizarte-ekonomiaren urte horietako produktibitatean inplikatzeko duten joera beheranzkoa da benetan. Horretaz gain, kontuan hartu behar da 2004-2006 epearekiko izan den haustura handia. Epe horretan %16ko hazkundera eman zen, kopuru nominaletan, produktibitatearen maila orokorrean.

Gai horretarako hurbilpena termino sektorialetan eginez gero, oro har hartzen den irudia da azken bi urteotan nolabaiteko egonkortasuna eman dela. Hori horrela, sektorez sektoreko produktibitate antzemangarriak desberdintasun gutxi erakutsi du 2006. urtearekiko, salbuespen bakarra zerbitzuen sektorea izanik.

- Industriaren kasuan, bai enplegua bai BEGa antzeko erritmoan jaitsi dira, %7 inguru bi kasuetan; hori dela eta, produktibitate antzemangarria enplegu bakoitzeko 54.000 eurokoa baino zertxobait handiagoa da.
- Ildo beretik, eraikuntzaren sektoreko produktibitatea 2008an ia ez da aldatu 2006ko kopuruekin alderatuz gero. Enpleguaren eta BEGaren kopurua antzeko erritmoan jaitsi da, %5-6 gutxi gorabehera.
- Hirugarren sektoreak bakarrik hobetu du zertxobait produktibitate antzemangarria. Horrek zerikusia du enpleguaren hazkundera moderatuagoa izatearekin, BEGaren hazkunderarekin alderatuta. Hori horrela, 2006 eta 2008 artean zerbitzuen sektorean enplegua %5,5 hazi den bitartean, BEGa termino nominaletan %10,3 hazi da.

Adierazitako datuen harira, antzeman da gizarte-ekonomiaren lehiakortasun globalaren maila mantendu bada hirugarren sektorearen bultzada moderatuari esker izan dela, batez ere zerbitzuen alorreko kooperatiba handien bitartez. Eszenatoki ekonomiko konplexu horretan, kooperatiba horiek BEG eta enplegua sortzen jarraitzeko gauza izan dira.

Hala eta guztiz ere, nahiz eta zerbitzuen alorrean nolabaiteko hobekuntza mantendu, sektore horretan ere produktibitatearen hazkundera oso murriztua egon da 2006 eta 2008 artean. Horretaz gain, oso urruti geratu da 2004 eta 2006 artean antzemandako %18ko nominaletik. Biurteko horretan batez ere finantza-sektorearen barruko kooperatiba handien errentagarritasuna eta marjinen hazkundera izan zen handia (antzemandako aurrezkiaren zein kreditu eskaeren hazkundera), baita banaketari lotutakoena ere. 2006 eta 2008 artean fenomeno horren goranzko joera ez da kontsolidatu.

Zerbitzuen sektoretik kanpoko produktibitatearen egungo kopuruen egonkortasunak ere kontrastatu egiten du 2004-2006 biurtekoaren industriaren %12,5eko eta eraikuntzaren %24ko hazkunderarekin.

1.20 taula

GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO SEKTOREEN PRODUKTIBITATE ANTZEMANGARRIAREN BILAKAERA
2006-2008 epean. (BEG euro kopurua, milakotan/Enplegatua. Ohiko prezioak).

	2006	2008
Industria	54	54
Eraikuntza	36	36
Zerbitzuak	39	40
GUZTIRA	47	47

1.4.- GIZARTE-EKONOMIAREN EMAITZEN KONTUAK

Termino agregatuetan, 2008. ekitaldian gizarte-ekonomia osatzen zuen enpresa multzoak sortutako mozkinak 356,1 milioi eurokoa izan zen. Bere aldetik, Cash-Flow edo kaxa fluxuek sortutako kopurua 1.045,8 milioi euro izan zen.


Euskal ekonomiaren aurrerapena nabarmen jaitsi den testuinguru horretan, azken 15 urteotako hazkunde-tasarik txikiena izanda, euskal gizarte-ekonomiaren enpresa-establezimenduek erdietsitako emaitzen ezaugarri nagusia izan da 2006-2008 biurtekoan murrizketa garrantzitsua jaso izana. Jaitsiera %32,5ekoa da, termino nominaletan, eta 2004-2006 biurtekoan izandako hazkundearekin alderatuz gero, alde handia dagoela esan behar da, orduan emaitza nominalak %43,2 hazi baitziren. Horren ondorioz, gizarte-ekonomiaren emaitzen kopurua 2008an (356,1 milioi euro termino nominaletan) 2004ko 368,1 milioi euroko kopurua baino zertxobait baxuagoa da. Hala eta guztiz ere, bi kasuetan 2006an erdietsitako 527,2 milioietatik askoz beherago dago.

BEGari buruzko analisisian aurreratu den bezala, emaitzen kopuruan izandako atzerapenaren zergatia ulertzeko garaian kontuan hartu behar da gizarte-ekonomiaren industria-enpresen galera eta mozkinen kontuetako emaitzetan izandako jaitsiera nabarmena (%53,6). Neurri txikiago batean, joera hori zerbitzuen sektoreak izandako bilakaera negatiboari ere lotzen zaio. Sektore horretako emaitzen kontua, orain arte bi digitutako erritmo moderatuan hazten bazen ere, orain %7,3 jaitsi da.

Hala eta guztiz ere, garrantzitsua da azpimarratzea 2008an sortutako Cash-Flowak 2006an lortutako mailak mantentzeaz gain, %6,3ko hobekuntza izan duela azken urte horrekiko. Kaxa fluxuetan izandako hobekuntzaren arrazoia da hirugarren sektorean amortizazio eta hornidura handiagoak egin direla (%+187). Egoera hori nagusiki finantza-sektorean eman da, eta eragin du gizarte-ekonomia osoaren multzoan hornidurak %51 handitzea. Hori dela eta, era horretan konpentsatua gelditzen da 2008an eskuratutako emaitzetan izan den jaitsiera.

1.7 irudia

GIZARTE-EKONOMIAREN EMAITZA EKONOMIKOEN (MOZKINAK) ETA CASH FLOWaren BILAKAERA. 2006-2008 (c.a. euro kopurua, milakotan)



Industriaren emaitzen bilakaera negatiboak azaltzen du 2008an, estatistika egiten denetik lehenengo aldiz, zerbitzuen sektorea izatea euskal gizarte-ekonomiaren etekin guztietan parte hartze handiena erakusten duen sektorea (%63, 2006. urtean izandako %45,9aren aurrean). Industriak izan duen parte hartzea, berriz, apalagoa izan da, %35,7 2006. urtean izandako %52,1aren aurrean.

Bere aldetik, zerbitzuen sektoreak %55,8ko ekarpena egin dio gizarte-ekonomiaren Cash-Flow osoari (%37,3, 2006. urtean) eta industriak baino emaitza hobeak izan dituela erakutsi du, hornidura eta amortizazioen alorrean izandako hazkunde handiaren ondorioz. Bigarren sektoreak 2008an ozta-ozta lortu du Cash-Flow osoaren %43,1, ehuneko 18 puntu beherago 2006an erregistratutako magnitudearen azpitik (%61).

1.21 taula

MOZKINEN ETA CASH FLOW aren BANAKETA, JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA 2008 (%v)

	Emaitzak	Cash -Flow
Lehen sektorea	0,1	0,2
Industria	35,7	43,1
Eraikuntza	1,2	0,9
Zerbitzuak	63,0	55,8
GUZTIRA	100	100

Industriaren gaineko datuak BEGaren gaineko adierazle orokorrekin alderatu behar dira. Hori horrela, industria-sektoreak euskal gizarte-ekonomiaren BEGari ekarpen nabaria egiten jarraitu badu ere, BEG osoaren gainean %56 inguru, gehiago murriztu da 2008an sortutako emaitzei eta Cash Flowari egindako ekarpena.

1.22 taula

GIZARTE-EKONOMIAREN SARREREN ETA GASTUEN KONTUAK 2006-2008 (%v. eta bilakaera)

	c.a.	%v.	2006-2008ko bilakaera
DIRU SARRERAK			
70 Salmenta garbiak	9.756.734.068	88,7	2,8
Obren eta produktu bukatuen eta fabrikazio prozesuan dauden			
71 produktuen izakinen aldaketa	44.336.553	0,4	0,0
73 Enpresarentzat egindako lanak	46.188.415	0,4	0,2
74 Ustiapenari ohiko dirulaguntzak	282.138.971	2,6	-0,7
75 Bestelako diru sarrera osagarriak	396.917.778	3,6	-0,7
76 Finantza-sarrerak	223.459.942	2,0	-0,9
77 Ibilgetutik eratorritako etekinak eta ez ohiko sarrerak	207.434.623	1,9	-0,7
79 Gehiegizko hornidura keta aplikazioak	44.500.452	0,4	-0,1
SARRERAK GUZTIRA	11.001.710.803	100	0
GASTUAK	GASTUAK		
60 Erosketa garbiak	6.110.138.535	57,4	1,8
61 Salgaien eta lehen gaien izakinen aldaketa	-16.966.666	-0,2	-0,1
62 Kanpoko zerbitzuak	1.223.401.679	11,5	0,4
63 Jarduerari lotutako zergak	-18.767.404	-0,2	0,7
64 Langileen gastuak	2.059.310.104	19,3	0,7
65 Bestelako kudeaketa-gastuak	191.991.713	1,8	-0,6
66 Finantza-gastuak	373.186.792	3,5	-1,5
67 Ibilgetutik eratorritako galerak eta ez ohiko gastuak	33.623.268	0,3	0,5
68 Ekitaldiko amortizazioak	322.878.806	3,0	0,3
69 Hornidura zuzkidurak	366.835.492	3,4	-2,1
GASTUAK GUZTIRA	10.645.632.319	100	0

Bazkideek kooperatiben barruan egiten dituzten ekarpenen interes kontuei espezifikoki dagokienez, finantza-gastuen barruan sartua (66 kontua), kontu horrek 2008n gizarte-ekonomiaren alorreko establezimenduen multzoan lortu duen kopurua 110 milioi eurokoa da, finantza-gastuen %24,8, hain zuzen ere. 2006ari dagokionez, kopuru horiek adierazten dute hazkunde absolutu eta erlatiboa eman dela (47,6 milioi euro eta %24,8ko ekarpen erlatiboa urte hartan)

Sektoreen arabera, zerbitzuen sektorean ekarpenen interesei dagokien pisu erlatiboa finantza-gastu guztien %33,3 da. Proportzio hori %25,7 da industrian eta %15,1 eraikuntzan.

1.23 taula

BAZKIDEEK KOOPERATIBETAN EGINDAKO EKARPENEN INTERESAK ETA FINANTZA-GASTUEN GAINEKO PISU ERLATIBOA (66 KONTUA) (c.a. eurotan eta %h)

Jarduera-sektorea	Finantza-gastuak guztira		Ekarpenen interesak	
	c.a.	%h	c.a.	%h
Lehen sektorea	593.660	100	211.077	35,5
Industria	182.510.706	100	46.939.297	25,7
Eraikuntza	2.576.926	100	389.167	15,1
Zerbitzuak	187.505.499	100	62.518.960	33,3
GUZTIRA	373.186.792	100	110.058.501	29,5

2.- GIZARTE-EKONOMIAREN PROFIL JURIDIKOA

Kapitulu honetan gizarte-ekonomiaren profila eta parametro garrantzitsuenen bilakaera aztertuko da —establezimenduak, enplegua eta sortutako BEGa— establezimendu mota bakoitzaren enpresa arduradunen izaera juridikoaren ikuspegitik —kooperatibak eta SLL eta SAL motako sozietateak—.


2.1.- ESTABLEZIMENDUAK ETA ENPLEGUAK

Gizarte-ekonomiaren profila, enpresen forma juridikoari dagokionez, aurreko ekitaldietako profilaren oso antzekoa da, baina bere ezaugarri nabarmen batzuk areagotu egin dira. Hori horrela, kooperatiben protagonismo espezifikoa mantentzeaz gain, areagotu egin dela esan daiteke.

Establezimenduen terminoetan, kooperatibek zentroen %63,5 biltzen dute, SLL eta SAL sozietateen %36,5aren aurrean. Mota juridiko horren pisua are deigarriagoa da enpleguari so eginez gero. Erreferentziazko urtean kooperatibek **gizarte-ekonomiaren enpleguen %80,4 bildu dute, sozietate laboralei dagokien %19,6aren gainetik**. Kopuruak 2006an, hurrenez hurren, %79 eta %21 ziren.

Sozietate laboralen testuinguruan, SAL motakoak dira gizarte-ekonomiaren enpleguan pisu erlatibo handiena duten izaera juridikoa (%12, SLL motako sozietateek duten %7,7aren aurrean). Hala eta guztiz ere, establezimenduen terminoetan, SLL motakoek SAL motakoaren kopuru bikoitza biltzen dute (%24,3, %12,2aren aurrean).

2.1 irudia
ENPLEGUEN ETA ESTABLEZIMENDUEN BANAKETA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. 2008



Bilakaerari buruzko alderdietan sakonduz gero, egiaztatzen da kooperatibek establezimendu kopurua handitzea lortu dutela 2006-2008 biurtekoan, %2,2. Hazkunde hori, hala ere, askoz moderatuagoa izan da 2004-2006 biurtekoan erregistratutakoa baino. Testuinguru ekonomikoa aldekoa zen orduan, eta kooperatiben establezimendu kopurua bi urteko %8,0ko erritmoan hazten zen.

Kooperatiben alorrean izan den hazkundeak kontrastatu egiten du sozietate laboraletan antzemandako aldaketekin. Sozietate mota horrek nabarmen pairatu du establezimendu bolumenaren murrizketa, eta 2008an %12 jaitsi da 2006an antzemandakoarekin alderatuz gero. Hondatze horren adierazpen gorenari SAL sozietateen kasu espezifikoan ematen da. Izaera juridiko horrek %16,7ko atzerapena izan du, SLL motakoei egokitu zaien %9,6aren gainetik.

Establezimendu kopurua murrizteko prozesua zegoeneko estatistikaren aurreko epeetan ere ematen zen. Hori horrela, 2004 eta 2006 artean %14ko jaitsiera eman zen, eta 2006 eta 2008 artean antzemandakoak joera hori berretsi baino ez zuen egin. Oro har, 2004 eta 2008 artean SAL motako sozietateetan establezimenduen %28,3 galdu da.

Hori dela eta, sozietate laboralen testuinguruan berriagoa da azkenaldiko SLL motako sozietateen jaitsiera, aurreko ekitaldietan ez baitzen gaur egun bezain nabaria izan. Kasu honetan aipagarriena da 2006 arte SLL sozietateen hazkunde-prozesua mantsotu egin zela, 2002-2004 biurtekoan zegoeneko erabat martxan zegoen prozesua. Horren ondorioa izan zen 2004 eta 2006 artean zentro kopurua zertxobait jaitea (%-0,4 biurteko horretan).

2.1 taula
2004-2006an GIZARTE-EKONOMIAREN ESTABLEZIMENDUEK IZANDAKO BILAKAERA , FORMA JURIDIKOAREN
ARABERA 2006-2008 (c.a., % v.)

	2006		2008		%Δ08/06 (1)
	c.a.	%v.	c.a.	%v.	
Kooperatibak	1.855	59,9	1.895	63,5	+2,2
SL motakoak	1.241	40,1	1.091	36,5	-12,1
SAL	437	14,1	364	12,2	-16,7
SLL	804	26,0	727	24,3	-9,6
GUZTIRA	3.096	100,0	2.986	100,0	-3,6%

(1) Kopuru absolutuek erregistratutako hazkundeak, ehunekotan adierazita

Kooperatibak dira, %0,4ko bilakaera positiboarekin, nolabaiteko goranzko joera mantentzea lortu duten izaera juridikoa bakarrak, aurreko biurtekoaren enplegu mailai dagokienez. Hazkunde-tasa hori 2002-2004 biurtekoan erregistratutakoarekin bat datorren arren, %05eko tasa positiboarekin, askoz beherago dago 2004 eta 2006 artean emandako %4,1arekin alderatuta.

Sozietate laborek, bere aldetik, 2006-2008 biurtekoan %9,7ko murrizketa jasan dute enpleguari dagokienez, baina jaitsiera-maila hori establezimendu terminoetan erregistratutako %12,1 baino zertxobait baxuagoa da.

Bilakaera negatiboena SAL sozietateei dagokie. Izaera juridiko horrek 2004 eta 2006 artean ere okupazioaren jaitsiera izan zuen ezaugarri, enplegu-mailak %3,8 jaitsita. 2006 eta 2008 artean, jaitsiera-erritmoa %9,5 handitu zen, eta SAL sozietateek beren enpleguaren %13 galdu zuten 2004 eta 2008 artean. 2004. urtean zituzten 8.563 enpleguetatik, gizarte-ekonomiaren enpleguaren %14,1 ordezkatzan zutena, 2008an 7.451 enplegurekin gelditu ziren, zegoen enpleguaren %11,9.

Beren aldetik, SLL sozietateek ere joera aldaketa izan zuten, enpleguari dagokionez. 2004 eta 2006 artean enplegua %16,1 handitzen ikusi ondoren, 2006-2008 biurtekoan izaera juridiko horrek okupazioaren %5,3 galdu zuen. Hala eta guztiz ere, SLLek 2004-2008 epean konparazioz bilakaera hobea izan dute, 2004an izandako enplegu-mailatik gora, %9,9koa hain zuzen, eta kooperatibetan antzemandako %5,4aren gainetik. Horregatik, gizarte-ekonomia osoaren enpleguan gaur egun suposatzen duten %7,7 zertxobait altuagoa da 2004ko %7,2 baino.

2.2 taula
2006-2008an GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPLEGUEK IZANDAKO BILAKAERA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. (c.a.,% v.)

	2006		2008		%▲08/06 (1)
	c.a.	%v.	c.a.	%v.	
Kooperatibak	50.167	79,0	50.359	80,4	+0,4
SL	13.313	21,0	12.257	19,6	-7,9
SAL	8.238	13,0	7.451	11,9	-9,5
SLL	5.075	8,0	4.806	7,7	-5,3
GUZTIRA	63.480	100,0	62.615	100,0	-1,4

(1) Kopuru absolutuek erregistratutako hazkundera, ehunekotan adierazita.

2006 eta 2008 artean gizarte-ekonomiaren alorreko establezimenduen batez besteko tamainan emandako bilakaera aztertzean egiaztatzen da kooperatibek 2006. ekitaldian erregistratutako batez besteko tamaina mantentzen dutela ia (26,6 langile enpresa-kooperatiba establezimendu bakoitzeko 2008an, 2006an 27 ziren bitartean). Antzematen den jaitsiera txikiak zerikusia du enplegu-mailetan erregistratutako hazkundera (%0,4) establezimenduen terminoetan erregistratutakoa (%2,2) baino txikiagoa izatearekin. Jaitsiera txikia bada ere, hala eta guztiz ere adierazi beharra dago kooperatiben batez besteko tamaina jaisteko joera 2002-2004 biurtekotik aurrera antzematen dela.

Sozietate laboraletan, ordea, 2006 eta 2008 artean finkatu egin da zentroen tamaina handitzeko prozesua. Ildo horretan, azken bi urteetan ikus daitekeenez, sozietate laboralen batez besteko tamaina handitu egin da (SAL eta SLL sozietateak), 2002 eta 2004 artean erregistratutakoari jarraipena emanez. Nolanahi ere, 2006 eta 2008 artean fenomeno hori loturik dago soilik establezimendu kopuruaren jaitsiera enpleguen jaitsiera baino handiagoa izatearekin. 2006 arte, berriz, sozietate laboralen kopuruaren murrizketa, sozietate horietan enplegu agregatuaren nolabaiteko hazkunderarekin kontrastatzen zuena, establezimenduen batez besteko tamainaren hazkundera baldintzatzen zuen faktorea zen.

2006 eta 2008 artean aipatutako prozesua neurri handiago batean SAL sozietateen kasuan antzematen da. Establezimendu mota horiek zentro bakoitzeko 2006an batez beste 18,9 enplegu izatetik 2008an 20,5 izatera pasatu ziren. SLLen kasuan hazkundera moderatuagoa izan zen, eta zentro bakoitzeko 6,3 enplegutik 6,6 enplegu izatera pasatu zen 2006 eta 2008 artean.

2.3 taula
ESTABLEZIMENDUEN BATEZ BESTEKO TAMAINA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA
(ENPLEGATUAK/ESTABLEZIMENDUAK) 2006-2008

	2006	2008
S. Kooperatibak	27,0	26,6
SL	10,7	11,2
SAL	18,9	20,5
SLL	6,3	6,6

Enpleguaren arloz arloko egitura aztertuz gero, kooperatiben sektoreak industria izaera nabarmena duela antzeman daiteke, enpleguaren %46,3 jarduera-sektore horretan baitago kontzentratua. Eraikuntza kontuan hartuko bagenu, ehuneko hori %48,5era handituko litzateke. Dena dela, industriaren pisua jaitsi egin da 2006an antzemandako %48,9arekiko. Hain zuzen ere, 2006 arte industria-sektorea historikoki sektorerik garrantzitsuena izan bazen, enpleguari dagokionez, 2008an zerbitzuen sektorea nagusi izan zen kooperatiben artean, enpleguaren %51,1 bilduta. Egoera horrek dimentsio berria ematen dio 1994an urtean estatistika operazioa hasi zenetik gizarte-ekonomian antzematen den hirugarren sektorera jotzeko prozesuari.

2006 eta 2008 artean hirugarren sektorerantz jotzeko eman den dinamikaren oinarrian, kooperatiben alorrean, kooperatiben dinamika bera dago. Prozesu horretan, besteak beste, ondorengo faktoreak hartu beharko lirateke kontuan:

- Krisiaren eragina industriaren alorreko enpleguan handiagoa da, batez ere behin-behineko kontratu mota duten langileen artean. Horien pisu erlatiboa gizarte-ekonomiaren industria-sektorean ehuneko bost baino gehiago jaitsi da.
- Industria-sektoreak hirugarren sektorerantz jo izana, ez bakarrik loturik hirugarren sektoreko enplegu mailen hazkunderarekin, baizik eta industria-jarduera tradizionalaren aldamenean ikerketa eta garapenarekin zerikusia duten negozio unitateak berezko izaera juridikoa duten enpresa gisa ireki izanarekin.
- Hirugarren sektoreko kooperatiba handiek etengabe enplegua sortu dute, eta 2006-2008 biurtekoan oraindik enplegu bolumen handia sortzeko gaitasuna izan dute.
- Oro har, kooperatiben sektorearen industriak 2006 eta 2008 artean enpleguaren %4,9 galtzen duen bitartean, hirugarren sektorean enplegua %5,3 hazi da.

2.4 taula
KOOPERATIBEN ENPLEGUAREN ARLOZ ARLOKO EGITURA. 2006 eta 2008 URTEETAKO ERREFERENTZIA.
(c.a., % v.)

	2006		2008	
	c.a.	%v.	c.a.	%v.
Lehen sektorea	98	0,2	190	0,4
Industria	24.525	48,9	23.329	46,3
Eraikuntza	1.108	2,2	1.111	2,2
Zerbitzuak	24.435	48,7	25.729	51,1
GUZTIRA	50.167	100,0	50.359	100,0

Sozietate laboralen kasuan ere hirugarren sektorera jotzeko prozesua egiaztatu da 2006 eta 2008 artean. Hori horrela, industriaren alorreko enpleguaren pisua kooperatiben alorreko enpresa-egiturari dagokiona baino zertxobait handiagoa izan arren, eta industria nagusi izanik enpleguaren %53,8rekin, kopuruak 5 puntuko jaitsiera adierazten du 2006ko %58,8arekiko. Zerbitzuen sektorea ere horrekin batera jaitsi da, enpleguan betetzen duen kopurua 2006ko %32,5etik 2008ko %37,7ra pasatuta.

Adierazitako prozesua SAL sozietateetan garbiago antzematen da. Izaera juridiko horretan industriak 2006 eta 2008 artean ehuneko 7 puntu galdu ditu enpleguan duen parte hartzean (%66tik %58,9ra). Kasu horretan 2006 eta 2008an SAL sozietateen industria-enpleguan antzemandako %19,3ko jaitsierak kontrastatu egiten du zerbitzuen sektorean erregistratutako %16,1eko hazkundearekin. Alde hori are nabarmenagoa da erreferentziatzat hartzen bada 2004tik aurrera industriaren pisuak izandako jaitsiera. Urte horretan industria-enplegua enplegu osoaren %71,3 zen. Hain zuzen ere, zerbitzuen sektorean 2008 arte enplegua %41,4 handitu den bitartean, industrian %28,2 jaitsi da. Eraikuntzan ere jaitsiera nabaria eman da, 2004 eta 2008 artean lanpostuen %33,7 galduta.

Hala eta guztiz ere, 2008an enplegu osoan industria-sektoreak pisu espezifiko handiena duen izaera juridikoa SAL motako sozietateak dira. Ildo horretan, zerbitzuen pisua enplegu osoaren %36,4 baino ez da.

SAL sozietateek ez bezala, SLL sozietateek praktikan ia mantendu egin dute 2006ko enpleguaren sektore-egitura, enpleguaren %45,9 industriari lotua eta %39,8 zerbitzuen sektoreari. Dena dela, bilakaera hori loturik dago 2006 eta 2008 artean bi sektoreetan eman den hondatze globalarekin, zerbitzuetan %4,3 eta industrian %7,6 galduta. Jaitsiera horrek kontrastatu egiten du 2004 eta 2006 artean enpleguak izandako bilakaera onarekin, batez ere SLL sozietateetako industria-sektorean.

2.5 taula
SOZIESTATE LABORALEN EPLEGUAREN ARLOZ ARLOKO EGITURA. 200e eta 2008 URTEETAKO
ERREFERENTZIA. (c.a., % v.)

	SAL sozietateak				SLL sozietateak				Sozietate laboralak			
	2006		2008		2006		2008		2006		2008	
	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.
Lehen sektorea	5	0,1	8	0,1	30	0,6	22	0,5	35	0,3	30	0,2
Industria	5.435	66,0	4.385	58,9	2.390	47,1	2.208	45,9	7.825	58,8	6.593	53,8
Eraikuntza	462	5,6	346	4,6	658	13,0	664	13,8	1.121	8,4	1.010	8,2
Zerbitzuak	2.336	28,3	2.712	36,4	1.997	39,3	1.912	39,8	4.333	32,5	4.624	37,7
GUZTIRA	8.238	100,0	7.451	100,	5.075	100,0	4.806	100,0	12.936	100,0	12.257	100,0


2.2.- BEGa ETA PRODUKTIBITATE ANTZEMANGARRIA

BEG balioaren banaketa forma juridikoaren arabera aztertuta **kooperatibek** gizarte-ekonomiaren produkzio-egituraren barruan duten garrantzi erlatiboa ikus daiteke. Ildo horretan, **BEG osoaren %85,6 mota horretako establezimenduek sortutakoa da**, eta egonkor mantendu da 2006 eta 2008 artean.

Horrezaz gain, kooperatibek BEG balioan duten parte hartzea enplegu terminoetan hitz eginda dagokien %80,4aren gainetik kokatzen da. Horrek agerian jartzen du izaera juridiko horretako enpresa-kooperatiben produktibitate antzemangarria handiagoa dela.

Sozietate laboralen eremuan, sortutako BEGaren zatirik handiena SAL sozietateek sortutakoa da (%9,6), eta SLLek sortzen dutena, berriz, %4,7koa da. Bi portzentajeak 2006koen oso antzekoak dira, baina SAL sozietateen eraginaren nolabaiteko galera adierazten dute (2006an BEGaren %10, urte horretan SLLei dagokien %4,4arekiko). Bi kasuetan, erreferentziazko portzentajeak izaera juridiko horiek enplegu terminoetan hitz eginda duten garrantzia erlatiboa baino baxuagoak dira (%11,9 eta %7,7, hurrenez hurren). Diferentzia hori ulertzeko sozietate laboralen produktibitate nabarmen txikiagoa hartu behar da kontuan, neurri handi batean enpresa txikiagoak izatetik eratorria.

2.2 irudia
BEG BALIOAREN BANAKETA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. 2008 (%v)



Forma juridiko bakoitzean BEGaren sektore-egituraren azkenaldiko bilakaera kontuan hartuz gero, alde zuzenetik deskribatutako joeren antzekoak antzeman daitezke enpleguari buruzko datuak aztertzerakoan.

Daturik aipagarriena da hirugarren sektorearekin loturiko BEGaren parte hartzean ikusten den hazkundera. Zerbitzuek 4,1 puntu irabazi dituzte parte hartzeari dagokionez, eta, horrela, 2006an gizarte-ekonomiaren BEGren %37,4 biltzen zuten bitartean, 2008an %41,5ekoa izan da horien parte hartzea, hori guztia industriaren kaltetan, sektore horren parte hartzea BEG indizean jaitsi egin baita 2006-2008 biurtekoan.

Hala eta guztiz ere, eta enpleguaren sektore-egitura aztertzerakoan ikusitakoan ez bezala, BEG terminoetan industriak-sektoreak euskal gizarte-ekonomiaren baitan sortutako BEGaren erdia baino gehiago biltzen du oraindik ere (%55,7, 2006ko %59,7aren azpitik).

Kooperatiben kasuan soilik zerbitzuen sektoreak lortu du BEGaren pisu erlatiboa EAEko batez bestekoaren gainetik egotea, 2008an enpresa-kooperatiba sareari lotutako BEGaren %42,7 sortuta, 2006an sortutakoaren %39aren gainetik nabarmen. Hirugarren sektorearekin loturiko BEGaren pisuan izandako hazkunde horren zergatia, neurri handi batean, finantza-kooperatiba batzuetan antzemandako bilakaera positiboa da. Nahiz eta moderatuagoa izan, azpimarratzekoa da, era berean, eskala handiko banaketaren sektorean izandako bilakaera positiboa. Dena dela, industria-kooperatibek sortutako BEGa zerbitzuek sortutakoa baino handiagoa da 2008an, kooperatiben BEGaren %55,5 sortuta.

Zerbitzuen sektoreko BEGaren hazkunde erlatibo handiena SAL sozietateei dagokie. Establezimendu mota horretan, hirugarren sektorerako jotzeko prozesuak aurrera egin du nabarmen, zerbitzuen sektorearen pisu erlatiboa BEGaren ehuneko bederatzi puntu hazita (hirugarren sektoreko BEGaren %31,9 izan zen da 2008an, 2006an izandako %22,9aren aurrean). Hala eta guztiz ere, SAL sozietateen industria-sektorea, konparazioa eginda, forma juridikoa bakoitzaren BEG osoaren parte hartze handiena duen sektorea da.

Hortaz, SLL sozietateak dira, oraindik ere, sektore-egitura orekatuagoa mantentzen duten establezimenduak, BEGaren banaketa sektorearen arabera 2006. urtearen banaketaren antzeko terminoetan kokatuta, %38,9 zerbitzuetan eta %43,9 industria-sektorean, hain zuzen ere.

Egoera orekatu horren zati bat lotzen zaio SLL sozietateetan termino sektorialetan azkenaldian izan den BEGaren hazkundera nahikoa orekatua izateari. Hain zuzen ere, kasu horretan BEGaren hazkundera 2006 eta 2008 artean industria-sektorean are handiagoa izan da (%5,1, %3,3aren aurrean).

SAL sozietateetan eta kooperatibetan, 2006-2008 biurtekoan zerbitzuen sektorearen BEGaren mailetan izandako hazkundera askoz handiagoa da (%25,4 eta %8,3, hurrenez hurren). Horrekin batera, ordea, industriari lotutako BEGaren jaitziera eman da (%7,4 kooperatibetan eta %15,2 SAL sozietateetan). BEGaren hirugarren sektorerako jotzeko prozesua kasu horietan ez da zerbitzuen hazkunderaren hazkunde diferentzialaren ondoriozkoa soilik, baizik eta industria-sektorearen bilakaera negatiboarena, baita, oro har, bigarren sektorearen bilakaera negatiboaren ondoriozkoa ere, eraikuntza barne hartuta.

2.6 taula
BEG BALIOAREN BANAKETA, FORMA JURIDIKOAREN ETA JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA. 2008
(c.a., %v.)

Jarduera-sektorea	GUZTIRA		S.KOOP.		SAL		SLL	
	c.a.	%v	c.a.	%v	c.a.	%v	c.a.	%v
Lehen sektorea	5.884.834	0,2	5.388.407	0,2	179.567	0,1	316.861	0,2
Industria	1.630.259.085	55,7	1.391.499.961	55,5	178.471.740	63,2	60.421.109	43,9
Eraikuntza	75.954.040	2,6	38.866.872	1,5	13.604.432	4,8	23.482.737	17,0
Zerbitzuak	1.215.505.308	41,5	1.071.847.671	42,7	90.110.963	31,9	53.546.674	38,9
GUZTIRA	2.927.603.267	100,0	2.507.602.910	100,0	282.366.703	100,0	137.767.380	100,0

Gizarte-ekonomiaren alorreko establezimenduen produktibitate antzemangarriaren analisia forma juridikoaren arabera eginez gero ikus liteke, aurreko ekitaldietan bezalaxe, oso produktibitate-maila desberdinak ematen direla, forma juridikoaren eta jarduera-sektorearen arabera.

Forma juridikoari begiratuz gero, alde batetik, kooperatibek sozietate laboralek baino produktibitate-maila handiagoak dituzte, kontuan hartzen den sektorea edozein dela ere, eta gogoan hartu behar da azken horien barruan produktibitate-maila txikiak SLL sozietateek dituztela beti. Beste alde batetik, SLLei dagokien salbuespena izan ezik, formatu juridiko bakoitzaren barruan, industriaren alorreko establezimenduek hirugarren sektoreko establezimenduek baino produktibitate-maila handiagoak dituzte.

Hala eta guztiz ere, zehaztasun gehiago jasotzekotan honako errealitateak aipatu beharko lirateke:

- Sektoreen arteko produktibitate handiena industria-kooperatibei dagokie, langile bakoitzeko 60.000 eurotik gorako kopuruekin.
- Kontrako muturrean, SLL sozietate guztietan produktibitatea 30.000 eurotik beherakoa da langile bakoitzeko, sektorea edozein dela ere (industria eta zerbitzuak), establezimendu mota horretako batez besteko tamainarekin zerikusia duen alderdia izanik hori. Altuxeagoa bada ere, erreferentziazko kopuru hori antzekoa da hirugarren sektoreko SAL sozietateetan (33.200 euro enplegu bakoitzeko).
- Erdibidean, langile bakoitzeko 40.000 eta 42.000 euro tartean dauden kopuruekin, industria-sektoreko SAL sozietateak ditugu, baita zerbitzuen sektoreko establezimendu kooperatiboak ere.

Hala eta guztiz ere, azkenaldiko datuek erakusten dute produktibitatean aldaketa nabariak eman direla joerei dagokienez. Batez ere azpimarratzekoa da sozietate laboralen produktibitatean antzemandako hazkunde handiagoa. Sozietate horien multzo eta tamaina kontuan hartuta, termino erlatiboetan, ikus daiteke produktibitatea %7,7 handitu dela industrian eta %13,1 zerbitzuetan.

Kooperatibetan, berriz, produktibitatearen hazkundea zertxobait txikiagoa izan da. Zerbitzuen sektoreari loturiko produktibitate antzemangarriaren kasuan, termino erlatiboetan, 2008an %3,7 handitu da 2006arekin alderatuta. Errealitate hori lotzen zaio hirugarren sektoreko kooperatiben BEGaren %9ko hazkundeari, enplegu-mailen %5,3ko hazkunde-tasa baita hazkunde terminoetan hitz eginda.

Kooperatiben industria bereiziki aipatu behar da. Kasu horretan, 2006 eta 2008 artean BEG industrialaren jaitsiera %7koa da, enpleguaren mailetan izandako %5eko jaitsieraren gainetik. Termino erlatiboetan, kooperatiben industriaren produktibitate-maila %2,1 jaitsi da 2006 eta 2008 artean.

Sozietate laboraletako produktibitatean izandako bilakaera positiboak ere ez ditu beti aldaketa positiboak adierazten. Hori horrela, BEG industrialaren bilakaera positiboak zerikusia du sozietate mota horretan 2006 eta 2008 artean konparazioz enpleguak izandako atzerapen nabarmenagoarekin.

2.7 taula

**ARLOZ ARLOKO PRODUKTIBITATE ANTZEMANGARRIA KOOPERATIBA, SAL ETA SLL SOZIETATEETAN.
KONPARAZIOZKO ERREFERENTZIA (BEG euro kopurua milakotan/Enplegatua)**

	S.Koop.		SAL		SLL		SLen agregatua	
	2006	2008	2006	2008	2006	2008	2006	2008
Industria	60,9	59,6	37,8	40,7	24,0	27,4	33,6	36,2
Zerbitzuak	40,2	41,7	28,8	33,2	25,9	28,0	27,5	31,1
GUZTIRA	50,2	49,8	35,7	37,9	25,6	28,7	31,8	34,3

Azkenik, azpimarratu behar da BEGaren banaketa forma juridikoaren arabera eginez gero ia ez dagoela alderik aurreko urteekin. Hortaz, kooperatibek gizarte-ekonomiak sortutako BEG osoaren %85etik gorako pisua mantendu dute, sozietate laboralek duten %15etik gertuko kopuruaren aurrean. Nolanahi ere, sozietate horien barruan, SLL motakoak protagonismoa irabazten joan dira. Hori horrela, beren pisu erlatiboa BEGan %4tik %4,7 handitu da 2004 eta 2008 artean, eta SAL sozietateena, berriz, %11tik %9,6ra jaitsi da.

2.8 taula

**GIZARTE-EKONOMIAK SORTUTAKO BALIO ERANTSI GORDINAREN (BEG) BANAKETA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. KONPARAZIOZKO ERREFERENTZIA 2006 eta 2008.
(c.a. euro kopurua milakotan, % v.) (Ohiko prezioak)**

	2006		2008	
	c.a.	v.%	c.a.	v.%
Kooperatibak	2.519.945	85,6	2.507.603	85,6
SL	423.698	14,4	420.134	14,4
SAL	293.875	10,0	282.367	9,6
SLL	129.823	4,4	137.767	4,7
GUZTIRA	2.943.644	100,0	2.927.603	100,0

3.- GIZARTE-EKONOMIAREN LURRALDE-PROFILA

Hirugarren atal honetan gizarte-ekonomiak lurralde historiko bakoitzean duen profilaren analisia egingo da, enplegua, establezimenduak eta 2006. urtean sortutako BEG balioa kontuan hartuta.


3.1.- ENPLEGUAREN ETA ESTABLEZIMENDUEN LURRALDE-PROFILA

Gipuzkoa da lurralde nagusiena gizarte-ekonomiaren alorrean. Enpleguari dagokionez, Gipuzkoak EAEko gizarte-ekonomiak sortutako enpleguen %50,6 biltzen ditu. Bizkaia bigarren tokian kokatzen da, %39rekin, eta Arabak gainerako %10,3 biltzen du.

Nahiz eta, oro har, enpleguen eta establezimenduen banaketa lurralde historikoaren arabera aurreko urteen antzeko portzentajeetan mantendu, hala eta guztiz ere antzeman daiteke Gipuzkoako enpleguaren pisu erlatiboa zertxobait murriztu dela. Lurralde horren parte hartzea enpleguan 2004ko %52,5etik 2006ko %51,5era eta egungo %50,6ra jaitsi da. 2006 eta 2008 artean murrizketa hori azaltzen duen faktore bat da Gipuzkoako lurraldean industriaren alorreko enpleguaren jaitsiera handiagoa izatea.

Bizkaia parte hartzea handitu badu ere, 2004ko %38,2tik, kopuruak mantendu egin dira 2006ari dagokioenez. Arabak enpleguan duen pisua, berriz, 2004 eta 2006an %9,5 izatetik 2008an %10,3 izatera pasatu da.


3.1 irudia
GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPLEGUAREN LURRALDE-BANAKETAREN BILAKAERA. 2006-2008



Gipuzkoan gizarte-ekonomiaren enpleguak duen pisua eta establezimenduen lurralde-banaketa oso desberdinak dira. Enplegu terminoetan antzematen dena ez bezala, 2008an Bizkaia da establezimenduen kopuruan parte hartze handiena duen lurralde historikoa, %45,3arekin. Gipuzkoak, bere aldetik, gizarte-ekonomia osatzen duten produkzio-zentroen %39 biltzen du, eta Araba dago azken postuan kokatua %15,6ko parte hartzearekin. Lurralde hori da, ordea, 2004an %14,1eko parte hartzea izan zuenetik parte hartzea etengabe handitu duen lurralde bakarra.

Gipuzkoan erregistratutako enpleguaren pisua handiagoa izateak, eta Bizkaiak eta Arabak establezimendu terminoetan kopuru altuagoak emateak, agerian jartzen dute Gipuzkoako enpresa-establezimenduen batez besteko tamaina handiagoa dela Bizkaiko eta Arabakoekin alderatuta.

3.3 irudia
GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ESTABLEZIMENDUEN LURRALDE-BANAKETAREN BILAKAERA. 2006-2008




Enpleguari buruzko datuek, lurralde historikoaren arabera, adierazten dute 2004 eta 2008 artean enpleguan izan duen parte hartzean jasan duen jaitsiera erlatibo txikia gorabehera, **Gipuzkoako gizarte-ekonomiaren enpresa-egitura EAEko sendoena** dela oraindik ere. Aipatu behar da, gainera, euskal gizarte-ekonomiaren enpleguaren erdia baino gehiago biltzeaz gain, **Gipuzkoak pisu erlatibo handiena duela bere lurraldeko enplegu globalari dagokionez**. Ildo horretan, Lurralde Historiko horretako ia 10 enplegutatik bat gizarte-ekonomiaren alorreko establezimenduei dagokie, %9,7 hain zuzen ere. Proportzio hori Bizkaian %4,8koa da eta %4,3koa Araban.

Hala eta guztiz ere, azpimarratzekoa da Gipuzkoako gizarte-ekonomiak enplegu terminoetan jasan duen atzeraldia. Gipuzkoak Euskadiko gizarte-ekonomiaren enplegu osoari egindako ekarpena txikiagoa izateaz gain, sektore horren parte hartzea lurraldearen enplegu osoan ere murriztu egin da; kasu horretan %10,2tik %9,7rako jasitsiera ikusi da 2006 eta 2008 artean. Bilakaera hori koherentea da Gipuzkoako industria-establezimendu handien presentzia erlatibo handiagoarekin. Zentro horiek —aldez aurretik dagoeneko nabarmendu den bezala— konparazioz 2006 eta 2008 artean enpresa-emaitzen jaitsieren eragin handiagoa pairatu dute.

Txikiagoa bada ere, epe horretan jaitsierak Bizkaiko gizarte-ekonomiari ere eragin dio. Hori horrela, lurraldearen enpleguan izan duen parte hartzea %5etik %4,8ra pasatu da biurtekoan. 2004tik aurrera Arabak baino ez du nolabaiteko goranzko joera erakutsi, bere parte hartzea 2004ko %4,1etik 2008ko %4,3ra pasatuta.

3.2 irudia

GIZARTE-EKONOMIAK EAEko EKONOMIAN DUEN GARRANTZI ERLATIBOA (Enpleguaren pisu erlatiboa lurralde historikoaren arabera). 2006-2008



Konparaziorako Iturria: Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA), Eustat 2008

Ondorengo taulan azaltzen den bezala, kontsideratutako enplegu eta establezimendu kopuruek termino absolutuetan Gipuzkoaren nagusitasuna adierazten dute enpleguari dagokionez, 31.694 enplegurekin 2008. urtean. Aitzitik, Bizkaia, 1.353 enpresa-establezimendu operatiborekin, nabarmendu egiten da establezimendu terminoetan.

3.1 taula

GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ESTABLEZIMENDUEN ETA ENPLEGUEN LURRALDE-BANAKETA. (c.a., %v.) 2008

	ENPLEGUAK		ESTABLEZIMENDUAK	
	c.a.	%v.	c.a.	%v.
Araba	6.467	10,3	467	15,6
Bizkaia	24.454	39,0	1.353	45,3
Gipuzkoa	31.694	50,6	1.166	39,0
GUZTIRA	62.615	100,0	2.986	100,0

Lurralde-azterketa forma juridikoaren arabera eginez gero, sektoreen berezitasun batzuk jartzen dira agerian. Horiek horrela, gizarte-ekonomiaren alorreko kooperatiben (%53,6) eta SLL sozietateen (%46,7) enplegu gehienak Gipuzkoan dauden bitartean, SAL sozietateen establezimendu gehienak Bizkaian daude. Azken lurralde horretan establezimendu mota horrek sortzen duen enplegu osoaren %58,4 biltzen da.

Nolanahi ere, kopuruen azkenaldiko bilakaerak aipatzekoak diren hainbat aldaketa garrantzitsu adierazten ditu. Kooperatiben alorrean batez ere azpimarratzekoa da Gipuzkoako parte hartzeari eragin dion jaitiera, 2006ko %55,4tik 2008ko %53,6ra jaitsi baita. Egoera horrek zerikusia du 2006-2008 epean enpleguan izandako jaitsierarekin, %1,8koa hain zuzen ere, eta kontrastatu egiten du Bizkaian eta Araban izandako hazkundearekin, %2,9 eta %12,7 hurrenez hurren.

Sozietate laboralen alorrean joera da enpleguaren jaitsiera orokorra izatea lurralde eta sozietate motaren arabera. Soilik Araban aurki daiteke bestelako egoera, kasu horretan %8,1eko hazkundea eman baita enplegu-mailetan. Hain zuzen ere, Araban 2006an SLL sozietateen enplegua %9,7 zen eta 2008an %11,1eraino hazi da.

3.2 taula
GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPLEGUEN LURRALDE-BANAKETA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA.
2008.
(c.a., % v.)

	GUZTIRA		S. KOOP.		SAL		SLL	
	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.
Araba	6.467	10,3	5.205	10,3	728	9,8	535	11,1
Bizkaia	24.454	39,0	18.074	35,9	4.353	58,4	2.027	42,2
Gipuzkoa	31.694	50,6	27.080	53,6	2.370	31,8	2.244	46,7
GUZTIRA	62.615	100,0	50.359	100,0	7.451	100,0	4.806	100,0

Lurralde bakoitzaren barruan enpleguaren egituraren analisisa forma juridikoa kontuan hartuta eginez gero, ikus liteke Gipuzkoan enplegu kooperatiboa dela nagusi (lurralde horretan gizarte-ekonomiaren enplegu osoaren %85,4 hartzen du). Hala eta guztiz ere, lurralde guztietan enplegu kooperatiboak duen pisua %70etik gora dagoela esan behar da, are gehiago, Araban %80tik gorakoa da (%80,5). Kooperatinek gizarte-ekonomiari egindako ekarpena lurralde guztietan handiagoa izan da 2006 eta 2008 artean.

Lurralde horretan duen nagusitasuna dela eta, azpimarratu beharreko beste datu bat da SAL sozietateen parte hartze erlatibo handiagoa Bizkaiko enpleguan. Kasu horretan SAL sozietateek enplegu osoaren %17,8 hartu dute, Arabako %11,3aren eta Gipuzkoako %7,5aren gainetik. Dena dela, kasu guztietan beheranzko joera sumatu da, 2006an izandako ekarpena kontuan hartuz gero.

SLL sozietateen pisu erlatiboa homogeneousagoa da lurraldeen arabera, eta Gipuzkoako %7,1etik Araba eta Bizkaiko %8,3 bitarte dago.

3.3 taula
GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPLEGUEN LURRALDE-BANAKETA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA
(% h.)

	GUZTIRA	S.KOOP.	SAL	SLL
Araba	100,0	80,5	11,3	8,3
Bizkaia	100,0	73,9	17,8	8,3
Gipuzkoa	100,0	85,4	7,5	7,1
GUZTIRA	100,0	80,4	11,9	7,7

3.4 taulan zehatz-mehatz dago azalduta hiru lurralde historikoetan eta EAE osoan enplegua nola dagoen banatua, forma juridikoei eta jarduera-sektoreei dagokienez. Informazio horren ondorioz lor daitezkeen kontsiderazio garrantzitsuenak honakoak dira:

- **Hiru lurraldeetatik Gipuzkoan soilik da nagusi industria-alorreko enplegua, ez maila globalean bakarrik, hiru formatu juridikoetan ere bai.** Industriaren pisua bereziki adierazgarria da SAL (%78) eta SLL sozietateen kasuan (%66,8), baina kooperatiben kasuan ere nagusi da. EAEko kooperatiben alorrean hirugarren sektorearen enpleguaren pisua handiagoa bada ere, Gipuzkoan oraindik industriaren alorreko enplegua da nagusi (%58,3 hirugarren sektoreko enpleguaren %39,8aren aurrean). Gipuzkoako kooperatiben industriaren pisu erlatiboa, ordea, murriztu egin da 2006ko %61,9arekin alderatuz gero.
- **Araban zerbitzuen sektoreak enpleguan duen pisu espezifikoak industria-sektoreak duena baino handiagoa da** (%54 eta %39,1 hurrenez hurren). Diferentzial hori, gainera, handitu egin da 2006arekin alderatuta, hirugarren sektoreko enpleguen kopurua %50, izanik, 2004 eta 2006 artean antzemandakoarekin kontrastatuz, epe horretan industria-enpleguaren hazkunde diferentziala eman baitzen. Beste alde batetik, zerbitzuen nagusitasuna kooperatiben sektorean da nabarmena (%60,7) baina 2008an handitu egin da SLL sozietate motara zabalduz (%50,7). Sozietate laboralen enpleguaren %87, ordea, industriaren alorrekoa da.
- Baina, **zerbitzuen sektoreak Bizkaian du pisurik handiena, %62** hain zuzen. Lurralde historiko horretan, gainera, zerbitzuen pisu espezifikoak **handitu egin da azken urteetan**, 2006 eta 2008 artean %58,4tik %62 pasatuta. Araban bezala, enplegu kooperatiboaren zatirik handiena zerbitzuetan kontzentratzen da (%65,2), eta SLL sozietateen kasuan ere (%54,6 SLLen kasuan eta %51,8 SAL sozietateenean) zerbitzuen alorreko enpleguak dira nagusi.

Bizkaian azpimarratu beharra dago zerbitzuen sektoreak SAL sozietateen kasuan betetzen duen tokia. Araban eta Gipuzkoan, ordea, forma juridiko horretan industriaren alorreko enpleguak biltzen dira. Bizkaiko SAL motako sozietateen zerbitzuen sektorearen pisu erlatiboa, hain zuzen ere, nabarmen handitu da azken urteetan: 2006an %39,4 zen eta 2008an %51,8.

3.4 taula

GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPLEGUEN ARLOZ ARLOKO BANAKETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA 2008 (%v)

EAE	GUZTIRA		S. KOOP.		SAL		SLL	
	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.
Lehen sektorea	220	0,4	190	0,4	8	0,1	22	0,5
Industria	29.922	47,8	23.329	46,3	4.385	58,9	2.208	45,9
Eraikuntza	2.120	3,4	1.111	2,2	346	4,6	664	13,
Zerbitzuak	30.353	48,5	25.729	51,1	2.712	36,4	1.912	39,8
GUZTIRA	62.615	100,0	50.359	100,0	7.451	100,0	4.806	100,0

ARABA	GUZTIRA		S. KOOP.		SAL		SLL	
	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.
Lehen sektorea	117	1,8	117	2,2	0	0,0	0	0,0
Industria	2.528	39,1	1.694	32,5	633	87,0	201	37,6
Eraikuntza	330	5,1	236	4,5	32	4,4	63	11,8
Zerbitzuak	3.492	54,0	3.158	60,7	63	8,7	271	50,7
GUZTIRA	6.467	100,0	5.205	100,0	728	100,0	535	100,0

BIZKAIA	GUZTIRA		S. KOOP.		SAL		SLL	
	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.
Lehen sektorea	87	0,4	57	0,3	8	0,2	22	1,1
Industria	8.268	33,8	5.855	32,4	1.904	43,7	510	25,2
Eraikuntza	947	3,9	374	2,1	185	4,2	388	19,1
Zerbitzuak	15.151	62,0	11.789	65,2	2.256	51,8	1.107	54,6
GUZTIRA	24.454	100,0	18.074	100,0	4.353	100,0	2.027	100,0

GIPUZKOA	GUZTIRA		S. KOOP.		SAL		SLL	
	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.
Lehen sektorea	16	0,1	16	0,1	0	0,0	0	0,0
Industria	19.126	60,3	15.780	58,3	1.848	78,0	1.498	66,8
Eraikuntza	843	2,7	502	1,9	129	5,4	213	9,5
Zerbitzuak	11.709	36,9	10.782	39,8	393	16,6	533	23,8
GUZTIRA	31.694	100,0	27.080	100,0	2.370	100,0	2.244	100,0

Interes berezia du gizarte-ekonomiaren testuinguruan industria-enpleguari lotutako ezaugarriak zehatz-mehatz aztertzea. Aurreko ekitaldietan azterketa hori egitea nahitaezkoa zela ikusi zen, batez ere egiaztatu zelako 2002 eta 2004 artean, 1994. urteaz geroztik lehenengo aldiz, gizarte-ekonomiako industria-enpleguaren bolumenean jaitsiera absolutua eman zela, garai hartan hiru lurralde historikoei eragiten zien jaitsiera.

2004 eta 2006 artean jaitsiera hori Bizkaian baino ez zen mantendu. Araban, berriz, hazkunde nabaria izan zen industriaren dinamikan, enpleguen mailak %13,9 hazita, eta Gipuzkoan enplegua berreskuratzen hasi zen, %4,1 hazita 2004. urtearekiko.

Dena dela, 2006-2008 biurtekoaren egoerak euskal gizarte-ekonomia 2002-2004 biurtekoan gertatutakoaren testuinguru berean kokatu zuen, okupazioan jaitsiera orokorrak emanez. Jaitsiera horiek batez ere kostaldeko lurraldeetan nozitu ziren, %7,8 Gipuzkoan eta %8,5 Bizkaian. Araban, berriz, jaitsiera %2,1ekoa baino ez zen izan.

Bilakaera horren inplikazioaren ondorioa da gizarte-ekonomiaren industria-enplegua 2008an 2002an zegoena baino %9,8 baxuagia izatea. Arabak enpleguaren %0,4 galdu duen bitartean, 2002-2008 epe osoan jaitsiera %7 da Gipuzkoan eta %17,8 Bizkaian.

3.5 taula

GIZARTE-EKONOMIAREN INDUSTRIA-ENPLEGUAREN LURRALDE-BANAKETA ETA BILAKAERA. 2006-2008

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	c.a.	Δ06-08	c.a.	Δ06-08	c.a.	Δ06-08
Industria	2.528	-2,1	8.268	-8,5	19.126	-7,8

Emandako datu horiek sakonago aztertuz gero, ikus daiteke 2006-2008 biurtekoan industria-enpleguaren galerak, hiru lurralde historikoetan eta forma juridikoa kontuan izanik, ondorengo ezaugarriak dituela:

- Araban, industria-enpleguaren atzerapena txikia izan bada ere (%-2,1) sozietate laboraletan handia da (%-12,6 SLL sozietateetan eta %-14,3 SAL motakoetan). Hala eta guztiz ere, jaitsiera hori konpentsatua dago kooperatiben sektorean izandako %5eko hazkundearen ondorioz, lurralde horretan industriaren eremuan kuantitatiboki hitz eginda garrantzitsuena izan dena.
- Bizkaian 2008an enplegua %8,5 murriztea 2006. urteko datuekin alderatuta loturik dago batez ere enpleguan SAL sozietateek izandako jatsiera nabarmenarekin: 2006-2008 biurtekoan %27,7ko jaitsiera izan da. SLL motako sozietateetan enpleguan izandako jaitsiera ere handia da oso (%-10,1). Hala ere, Bizkaiak oinarritzkoan mantendu du kooperatiben industria-enplegua (%+0,3).
- Azkenik, Gipuzkoako industria-enpleguaren tasa negatiboaren (%-7,8) jatorrian dago, neurri batean, sozietate laboraletan izandako bilakaera negatiboa (%-8,5). Baina, kasu horretan, erabakigarria izan da kooperatiben alorreko industri-enpleguak izandako atzeraldia (%-7,6), nabarmen kontrastatzen duena Bizkaian enplegu mota hori egonkortu eta Araban hobetzearekin.

Ikus daitekeenez, industria-enpleguaren joera negatiboak, oro har, sozietate laboralen bilakaera negatiboarekin du zerikusia. Kasu guztietan jaitsierak %10 ingurukoak edo altuagoak izan dira, eta 2004-2006 biurtekoan ez bezala, SAL motako sozietateei zein SLL motakoei eragin diete. Ildo horretan, SAL sozietateetan enpleguaren jaitsieraren fenomeno 2004 eta 2006 artean zegoeneko oso hedatua baldin bazegoen, hori izanik formato juridiko horretako establezimenduak desagertzeko joera orokorraren adierazlea, industriaren alorreko SLL sozietateen bilakaera negatiboa berez gehiago da 2006-2008 epeko ezaugarrietako bat. 2004 eta 2006 artean Bizkaian SLL sozietateen enpleguan izan den %1,6ko jaitsierak, ordea, antzemandako prozesua aurrera zezakeen.

Sozietate laboralen ibilbide txarraz gain, beste faktore erabakigarri bat da Gipuzkoako kooperatiben industria alorreko enpleguan izandako jaitsiera. Jaitsiera horrek, berez, euskal gizarte-ekonomiaren industria-enpleguak 2006 eta 2008 artean jasandako jaitsieraren %51,3 baino ez du azaltzen. Sozietate laboralei dagokien zatia gehitzen baldin bazaio, egiaztatzen da Gipuzkoako industriak industria-enpleguak EAEn 2006 eta 2008 artean izandako murrizketa osoaren %63,5 biltzen duela.

3.6 taula

INDUSTRIAREN ALORREKO ENPLEGUAREN BANAKETA, FORMA JURIDIKOAREN ETA BILAKAERAREN ARABERA. 2006-2008

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	c.a.	Δ06-08	c.a.	Δ06-08	c.a.	Δ06-08
Kooperatibak	1.694	+5,0	5.855	+0,3	15.780	-7,6
SL sozietateak	834	-13,9	2.414	-24,6	3.346	-8,5
SAL	633	-14,3	1.904	-27,7	1.848	-10,4
SLL	201	-12,6	510	-10,1	1.498	-5,9
GUZTIRA	2.528	-2,1	8.269	-8,5	19.126	-7,8

Era berean, gizarte-ekonomiaren enpleguaren lurralde-profilaren analisia egiteak lurralde bakoitzaren sektore enpleguaren barruan gizarte-ekonomiari dagokion pisu erlatiboari hurbilketa zehatzagoa egiteko eskatzen du. 3.7. taulan lurralde eta sektore bakoitzeko emaitzak azaltzen dira zehatz-mehatz, eta horien ezaugarri nagusienak honakoak dira:

- **Gipuzkoan 100 enplegutatik %9,7, oro har, gizarte-ekonomiaren establezimenduei dagokie.** Dena dela, gizarte-sektorearen enpleguaren pisu espezifikoa askoz handiagoa da **industriaren kasuan**. Kasu horretan, **gizarte-ekonomiaren establezimenduek Gipuzkoako industriak sortutako 100 enplegutatik 20,2 biltzen dituzte**. Proportzioa %5,8koa da zerbitzuetan, eta %3,1era jaisten da eraikuntzaren enpleguen kasuan eta %0,4ra lehen sektoreko enpleguen kasuan.

Zerbitzuetan izan ezik, adierazle horiek 2006 eta 2008 artean jaitsiera eman dela jasotzen dute, deigarria batez ere industriaren kasuan (%21,9tik %20,2ra).

- Bizkaian **gizarte-ekonomiaren industria-sektoreak lurraldearen ekonomian duen pisu espezifikoa, %7,6, gainerako sektoreen pisua bainoa askoz handiagoa da**, eta nabarmen gaitzen du zerbitzuen sektoreari dagokion pisua (%4,3). Parte hartzea %2,1era jaisten da eraikuntzan eta %1,6era lehen sektorean.

Kasu honetan joerak Gipuzkoako joeren antzekoak dira, eta nabarmendu egin behar da industriaren protagonismoaren galera. Hori horrela, lurraldearen enplegu osoan 2006ko %8,7tik 2008ko %7,6ra jaitsi da.

- Arabian, industria da ekonomia orokorrean pisu espezifiko handiena duen jarduera-sektorea, nahiz eta Arabako industriak sortutako enplegu osoaren %5,1 baino ez izan, kasu horretan ere 2006an antzemandako %5,7aren azpitik. Proportzioa %4koa da zerbitzuetan, %3,1koa eraikuntzan eta %3,7koa nekazaritzan.

Adierazitako ezaugarriak, zalantzarik gabe, agerian jartzen dute gizarte-ekonomiak euskal industrian duen oinarritzko zeregina, batez ere Gipuzkoan (bertan industriaren alorreko bost enpleguetatik bat gizarte-ekonomiaren barrukoa da) baina baita gainerako lurraldeetan ere, azken kasu horretan gizarte-ekonomiaren parte hartzea industria-enplegu osoan beti %5etik gorakoa da. Kopuruak ere oso adierazgarriak dira, eta %4 eta %6 bitarte kokatzen dira, lurralde guztietako zerbitzuen sektoreari dagokionez.

Baina, era berean, deskribatutako emaitzek ezagutzera ematen dute kooperatiben alorreko industriaren garrantzi erlatiboaren galera EAEko industria orokorrean. Horren erakusgarri da 2006an gizarte-ekonomiaren industriak euskal ekonomian biltzen zuen %13,2tik egungo %11,9ra pasatzeko erregistratu den jaitsiera. Gizarte-ekonomiaren zerbitzuen pisuak joera negatibo hori adierazten ez badu ere, 2006an enplegu osoaren %4,6 izatetik 2008an %4,7 izatera pasatu baita, bilakaera horrek ez du inolaz ere industriaren bilakaera negatiboa indargabetzeko balio izan.

3.7 taula

GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPLEGUEN ARLOZ ARLOKO BANAKETA, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. (duen garrantzi erlatiboa,%, euskal ekonomia osoari dagokionez). 2008

EAE

	Gizarte-ekonomia	Euskal ekonomia guztira	Garrantzi erlatiboa ehunekotan
Lehen sektorea	220	12.200	1,8
Industria	29.922	252.300	11,9
Eraikuntza	2.120	82.900	2,6
Zerbitzuak	30.353	639.600	4,7
GUZTIRA	62.615	987.100	6,3

ARABA

	Gizarte-ekonomia	Euskal ekonomia guztira	Garrantzi erlatiboa ehunekotan
Lehen sektorea	117	3.200	3,7
Industria	2.528	49.200	5,1
Eraikuntza	330	10.500	3,1
Zerbitzuak	3.492	87.300	4,0
GUZTIRA	6.467	150.200	4,3

3.7 taula (jarraipena)
GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPLEGUEN ARLOZ ARLOKO BANAKETA, LURRALDE HISTORIKOAREN
ARABERA. (duen garrantzi erlatiboa,% euskal ekonomia osoari dagokionez). 2008

BIZKAIA

	Gizarte-ekonomia	Euskal ekonomia guztira	Garrantzi erlatiboa ehunekotan
Lehen sektorea	87	5.300	1,6
Industria	8.268	108.300	7,6
Eraikuntza	947	45.300	2,1
Zerbitzuak	15.151	351.800	4,3
GUZTIRA	24.454	510.600	4,8

GIPUZKOA

	Gizarte-ekonomia	Euskal ekonomia guztira	Garrantzi erlatiboa ehunekotan
Lehen sektorea	16	3.800	0,4
Industria	19.126	94.800	20,2
Eraikuntza	843	27.200	3,1
Zerbitzuak	11.709	200.500	5,8
GUZTIRA	31.694	326.300	9,7

Konparaziorako iturria: Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA), Eustat 2008

3.2.- BEG BALIOAREN ETA PRODUKTIBITATE ANTZEMANGARRIAREN LURRALDE-PROFILA

2006 eta 2008 artean BEG balioaren bilakaeraren dinamika hiru lurraldeetan oso desberdina izan da, eta adierazlearen bilakaeran joera positiboak zein negatiboak antzeman ahal izan dira.

Alderdirik aldekoenean ikusten da Araba eta Bizkain BEGak bilakaera positiboa izan duela; 2006 eta 2008 artean bi lurraldeetan %6 hazkunde nominala izan da gutxi gorabehera. Hala eta guztiz ere, BEGaren hazkunde-erritmoa 2004-2006 biurtekoan baino moderatuagoa izan da, Araban bereziki, epe hartan %39,1eko hazkundea izan zuen eta (%9,7 Bizkaian). Polo negatiboan kokatuta, Gipuzkoak, bere aldetik, %5,4ko atzerapena izan du BEGaren bilakaeran 2006 eta 2008 artean, 2004 eta 2006 artean erregistratutako %23,3ko hazkundearekin zeharo kontrastatuz.

Egiazta daitekeenez, azkenaldiko datuek adierazten dute, hortaz, kasu guztietan murrizketa nabarmena eman dela BEGaren hazkundearen erritmoari dagokionez, eta, Gipuzkoan, jaitsiera nominalak ere izan direla.


Gipuzkoari buruzko datu txarrek zerikusi estua dute industriaren eta kooperatiben emaitzak nabarmen hondatzearekin. Hain zuzen ere, Gipuzkoako kooperatibek, 2008an EAEko BEG globalaren %49,5 biltzen bazuten ere, BEGaren %6,2 galdu dute 2006 eta 2008 artean. Kopuru hori oso bestelakoa da Arabako eta Bizkaiko kooperatiben sektorean izandakoekin alderatuz gero, bi lurralde horietan hazkundea eman baita, %7,1koa eta %9,2koa, hurrenez hurren.

Arabako kooperatibismoaren bilakaera onari gehitu behar zaio Arabako SLL motako sozietateetako BEGan erregistratutako %23,5eko hazkundera, lurralde horretan SAL motako sozietateen BEGan izandako %9,9ko jaitsiera konpentsatzeko. Bizkaian, kooperatiben sektorearen hazkundera kasu honetan konpentsatu egiten du sozietate laboralen bilakaera globala negatiboa izatea (%-2,6 SLL sozietateetan eta %-4,5 SAL motakoetan, 2006 eta 2008 artean). Gipuzkoak, bere aldetik, SAL sozietateen BEGaren jaitsiera nozitu du, %1,3, baina SLL sozietateen kasuan, berriz, BEGa %10,8 hazi da.

Bere osotasunean, gizarte-ekonomiaren BEG globalaren bilakaera 2008an oso baldintzatua egon da Gipuzkoako kooperatiben BEGaren jaitsiera dela eta, batez ere industriaren alorrean eman dena. Hori horrela, Bizkaia eta Araba 2006. ekitaldiarekiko BEGaren mailak haztea lortu arren, Gipuzkoak (BEG terminoetan tradizioz eragile izan dena) izandako atzerapenaren ondorioz jaitsiera orokorra eman da EAEko gizarte-ekonomiaren BEG osoan (%-0,5ekoa 2006 eta 2008 artean, termino nominaletan).

Azkenaldian jaitsiera izan arren, 2008. urtean Gipuzkoa izan da, berriro ere, EAEko gizarte-ekonomiako BEG balioaren erdia baino gehiago sortu duena, horren %55,1 bilduta (2006an %57,9). Bizkaiko enpresa-establezimenduek BEGaren %33,4 sortu dute, eta Arabakoek, berriz, %11,4, bi kasuetan 2006ko kopuruen gainetik (%31,4 eta %10,7).

3.4 irudia
GIZARTE-EKONOMIAREN BEG BALIOAREN LURRALDE-BANAKETAREN BILAKAERA. 2006-2008



Aurreko urteetan bezala, forma juridikoaren arabera lurralde-azterketak erakusten du Gipuzkoan BEG balioaren kontzentrazio erlatibo handiena kooperatiben kasuan ematen dela. Kasu horretan, kooperatiben BEG osoaren %57,8 lurralde horretan biltzen da oraindik ere. Dena dela, lurralde historiko guztietan bilakaera desberdina izateak (Gipuzkoako kooperatiben sektorean izandako jaitsierak kontrastatu egiten du azkenaldian Araban eta Bizkaian izandako aurrerapenekin) eragiten du gainerako lurraldeen pisu erlatiboa handitzea kooperatiben BEGari dagokionez (%10,8tik %11,6ra Araban eta %27,9tik %30,6ra Bizkaian, 2006 eta 2008 artean).

Bestalde, Gipuzkoako SLL sozietateetan BEGaren goranzko bilakaera argia izateak ahalbidetu dio lurralde horri forma juridiko mota horretan lehenengo tokian kokatzea: sortutako BEGaren %44,3, Bizkaian sortutako %42,2aren eta Arabako %13,6aren aurrean.

Bizkaiak, bere aldetik, sozietate laboraletan lehenengo tokia SAL motako sozietateetan baino ez du mantentzen, BEGaren %54,5 bilduta, Gipuzkoako %36,3aren eta Arabako %9,2aren aurrean. Hala ere, forma juridiko horrek erreferentziazko epean joera negatibo argia erakutsi du BEG terminoetan, %3,9ko jaitsiera globalarekin 2006 eta 2008 artean EAE osoan.

3.8 taula
GIZARTE-EKONOMIAREN BEG BALIOAREN LURRALDE-BANAKETA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. 2008
(c.a. eurotan. % v.)

	EAE		S.KOOP.		SAL		SLL	
	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.
Araba	335.032.878	11,4	290.346.188	11,6	26.006.637	9,2	18.680.053	13,6
Bizkaia	978.913.530	33,4	767.041.070	30,6	153.758.499	54,5	58.113.962	42,2
Gipuzkoa	1.613.790.585	55,1	1.450.215.653	57,8	102.601.566	36,3	60.973.365	44,3
GUZTIRA	2.927.736.993	100,0	2.507.602.910	100,0	282.366.703	100,0	137.767.380	100,0

Lurralde bakoitzaren barruan, kooperatiben nagusitasuna BEG balioaren kontzentrazioan oso adierazgarria da eta hiru lurraldeetan sortutako enpleguan antzematen zena baino handiagoa da. Araban eta Gipuzkoan nagusitasun hori %85 eta %90 kopuruetan kokatzen da (%89,9 Gipuzkoan eta %86,7 Araban). SAL sozietateek sortutako BEG balioan parte hartze handiena duten lurraldea Bizkaia da (%21,6, beheranzko joera hartuta 2006ko %23,9ari dagokionez).

3.9 taula
BEG BALIOAREN LURRALDE-BANAKETA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. 2008 (% h.)

	GUZTIRA	S.KOOP.	SAL	SLL
Araba	100	86,7	7,8	5,6
Bizkaia	100	78,4	15,7	5,9
Gipuzkoa	100	89,9	6,4	3,8
GUZTIRA	100	85,6	9,6	4,7

Lurralde historikoaren eta jarduera-sektorearen arabera BEGaren banaketari dagokionez, daturik esanguratsuena da Gipuzkoan industria-sektoreak duen pisu nabaria, sektore horrek bere gain hartzen baitu lurralde horretako gizarte-ekonomiak sortutako BEGaren %69,8a. Beste bi lurraldeetan, ordea, zerbitzuak industria-sektorearen gainetik daude, Gipuzkoan sortutako BEG osoaren %56,7 eta Araban %60,1, hain zuzen ere.

BEGaren bilakaera hiru lurraldeetan antzekoa izan da zerbitzuen sektorean, hazkundeak Arabako %8,2, Bizkaiko %11,3 eta Gipuzkoako %10,1 artekoak izanik. Kopuru horiek kontrastatu egiten dute industriaren alorreko BEGaren kopuru negatibo samarrekin. Baina, Araba eta Bizkaian industriaren BEGa nolabait ez aurrera ez atzera gelditu den bitartean, hazkundeak oraindik positiboak izanik, %0,4tik %0,9ra, Gipuzkoan adierazlea %10,3 erori da. Azken lurralde horretan zerbitzuen eta industriaren bilakaera aurkakoa izateak azaltzen du Gipuzkoak BEGari egiten dion ekarpena ia lau puntutan jaitea, 2006ko %73,7tik 2009ko %69,8ra.

3.10 taula
GIZARTE-EKONOMIAREN BEGaren ARLOZ ARLOKO BANAKETA, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA 2008.
(c.a. eurotan, % v.)

	EAE		ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	C.a.	%v.	C.a.	%v.	C.a.	%v.	C.a.	%v.
Lehen sektorea	5.884.834	0,2	3.437.276	1,0	2.356.356	0,2	91.202	0,0
Industria	1.630.259.085	55,7	114.057.685	34,0	389.434.610	39,8	1.126.900.517	69,8
Eraikuntza	75.954.040	2,6	16.308.781	4,9	32.114.780	3,3	27.530.480	1,7
Zerbitzuak	1.215.505.308	41,5	201.229.137	60,1	555.007.785	56,7	459.268.386	28,5
GUZTIRA	2.927.603.267	100,0	335.032.878	100,0	978.913.530	100,0	1.613.790.585	100,0

Lurralde bakoitzeko gizarte-ekonomiaren alorreko enpresen produktibitate antzemangarriari dagokionez, EAEn nolabaiteko hazkundera eman da termino nominaletan 2006 eta 2008 artean. Hori horrela, 2008an enplegu bakoitzeko produktibitate antzemangarria 46.800 eurokoa da, 2006ko 46.700 euroen aurrean.

Baina, daturik deigarriena da produktibitate erlatibo handienarekin duten bi lurraldeetan antzematen den jaitsiera nominala. Araban %1,9 jaitsi da produktibitatea eta Gipuzkoan⁹ jaitsiera %2,7ra ere iritsi da. Bizkaiak baino ez du adierazlea igotzea lortu, %6,1, eta bilakaera positibo horrek ekarri du 2006 eta 2008 artean EAE osoan termino nominaletan produktibitate-mailak %0,2 igotzea.

Hala ere, Bizkaian produktibitatea igotzea loturik dago, neurri handi batean, orain arte antzemandako mailak askoz apalagoak izatearekin, hain zuzen ere lurraldea gainerako lurraldeekin alderatuta askoz beherago kokatzen dutenak. Hori horrela, Araban eta Gipuzkoan enplegu bakoitzeko batez besteko produktibitatea 51-52.000 euro den bitartean, Bizkaia 2008an oraindik 40.000 eurotan kokatzen zen enplegu bakoitzeko.

Azpimarratu beharreko beste alderdi bat honako hau da: lurralde guztietan 2006-2008 biurtekoaren erregistroek oso jaitsiera handia erakusten dutela 2004-2006 epean izan ziren hazkunde-kopuruekin alderatuta (%16 Bizkaian eta %20tik gorako kopuruak Araba eta Gipuzkoan).

3.11 taula
PRODUKTIBITATE ANTZEMANGARRIA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA 2004-2008.
(Euro kopurua, milakotan /Enplegatua)

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
2004	43,8	32,5	42,7	40,2
2006	52,8	37,7	52,3	46,7
2008	51,8	40,0	50,9	46,8

⁹ Gipuzkoan gizarte-ekonomiaren produktibitatearen jaitsiera handia lotutik dago BEG terminoetan izandako jaitsiera erlatiboa enplegu terminoetan izandakoa baino handiagoa izatearekin (%-5,4%, %-2,7aren aurrean).

Aurreko taulan enplegu bakoitzeko batez besteko produktibitate-mailei buruz adierazitako aldeak lurralde bakoitzeko enpresa-establezimenduen enpresa-profil desberdinen isla besterik ez dira, baita gizarte-ekonomiaren enpresa-egitura osoak azken urteotan izandako bilakaerarena ere. Lurraldeen arabera, ondorengo alderdiak azpimarra daitezke:

Bizkaia

Bizkaiaren kasuan, batez besteko produktibitatea askoz txikiagoa da gainerako lurraldeetan baino; izan ere, lurralde horretan sozietate laboralek pisu espezifiko handia dute, SAL sozietateek batez ere, eta horien batez besteko produktibitatea txikiagoa izaten da (28.700 euro/enpleguko SLL sozietateetan eta 37.900 euro/enpleguko SAL sozietateetan 2008an, EAEko kooperatibetan 49.800 zen bitartean).

Lurralde horretako ezaugarri garrantzitsu bat da bertan 2006 eta 2008 artean forma juridiko guztiak hazi egin direla produktibitateari dagokionez, %3,8 SAL sozietateetan eta %6 eta %6,3 bitarte kooperatiba eta SLL sozietateetan, hurrenez hurren. Errealitate horrek, neurri handi batean, erantzun egiten dio hirugarren sektoreko BEGaren bilakaerari eta lurraldean duen parte hartze handiari (%56,7 Bizkaiko BEG osoan 2008. urtean).

Dena dela, 2006. urtearekin alderatuta Bizkaiko kooperatibetan eta SLLetan antzeman den antzeko hazkunde horrek ez du benetako errealitatea ikustea galarazi behar, hazkunde hori prozesu desberdinetan oinarritzen baita. Kooperatiben kasuan, produktibitatearen hazkundea BEGaren hazkundea (%9,2) enpleguaren sorkuntzan (%3) emandakoa baino handiagoa izatearen ondoriozkoa da. Aitzitik, produktibitatearen hazkundea SLL sozietateetan enpleguan izandako galera (%-8,3) sortutako BEGan izandako atzerapena (%-2,6) baino handiagoa izatearen ondoriozkoa da. SLL sozietateetan bezala, produktibitatearen hazkundeak SAL sozietateetan ere zerikusia du izandako enplegu galera (%-8,2) BEGan izandako atzerapena (%-4,5) baino handiagoa izatearekin.

Gipuzkoa

Gipuzkoako produktibitate-mailak altuak dira 2008an, 50.900 euro enplegu bakoitzeko, tamaina handiagoko industria-enpresak daudelako, oro har kooperatiben forma juridikoan egituratuak.

Hala ere, azken bi urteotan Gipuzkoako kooperatiba sozietateen bilakaera ez da ona izan. Era horretan, Gipuzkoako produktibitate antzemangarri globala atzeratu izana loturik dago, neurri handi batean, kooperatiben emaitzetan eta horien produktibitate antzemangarrian nozitu den atzerapenarekin. Establezimendu horiek 2006an enplegu bakoitzeko 56.100 euro sortzetik 2008. urtean 53.600 euro sortzera pasatu dira.

Sozietate laboralek, ordea, 2006 eta 2008 artean nabarmen handitu dute produktibitate antzemangarria, %9,9 SAL sozietateetan eta %17,2 SLLetan. Hala eta guztiz ere, produktibitatearen hazkunde horrek zerikusia du Gipuzkoako sozietate laboraletan enplegua asko jaistearekin (%-8,5, 2006 eta 2008 artean).

Araba

2008an Araba lehenengo tokian kokatu da produktibitatearen adierazle orokorrean, enplegu bakoitzeko lortutako 51.800 euroekin. Kasu horretan, batez besteko produktibitatea ere altua da lurraldearen barruan hirugarren sektoreko kooperatiba handiek duten garrantziarengatik.

Nolanahi ere, Araban, Gipuzkoan bezalaxe, produktibitate antzemangarriaren atzerapen orokorra eman dela ikus daiteke. Hori azaltzen duen faktorea, bakarra, da kooperatibek sortutako batez besteko produktibitatea jaitsi egin dela (%-4,9, SAL sozietateetan izandako %5,6ko eta SLLetan izandako %14,1eko hazkundearen aurrean).

Arabako kooperatiben produktibitate antzemangarrian izandako atzerapenaren zergatia eta Gipuzkoakoetan izandakoarena desberdinak dira. Gipuzkoako kooperatibetan bilakaera negatiboa eman da bai BEGari bai enpleguari dagokienez (%-6,2 lehenengo kasuan eta %-1,8 bigarreanean): Araban, ordea, kooperatiben alorreko enplegua asko handitu den testuinguruan (%12,7), BEGaren hazkundera, nabarmena izan arren, konparazioz txikiagoa da (%7,1).

3.12 taula
LURRALDE-PRODUKTIBITATE ANTZEMANGARRIA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. 2008
(Euroak/Enplegatua)

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
S. Koop.	55.800	42.400	53.600	49.800
SAL	35.700	35.300	43.300	37.900
SLL	34.900	28.700	27.200	28.700
GUZTIRA	51.800	40.000	50.900	46.800

Nolanahi ere, forma juridikoa kontuan hartuz gero, hiru lurraldeetan produktibitate-mailak askoz altuagoak dira kooperatiben kasuan, eta magnitude handieneko diferentziala Arabako lurraldearena da.

Arabako kooperatibek (55.800/enplegu bakoitzeko) eta Gipuzkoakoek (53.600/enplegu bakoitzeko) produktibitate-ratio altuenak dituzte. Bitarteko toki batean, enplegu bakoitzeko 40-50.000 euro ingururekin, Bizkaiko kooperatibak eta Gipuzkoako SAL sozietateak ditugu, eta azkenik, Arabako eta Bizkaiko SAL sozietateak ditugu, enplegatu bakoitzeko 35.000 euroekin, Arabako SLL sozietateak bezala. Produktibitate baxuenak, 30.000 euro inguru edo gutxiagorekin, Bizkaiko eta Gipuzkoako SLL sozietateek lortu dituzte.

4.- GIZARTE-EKONOMIAREN ESPORTAZIOAK


4. atal honetan euskal gizarte-ekonomiaren kanporako irekitze-maila aztertuko da, horretarako hainbat adierazle kontuan hartuta, hala nola esportazio bolumena eta horrek negozio kopuru globalean duen pisu erlatiboa. Adierazle horietan ematen diren aldaketak, neurri handi batean, jarraian analizatuko diren faktore batzuen mende daude, forma juridikoa edo enpresen tamaina, esate baterako.

2008an gizarte-ekonomiaren alorreko enpresen esportazioen bolumena termino absolutuetan 2.425,6 milioi eurokoa zen. Horrek esan nahi du 2004 eta 2006 artean erregistratutako %33ko hazkundearen aurrean jaitsiera eman dela, baina kopuru horrek oraindik %8,3ko hazkundera suposatzen du 2006an erregistratutako 2.239,4 milioien aurrean. Era horretan, azken urteetan kanpoko eskaeraren hazkundera mantsotu den arren, sektoreko esportazioen goranzko joera mantendu egin da 2006-2008 biurtekoan. Bilakaera horrek islatzen du euskal gizarte-ekonomiaren alorreko enpresa eta establezimenduak merkatu berrietara sartzeak duen garrantzi ekonomikoa.

Gizarte-ekonomiaren fakturazio osoan, esportazioen pisu erlatiboaren joera goranzkoa da oraindik ere. 2004 eta 2006 artean ehuneko 2,4 puntuko hazkundera izan ondoren, 2006 eta 2008 artean adierazlea 1,4 puntutan handitu da. Hazkunde horrek esportazioek fakturazioan duten parte hartzea %24,9 izatea ekarri du, estatistika egiten denetik inoiz izan den proportziorik altuena.

Esportazioek fakturazioan duten parte hartzearen azkenaldiko bilakaerak ahalbidetu egiten du adierazle honek gizarte-ekonomian epe luzera duen goranzko joerari berriro heltzea, hain zuzen ere estatistikaren hasieratik antzeman den joera. 2002-2004¹⁰ biurtekoan jaitsiera handia izan ondoren, azkenaldiko hazkundearen ondorioz aldeztu aurretik lortutako maximoa ere gainditu ahal izan da. Maximo hori 2002. urtean eman zen, eta esportazioen pisua fakturazioaren gainean %24,1 zen.

4.1 irudia
KANPOKO MERKATUETARAKO IREKITZE-MAILAREN BILAKAERA (esportazioen bolumena fakturazio osoaren gainean). 1994-2008




¹⁰ Esportazioek fakturazioan duten pisua erreferentziazko epean %24,1etik %21,1era jaitsi da. Kopuru hori 1998 eta 2000. urteetako erregistroak (zegoeneko %22tik gorakoak) baino beherago dago.

Gizarte-ekonomiaren industria-egiturak profil esportatzaile handia du, hori izanik lehiakortasunaren eta merkataritza sendotasuna bermatzen duen faktoreetako bat. Kanpoko merkatuera irekitzeko profil hori osatuz doa, gero eta gehiago, kanpoko merkatuetan establezimendu berriak irekitzearekin.

Hain zuzen ere, gizarte-ekonomiaren aurrerapen ekonomikoa loturik dago, zati handi batean, enpresa edo establezimendu esportatzaileen bilakaerarekin¹¹. 2008an 255 enpresak osatzen zuten kolektibo hori —gizarte-ekonomia osoaren enpresen %12 eta industriaren alorreko enpresen %36,8—. 2008an esportazioen bolumenak enpresa horiei zegokien fakturazioaren %48,8 biltzen zuen. Esportazioak enpresa-establezimendu esportatzaileen fakturazio osoarekin erlazionatzen duen ratioak adierazten du, gainera, 8,9 puntuko hazkundera izan zela 2004. urtearekiko, gizarte-ekonomia osoaren 3,8 puntuen gainetik.

4.2 irudia
ESPORTAZIOEK ENPRESA ESPORTATZAILEEN FAKTURAZIO OSOAREN GAINEAN DUTEN PISU ERLATIBOAREN BILAKAERA




Euskal gizarte-ekonomiaren esportazioak, gehienbat, Europara egiten dira, kopuru osoaren %80,8 bertara esportatzen baita. Horrek aurrerapen handia adierazten du 2006ko %74,8 eta 2004ko %75,5 kontuan hartzen baditugu. Horretaz gain, nabarmentzekoa da Asiara egiten diren esportazioen pisu erlatiboa (%7,8), 2004ko datuekin alderatuta %5,3ko hazkundera suposatzen duena. Europako eta Asiako merkatuetara gehiago ireki izana Amerika eta mundu osorako esportazioen kaltetan doa, ehuneko 4,3 eta 6,2 puntuetako jaitsierak izan baitira 2004 eta 2008 artean euskal gizarte-ekonomiak merkatu horietara bideratzen dituen esportazioetan.

¹¹ EAEko gizarte-ekonomiaren Estatistikaren ondorioetarako, establezimendu esportatzaileetat hartzen da EAEn dagoen establezimendua, eta egoitza soziala edonon dagoela ere, bere salmenten zati bat behintzat Espainiako merkatuetatik kanpo egiten dituen. Estatistikan, deslokalizazio kontzeptua esaten zaio enpresa-establezimendu berriak kanpoko merkatuetan zuzenean sortzeari.

Jaitsiera handiena, Amerikan, Estatu Batuei dagokie. Herrialde horretarako esportazioak 2004an %3,5 izatetik, 2006an %5,1 eta 2008an ozta-ozta %1 izatera pasatu dira. Bilakaera horretan ez da ahaztu behar Estatu Batuek mundu osoan ematen ari den finantza krisian duten epizentro papera. Aitzitik, 2004 eta 2006 artean %8,7tik %5,6ra murriztu ondoren, Erdialdeko Amerika eta Hego Amerikarako esportazioak %6,9ra handitu dira 2008an.

4.3 irudia
GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPRESEN ESPORTAZIOEN NORAKOA. 2008
(norakoaren araberrako esportazio guztien %)



Hain zuzen ere, Erdialdeko Amerika eta Hego Amerikarako esportazioak dira azken urteotan joera onena erakutsi dutenak. 2004 eta 2006 artean %14,2 murriztu ondoren, 2006 eta 2008 artean goranzko joera hartu dute eta %32,8 igo dira.

Epe luzera esportazioak handitzeko joera egon arren, hazkunde-erritmoak oraindik oso azkarrak izanik, Europa eta Asiarako esportazioen inguruko daturik esanguratsuena da 2006 eta 2008 artean izandako hazkundea mantsotu izana. 2004 eta 2006 artean esportazioen kopuruan %257,3ko hazkundeak izatetik Asian %26,2ko mailak izatera pasatu da (%32,1etik %17ra Europan). Dena dela, 2004 eta 2008 artean Asiarako esportazioen bolumen osoa %350,7 hazi da eta Europarakoa %54,5, Erdialdeko eta Hego Amerikarako esportazioen %14aren gainetik.

Europa, Asia eta Amerikarako esportazioen epe luzerako joera positibo horren aurrean, esportazioen kopurua Estatu Batuei dagokienez %58,5 eta munduko gainerako lekuen kasuan %47,5 murriztu da 2004 eta 2008 artean.

4.1 taula
ESPORTAZIOEN BOLUMENA, ZONAREN ETA BILAKAERAREN ARABERA

	c.a. 2004	c.a. 2006	c.a. 2008	Δ08/06	Δ08/04
Europa	1.268.319.133	1.675.104.241	1.959.861.909	%17,0	%54,5
Asia	41.997.322	150.042.760	189.287.966	%26,2	%350,7
AEB	58.796.251	114.211.653	24.409.658	%-78,6	%-58,5
Hegoaldeko Amerika	146.150.682	125.408.874	166.542.425	%32,8	%14,0
Beste batzuk	162.949.611	174.676.645	85.507.342	%-51,0	%-47,5
GUZTIRA	1.679.892.892	2.239.444.173	2.425.609.299	%8,3	%44,4

4.1.- ESPORTAZIOAK, JARDUERA-SEKTORE, FORMA JURIDIKO ETA ENPRESEN TAMAINAREN ARABERA

Esportazioek euskal gizarte-ekonomiaren fakturazioan duten paper garrantzitsua dela eta, interesgarria da enpresa eta establezimendu esportatzaileek dituzten ezaugarriak sakon aztertzea. Horri buruz, azpimarratu beharreko lehenengo datua da, aurreko ekitaldietan bezalaxe, esportazioen bolumena ia osorik industria-enpresa eta establezimenduetan kontzentratzen dela oraindik ere. Zentro horiek esportazio guztien %98,5 hartzen dute bere gain.

Industriaren barruan, esportazioek fakturazio kopuruan zuten pisu erlatiboa %45,7 zen, 2004. urtean lortutako portzentajearen 9,1 puntu gainetik. Zerbitzu-enpresen kanpora ateratzea, berriz, oso murritza da, negozio kopurua %0,8 besterik ez baita izan, 2004. urtean esportazioen ematen zuten %0,9aren azpitik.

Zerbitzuen sektorean azkenaldian izandako bilakaera bereziki negatiboa izan da, esan behar baita esportazioen kopuruan %40,8ko jaitsiera eman dela, 2004 eta 2006 artean erregistratutako %116,4ko hazkundearekin kontrastatuz. Hala eta guztiz ere, oro har, zerbitzuen sektoreko esportazioak 2008an 2004. urteko kopuruaren gainetik daude oraindik ere, %28,1 gorago, baina 2004-2008 epean industriari dagokion %44,7ko hazkundearen azpitik. Sektore horretan nabaritzen da, era berean, 2006-2008 epean eman den mantsotze-prozesua. Hori horrela, industriaren alorreko esportazioen erritmoa 2004 eta 2006 artean %31,9 izatetik %9,7 izatera pasatu da 2006 eta 2008 artean.

4.2 taula

GIZARTE-EKONOMIAREN ESPORTAZIOEN ARLOZ ARLOKO BANAKETA.
(c.a. euro kopurua, milakotan, % v.) ETA NEGOZIO ZIFRAREN GAINEKO PISU ERLATIBOA (c.a., %v.)

	ESPORTAZIOAK		PISU ERLATIBOA /NEGOZIO ZIFRAREN arabera
	c.a.	%v.	%
Industria (*)	2.389.501.570	98,5	45,7
Zerbitzuak	36.107.730	1,5	0,8
GUZTIRA	2.425.609.299	100	24,9

(*)

Eraikuntza ez dago sartua.

Aurreko ekitaldietan bezalaxe, kooperatibak dira kanpo merkatuetara gehien ireki direnak, horrela adieraziz kooperatiben sektoreak esportazio prozesuetan duen zeregin garrantzitsua. Hori horrela, oro har, esportazioen %93,9 kooperatiba sozietateei dagokie, eta SAL eta SLL sozietateei, berriz, %5,4 46a %0,6, hurrenez hurren.

Forma juridikoaren arabera, esportazioen pisuaren banaketa sektoreka eginez gero ez da funtsezko alderik ikusten. Bai industrian bai zerbitzuetan esportazioen %90etik gora kooperatiben sektoreari dagokio.

Hala eta guztiz ere, esportazioen bilakaera orokorra batez ere loturik dago industriaren alorreko kooperatibek izandako bilakaera positiboarekin. Hori horrela, industriaren alorreko kooperatibek joera hobea mantendu dute esportazioen bilakaerari dagokionez, %9,9ko hazkundea izanik 2006. urtearekiko. Horrek ahalbidetu egin die 2008an gizarte-ekonomiari dagozkion esportazio guztien %92,6 biltzea.

Industriaren alorreko SAL sozietateek 2006-2008 epean %4,2ko hazkundea izan dute esportazioen dinamikan, eta esportazioen %5,4 bildu dute. Zerbitzuen kooperatibei %1,3, industriaren alorreko SLL sozietateei %0,5 eta %0,2 zerbitzuen sektorean diharduten sozietate laboralei. Forma juridiko guztietan azken biurtekoan zerbitzuen sektoreko esportazioak jaitea izan bada ezaugarri nagusia, industriaren alorreko SLL sozietateek 2006 eta 2008 artean %55,4ko hazkundea izan dute esportazioei dagokionez.

Kooperatiben barruan, erabakigarria da kooperatiben sektoreko industriaren alorreko enpresa eta establezimendu handien pisu esportatzailea. Kolektibo horrek kuantitatiboki gizarte-ekonomia osoaren esportazioen %75 inguru bideratzen ditu, eta bereziki Mondragón Corporación Cooperativa taldearen ekarpena aipatu behar da. Hori horrela, MCC taldearen barruan, industriaren alorreko salmentak kanpoko merkatuetan industria sektoreak¹² fakturatutako kopuru osoaren %58,2 adierazten dute. Portzentaje horrek nabarmen gaitzen du gizarte-ekonomiaren industria globalaren sektorearen %45,7a.

Mondragón Corporación Cooperativa taldearen esperientzia kontuan hartuta, garrantzitsua da gogoraraztea EAEko gizarte-ekonomiaren alorreko enpresetan burutzen ari den nazioartekotzeko prozesuaren eragina, eta eragin hori ez dagokio soilik esportazioen bolumenaren hazkunderari. Kanpoko merkatuetara irekitzeko prozesua deslokalizazio¹³ prozesu deigarriei ere badagokie.

4.3 taula
GIZARTE-EKONOMIAREN ESPORTAZIOEN ARLOZ ARLOKO BANAKETA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA
(c.a. euro kopurua, milioitan eta, % h)

	GUZTIRA		S. Koop.		SAL		SLL	
	c.a.	%h.	c.a.	%h.	c.a.	%h.	c.a.	%h.
Industria	2.389.501.570	100	2.246.270.869	94,0	130.684.623	5,0	12.546.077	%1,0
Zerbitzuak	36.107.730	100	32.503.650	90,0	1.283.648	3,6	2.320.432	6,4
GUZTIRA	2.425.609.299	100	2.278.774.520	%93,9	131.968.271	%5,4	14.866.509	%0,6

(*) Eraikuntza ez dago sartuta.


¹² Kasu honetan, informazio iturria Mondragón taldeko "Sala de Prensa web" aretoa da.

¹³ 2008an, MCC taldeak hamar planta berri ireki zuen nazioarteko eremuan, eta horrela 2000. urtean atzerrian 26 produkzio planta izatetik 2008an 73 izatera pasa zen, 16 herrialde desberdinetan kokatuta: Txina (13), Frantzia (9), Polonia (8), Txekiar Errepublika (7), Mexiko (7), Brasil (5), Alemania (4), Italia (4), Erresuma Batua (3), Errumania (3), Estatu Batuak (2), Turkia (2), Portugal (2), Eslovakia (2), Tailandia (1) eta Maroko (1). Horretaz gain, taldea baloratzen ari da Indian industria parke korporatibo bat eraikitzea.

2006an kooperatiben esportazioak beren salmenten %26 erdietsi zuen, nahiz eta proportzio hori SAL sozietateetan oraindik %19,6koa izan. SLLetan, berriz, kopuru txikiena eman zen, bertan esportazioak fakturazioen %4,6 ozta-ozta izan ziren eta. Aurreko urteei dagokionez, adierazitako portzentajeek adierazten dute aurrerapen garrantzitsuak eman direla kanpoko merkatuetara sartzeko prozesuan. 2004 eta 2008 artean kooperatiben eta SAL sozietateen esportazioen pisu erlatiboa ehunetik 4 puntu inguru hazi da.

2006. urteari dagokionez ia ehuneko bat handitu diren arren, esportazioen pisua oraindik %4-4,5 ingurukoa da SLL sozietateetan. Esportazioen parte hartzea SLLen fakturazioan moderatuagoa da, neurri handi batean, bere barruko establezimenduak txikiagoak izateagatik.

4.4 irudia
ESPORTAZIOEN PISU ERLATIBOAREN KONPARATIBA FAKTURAZIOARI DAGOKIONEZ.
2006-2008. (esportazioen %, fakturazioaren arabera)



Azpimarratu beharreko beste alderdi bat da kanpoko merkatuetara iristeak zerikusi handia duela euskal gizarte-ekonomiaren alorreko enpresen tamainarekin. 200 enplegatu baino gehiago dituzten enpresek 2008. ekitaldian egindako esportazio guztien %77,2 bildu dute. Kooperatiben kasuan portzentaje hori %79,2ra iritsi da, eta esan beharra dago 500 enplegu edo gehiago dituzten kooperatiben artean %55,5ekoa izan dela.

Tamaina txikiagoko enpresek esportazioen bolumenean duten pisua handiagoa da gainerako forma juridikoetan. SLL sozietateetan jarduera esportatzailearen zatirik nagusia 50 langile edo gutxiago dituzten enpresei dagokie, %59,3, eta 50 eta 199 enplegu bitarte dituztenen kopurua %40,7 da. SAL sozietateetan esportazioen %48,8 200 enplegu baino gehiago dituzten enpresei dagokien bitartean, %25,2, berriz, 50 eta 199 enplegu bitarte dituzten establezimenduei dagokie eta %26,1 50 enplegu bitarte dituztenei.

Orain arte adierazitakoaren kalterik gabe, aipatu beharra dago esportazioen azkenaldiko bilakaera desberdina izan dela establezimenduen tamainaren arabera. Hori horrela, 50 enplegutik beherako establezimenduetan esportazioak %20,2 jaitsi eta 200 enplegutik gorakoetan %3,5 baino ez aurreratu ez diren bitartean, 50 eta 199 langile bitarteko establezimenduetan hazkundera %60,3koa da (%73,1 kooperatiben kasuan). Hain zuzen ere, zentro horien pisua esportazioetan 2006ko %15,1etik 2008ko %17,3ra pasatu da.

4.4 taula
ESPORTAZIOEN BOLUMENA, ENPLEGU-MAILAREN ETA FORMA JURIDIKOAREN ARABERA 2008
(c.a. eta %v.)

	GUZTIRA		S. Koop.		SAL		SLL	
	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.
5 enplegu arte	7.983.088	0,3	7.201.345	0,3	777.995	0,6	3.748	0,0
6 – 15 bitarte	18.804.149	0,8	10.261.539	0,5	5.615.835	4,3	2.926.775	19,7
16 – 50 bitarte	108.125.838	4,5	74.325.782	3,3	27.914.381	21,2	5.885.675	39,6
51 – 100 bitarte	182.364.786	7,5	165.471.102	7,3	13.173.961	10,0	3.719.723	25,0
101 – 200 bitarte	237.291.845	9,8	214.851.876	9,4	20.109.382	15,2	2.330.587	15,7
201 – 500 bitarte	605.246.172	25,0	540.869.454	23,7	64.376.718	48,8	0	0,0
500 baino gehiago	1.265.793.423	52,2	1.265.793.423	55,5	0	0,0	0	0,0
GUZTIRA	2.425.609.299	100	2.278.774.520	100	131.968.271	100	14.866.509	100

Nahiz eta SAL eta SLLek gizarte-ekonomiaren produkzio-egiturari lotutako esportazio bolumen osoan oso maila apalean parte hartu, %6 baino ez, azpimarratzekoa da forma juridiko hori duten establezimenduen protagonismo diferentziala tamaina txikiko zentroek egindako esportazioetan nabarmena dela. Era horretan, aipatu behar da esportazio gehienak 16 enplegatu edo gehiago dituzten establezimendu kooperatiboei baldin badagozkie ere, SAL eta SLL sozietateek 6 eta 15 enplegatu bitarte dituzten establezimenduek egindako esportazioen %45,5 biltzen dituztela eta 16 eta 50 bitarte dituztenek, berriz, esportazioen %31,2.

4.5 taula
ESPORTAZIOEN BOLUMENAREN PISU ERLATIBOA, FORMA JURIDIKOAREN ETA ENPLEGU-MAILAREN
ARABERA (%h)


	S. Koop.	SAL	SLL
5 enplegu arte	90,2	9,7	0,0
6 – 15 bitarte	54,6	29,9	15,6
16 – 50 bitarte	68,7	25,8	5,4
51 – 100 bitarte	90,7	7,2	2,0
101 – 200 bitarte	90,5	8,5	1,0
201 – 500 bitarte	89,4	10,6	0,0
500 baino gehiago	100	0,0	0,0
GUZTIRA	93,9	5,4	0,6

Beste alde batetik, Gipuzkoak esportatzeko prozesuan duen pisua erabakigarria da oso. 2008. urtean Gipuzkoako enpresek euskal gizarte-ekonomiaren %71,6 bildu dute. Horren ondoan, Bizkaiko enpresek ia %23,1 esportatu zuten eta Arabakoek gainerako %5,3.

Errealitate horrek zerikusia du lurralde bakoitzean gizarte-ekonomiako egitura ekonomikoaren enpresa-profilak duen aniztasunarekin. Era horretan, Gipuzkoako pisua esportazioaren alorrean koherentea da Gipuzkoako gizarte enpresaren enpresa-profilarekin. Lurralde horretan industriaren alorreko kooperatiba handien pisua nabarmendu behar da, esportazioari irekien daudenak baitira.

4.5 irudia

GIZARTE-EKONOMIAREN ENPRESEN ESPORTAZIOEN JATORRIZKO LURRALDEA. 2008
(esportazioen bolumen osoaren %, jatorrizko lurralde historikoaren arabera)



5.- GIZARTE-EKONOMIAREN BESTE MAGNITUDE EKONOMIKO BATZUK

Txostenaren bosgarren atalean izaera ekonomiko eta finantzieroa duten beste aldagai batzuk aztertuko dira, horiek EAEko gizarte-ekonomiak autofinantzatzeko duen ahalmenaren berri ematen baitute, baita kanpora begira zorpetzeko duen mailaren berri eman ere. Testuinguru horretan, ondorengoak hartuko dira kontuan: enpresen funts propioak, autofinantzatzeko ahalmena, finantza kaudimenaren mailak eta kanpora begirako zorpetze-mailak edo ratioak.

Horretaz gain, dirulaguntza moduan lortutako baliabideak eta ibilgetu material eta immaterialean egindako inbertsioen finantziazioa nola gauzatu den ere kontuan hartuko dira.

5.1.- GIZARTE-EKONOMIAREN FINANTZIAZIO PROPIOA

Euskal gizarte-ekonomiaren funtsen edo berezko baliabideen bolumena (kapitala, erreserbak, eta aplikatzeko zain dauden emaitzak) 2008. ekitaldian 5.134,3 milioi eurokoa izan da. Kopuru hori antzeko eran banatzen da industria-sektorearen eta zerbitzuen sektorearen artean (%48,9 eta %50,1, hurrenez hurren).

Datu horiek adierazten dute euskal gizarte-ekonomiaren balantze globalean jasotako funts propioen bolumenaren atzerapen handia izan dela, %7ko jaitziera nominala 2006. urteari dagokionez. Aldaketa horrek aurreko urteetako goranzko joaeraren amaiera ekarri du. 2004 eta 2006 artean funts propioen hazkundea %7koa zen, biurteko horretan euskal gizarte-ekonomiaren finantza egonkortasuna finkatzen ari baitzen. Dena dela, 2004-2006 biurtekoak zegoeneko funts berriak sortzeko erritmoen murrizketa nabarmena jaso zuen, hazkundea moderatua izan baitzen magnitude honek 2002 eta 2004 artean erregistratutako bilakaerarekin alderatuz gero, biurteko horretan %39,5¹⁴ hazi baitzen.

2006 eta 2008 artean bilakaerarik negatiboena zerbitzuen sektoreari dagokio, funts propioen mailaren %13,1eko murrizketa antzeman baitaiteke. Funts horien kopurua, ordea, egonkor mantendu da industrian, %0,1eko hazkunde xumearekin. Zerbitzuek 2006an gizarte-ekonomiaren %53,7 biltzen bazuten ere, 2008an parte hartzea %50,1 jaitsi dute.

¹⁴ Hala eta guztiz ere, adierazi beharra dago 2004-2006 biurtekoaren hazkunde handia loturik zegoela 2004an izandako enpresa-emaitzak erlatiboki aurreko ekitaldietan erregistratutako emaitzak baino negatiboagoak izatearekin zirela. Egoera horrek lagundu egin zuen 2005ean erreserbei ekarpen handiagoak egin ahal izatea. Ildo horretan, 2004. urtean cash-flowa 2002ko baino %6,9 altuagoa baino ez zen izan termino nominaletan, eta horrek inplikatzeko hazkunde txikiagoa izatea termino errealetan.

5.1 taula
GIZARTE-EKONOMIAREN FUNTS PROPIOEN ARLOZ ARLOKO BANAKETA
(c.a. euro kopurua milakotan, %v)

	2006		2008	
	Euros	% V	Euros	%V
Lehen sektorea	7.039.090	0,1%	6.684.266	0,1
Industria	2.505.691.533	45,4%	2.509.184.705	48,9
Eraikuntza	43.832.799	0,8%	44.097.956	0,9
Zerbitzuak	2.963.492.672	53,7%	2.574.320.118	50,1
GUZTIRA	5.520.056.094	100,0%	5.134.287.044	100,0

2008. urtean funts propioen mailan antzemandako murrizketa orokorraren zati garrantzitsu bat gizarte-ekonomiaren emaitzetan izandako jaitsiera handiarekin loturik badago ere (%32ko murrizketa 2006 datuekin alderatuta), ikusten da sektore horretan bilakaera dibergentea eman dela emaitzen mailaren eta funts propioen mailaren artean. Hori horrela, funts propioen mailaren jaitsiera handiagoa da zerbitzuetan. Dena dela, sektore horretan beti emaitzen murrizketa txikiagoa izaten da (%-7,3 2006 eta 2008 artean, industriaren %56,3ko jaitsieraren aurrean).

Zerbitzuetan funts propioen jaitsiera erlatibo handienak (%-13,1 emaitzetan izandako %7,3ko murrizketaren aurrean) azaltzen du sektore horretan funts propioen gaineko errentagarritasuna handitzen jarraitzearen paradoxa (2004an %6,1 izatetik, 2006an %8,2 eta 2008an %8,7 izatera pasatu da).

Aitzitik, industria-emaitzetan izandako murrizketa handiarekin koherentzian, nahiz eta horrekin batera funts propioen maila mantendu den, azken urteetan industria-sektorearen batez besteko errentagarritasun-mailan jaitsiera nabarmena eman dela ikusi da. 2004ko %8,8tik 2006ko %11,2ra handitu ondoren, industria eta eraikuntzaren funtsen gaineko errentagarritasuna %5,1 murriztu da 2008an.

Bestalde, bigarren sektorean funts propioen gaineko errentagarritasunean eman den murrizketa handiaren ondorioz, 2006-2008 biurtekoan gizarte-ekonomiaren barruko enpresetan ehuneko 3 puntuko jaitsiera orokorra eman da errentagarritasun-mailari dagokionez.

5.2 taula
GIZARTE-EKONOMIAREN FUNTS PROPIOEN ARLOZ ARLOKO BANAKETA. FUNTS PROPIOEN GAINEKO ERRENTAGARRITASUNARI BURUZKO ERREFERENTZIA
(c.a. euro kopurua milakotan.)

	FUNTS PROPIOAK	ERRENTAGARRITASUNA/FUNTS PROPIOAK	
		2006	2008
Industria ⁽¹⁾	2.553.282.661	11,2	5,1
Zerbitzuak	2.574.320.118	8,2	8,7
GUZTIRA	5.134.287.044	9,5	6,9


⁽¹⁾ Eraikuntza barne dago

Finantza-sendotasunaren mailak sakon aztertzeari begira, interesgarria da jarduera-sektorearen arabera enplegu bakoitzeko berezko baliabideen ratioa espezifikoki kontuan hartzea. Kasu horretan, 2008ko datuek ematen dituzten mailak oso antzekoak dira industria- eta zerbitzuen sektoreentzat. Bi kasuetan enplegu bakoitzeko ia 85.000 eurotan daudela ikusten da (83.872 industrian eta 84.814 zerbitzuetan).

Hala eta guztiz ere, aztertutako bi sektore horien egungo egoerak azkenaldian izandako bilakaera desberdinen ondorio dira. Hirugarren sektorearen kasuan, egungo maila %23 baxuagoa da 2006. urtearekiko. Murrizketa hori azaltzen duten zergatiak dira 2006-2008 biurtekoan sektoreko funts propioen maila absolutua jaitsi izana eta epe horretan bere enplegu bolumenak izandako hazkundea.

Aitzitik, industria-sektorearen enplegu bakoitzeko finantziario propioaren ratioaren bilakaera aldekoa da, aipatu ratioa %8 handitu baita 2006arekin alderatuz gero. Hazkunde hori funts propioen bolumen osoa mantendu izanak azaltzen du, 2006-2008 artean industriaren alorreko enplegua murriztu zen testuinguru horren barruan.

5.1 irudia
BATEZ BESTEKO FUNTS PROPIOAK, ESTABLEZIMENDUAREN ETA JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA
(Eurotan)



Enpresen tamaina handiagoa izateak eragin nabarmena du finantziario propioa izateko garaian. Hortaz, enpresa mota hauen presentzia erlatiboa handiagoa den sektoreetan finantziario propioaren ratioak askoz altuagoak izaten dira. Aurkakoa gertatzen da enpresa txikiaren presentzia handia duten sektoreetan, lehen sektorea eta eraikuntza esate baterako. Hori horrela, baliabide propioen mailak enplegatu bakoitzeko kasu horietan zerbitzuen edo industria-sektorearenak baino askoz baxuagoak izaten dira (30.383 lehen sektorean eta 20.799 eraikuntzan).

Nolanahi ere, orain arte adierazitakoa gorabehera, kontuan hartu behar da zerbitzuen sektorean enplegatu bakoitzeko baliabide propioen maila, neurri handi batean, finantza eta banaketaren alorreko kooperatiba handiek sektorean duten eraginari zor zaiola. Sektoreko enplegatu bakoitzeko baliabide propioen ratioa autofinantzatzeko ahalmen handia duten finantza- eta banaketa-enpresa horien eragina kontuan hartu gabe aztertzen baldin bada, zerbitzu-enpresek dituzten baliabide propioen maila %70 jaisten da, enpleguko 26.098 euroko ratoraino hain zuzen ere. Ratio hori nabarmen baxuagoa da industria-enpresek dutena baino, eta eraikuntzaren alorreko enpresetan erregistratutakoa baino ez du gainditzen.

Bere aldetik, forma juridikoaren arabera analisiak erakusten du —aurreko ekitaldietan bezalaxe— kooperatibetan funts propioen kontzentrazioa handia dela. Enpresa-kooperatibek funts propio guztien %94,1 biltzen duten bitartean, SAL sozietateek %4,1 eta SLLek %1,9 baino ez dute biltzen.

Nahiz eta eraikuntzan asko jaitsi (%59,9), kooperatibek funts propioak kontzentratzeko duten joera errealitate bat da euskal gizarte-ekonomiaren alorreko jarduera-sektore guztietan. Hori dela eta, sektore guztietan sozietate laboralen finantziario propioaren mailak askoz baxuagoak dira kooperatibenak baino.

Aurkeztutako datuek inplikatzeko dute sozietate laboraletan enplegu bakoitzeko baliabide propioen ratioa txikiagoa dela, batez ere SLLen artean. Hori horrela, Kooperatiben kasuan, ratioa 95.907 eurokoa den bitartean, SAL sozietateetan 27.996 eurokoa da enplegu bakoitzeko, eta SLL motako sozietateetan, berriz, 19.951 eurokoa enpleguko, gizarte-ekonomia osoan erregistratutako ratio txikiena ¹⁵.

Hala ere, funts propioak sortzeko garaian duen nagusitasunaren kalterik gabe, azkenaldiko bilakaerak erakusten du konparazioz kooperatiben posizioaren galera eman dela. Funts propioetan duten parte hartzea 2006ko %95,3tik 2008ko %94,1era pasatu da. Izan ere, sozietate laboraletan funts propioen bolumena handitu den bitartean, kooperatibetan %8,2 jaitsi da (%-13,6 zerbitzuen alorreko kooperatibetan eta %-1,5 industriaren alorrekoetan).

Enplegu bakoitzeko baliabide propioen ratioaren bilakaera aztertzerakoan, bilakaera bera eman dela antzematen da, hau da, kooperatibetan %9,3ko jaitsiera orokorra izan da. Adierazle hori aztertzerakoan, ordea, sektoreen arteko desfasea areagotu egiten da: zerbitzuetako %19,3ko jaitsieraren aurrean kooperatiben industriaren %3,6ko aurrerapen positiboa izan da.

5.3 taula

GIZARTE-EKONOMIAREN FUNTS PROPIOEN ARLOZ ARLOKO BANAKETA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA.

2008 (c.a. eurotan eta % h.)

	GUZTIRA		S.KOOP		SAL		SLL	
	c.a.	%h.	c.a.	%h.	c.a.	%h.	c.a.	%h.
Lehen sektorea	6.684.266	100	6.008.801	89,9	6.798	0,1	668.667	10,0
Industria	2.509.184.705	100	2.281.657.843	90,9	162.834.618	6,5	64.692.244	2,6
Eraikuntza	44.097.956	100	26.400.927	59,9	8.313.902	18,9	9.383.127	21,3
Zerbitzuak	2.574.320.118	100	2.515.736.871	97,7	37.444.564	1,5	21.138.683	0,8
GUZTIRA	5.134.287.044	100	4.829.804.442	94,1	208.599.882	4,1	95.882.721	1,9

¹⁵ SLL gehienek emaitzen kontuen analisiak, eta neurri txikiagoan SLLen analisiak, erakusten du finantziario propioaren mailak oso txikiak direla, eta aurreko ekitaldietan 12. kontuan galarak metatu direla.

Gizarte-ekonomiaren funts propio guztien %57,1 Gipuzkoako enpresei dagokie, %29,5 Bizkaiko enpresei eta gainerako %13,4a Arabako enpresei. 2006 eta 2008 artean funts propioen mailak lurralde historiko guztietan jaitsi badira ere, Araban eta Bizkaian jaitsiera handiagoa eman da (%-5,3 eta %-12,4, hurrenez hurren) Gipuzkoan baino (%-4,3). Hortaz, Gipuzkoaren parte hartzea funts propioen bolumen osoan handitu egin da 2006ko %55,5az geroztik.

Gipuzkoan, industria-enpresek sortutako funts propioek 2002 biurtekora arte kopuru osoarekiko kopuru handiena baziren ere, 2004. urtean ehuneko hori zerbitzuen sektorearen parte hartzeak gainditu zuen. 2006. urtean industria-sektoreak berriro ere nagusitasuna lortu zuen, lurralde historiko horretan sortutako funts propio guztien %63,6 kontzentratuta. 2008an proportzio hori %64,9ra handitu da. Hazkunde berri horrek zerikusia du industria-sektorean funts propioen bilakaera beste sektoreetan bezain negatiboa ez izatearekin. Gipuzkoan gizarte-ekonomiaren industriak 2006 eta 2008 artean bere funts propioen %2,4 galdu arren, jaitsiera hori zerbitzuen sektorean izandako %7,6ko jaitsiera baino txikiagoa da.

Zerbitzuen sektoreak, ordea, funts horien zati nagusia Bizkaian eta Araban, %72,4 eta %70,2 hurrenez hurren, kontzentratzen du. Hala ere, kopuru horiek 2006koak baino askoz baxuagoak dira (%75,1 eta %78,1). Bi lurralde horietan zerbitzuen sektoreko funts propioen mailan %10etik gorako jaitsierak izatearen ondorioa da. Industria eta eraikuntzan, berriz, %5 inguruko edo hortik gorako hazkundeak izan dira.

5.4 taula
GIZARTE-EKONOMIAREN FUNTS PROPIOEN ARLOZ ARLOKO BANAKETA, LURRALDE HISTORIKOAREN
ARABERA. 2008
(c.a. eurotan eta %v.)

	EAE		ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.
Lehen sektorea	6.684.266	0,1	5.255.839	0,8	1.133.940	0,1	294.488	0,0
Industria	2.509.184.705	45,4	174.334.635	25,3	434.615.521	28,7	1.900.234.549	64,9
Eraikuntza	44.097.956	0,8	10.383.732	1,5	16.120.025	1,1	17.594.199	0,6
Zerbitzuak	2.574.320.118	53,7	498.114.659	72,4	1.064.334.957	70,2	1.011.870.502	34,5
GUZTIRA	5.134.287.044	100	688.088.865	100	1.516.204.442	100	2.929.993.738	100

Komenigarria da gizarte-ekonomiaren alorreko enpresen pasibo osoarekiko funts propio horiek suposatzen duten kapitalizazio berme-mailaren inguruko azterketa egitea. Horregatik, interesgarria da nolabaiteko zehaztasunez kontuan hartzea finantzen alorreko literaturan finantza arriskuen mailak edo zorpetze-mailak aztertzeke erabilitako oinarritzko ratioak, baita enpresa horien eskura dauden funts propioekin loturik dauden berme-mailak edo autofinantziaziorako ahalmena ere¹⁶.

¹⁶ Funts propioen estaldura-maila baloratzea ahalbidetzen duten ratioak zorpetzea (kanpoko funtsak/funts propioak) eta bermea (aktibo osoa/ galdagarri osoa) dira. Hasiera batean, eta finantza kudeaketaren testuinguruan, ratio horiek 1etik 2ra eta 1,5etik 2ra bitarte kokatu behar dira, hurrenez hurren, funts propioen zorpetze- eta estaldura-mailak egokiak izan daitezen.

Funts propioek gizarte-ekonomiaren pasibo agregatu osoarekiko duten pisu erlatiboa 2008an %25,4ko kopuruan kokatu da. Horrek inplikatzan du zorpetze- eta berme-ratioak hurrenez hurren 2,9 eta 1,3 direla. Egiazta daitekeenez, ratio horiek gizarte-ekonomia oro har gomendagarria edo osasungarria den mailatik kanpo kokatzen dute. Hala eta guztiz ere, adierazleen maila hobetu egin da 2006. urtearekin alderatuta (zorpetze-ratioa 3,3).

Testuinguru horretan, azpimarratu beharreko beste datu bat da finantza-egoera agregatuaren hasiera historikoki zerbitzuen sektorean kokatu beharra dagoela. Sektore horrek 4,5eko zorpetze-ratioa du eta 1,2ko berme-ratioa, eta, ondorioz, oro har gomendagarriak diren tarteetatik kanpoko mailan kokatzen dela. Errealitate hori, funtsean, kredituen alorreko sozietateei dagokiena da. Sozietate horiek azterketatik kanpo utziz gero, gizarte-ekonomiaren gainerako enpresen ratioek finantza-egoera osasungarriaren berri jasotzen dute (1,6 ratioetan, bai zorpetze- bai bermeari dagokienez).

Adierazitakoaren ildotik, gizarte-ekonomiaren gainerako sektoreek finantza-egoera sendoa dute, nahiz eta lehen sektoreak zertxobait gainditu zorpetze-ratioaren kasurako gehienez ezarrita dagoen 2ko ratioa.

5.5 taula
ZORPETZE-RATIOAK, JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA
(% kanpoko funtsak/Funts propioak)

	Zorpetze-ratioa
Lehen sektorea	2,3
Industria	1,4
Eraikuntza	1,8
Zerbitzuak	4,5
GUZTIRA	2,9

5.6 taula
BERME-RATIOAK, JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA
(% aktiboa guztira/Galdagarria guztira)

	Berme-ratioa
Lehen sektorea	1,4
Industria	1,7
Eraikuntza	1,5
Zerbitzuak	1,2
GUZTIRA	1,3

Era berean, forma juridikoaren azterketa garrantzitsua da zorpetze- eta berme-ratioen analisiaren testuinguruan. Ildo horretan, egiaztatu da kooperatibei dagozkien finantza-ratioek ez dituztela aldeaz aurretik finkatutako tarteak errespetatzen (3,0 zorpetze-ratioari dagokionez eta 1,3 berme-ratioaren kasuan). Aitzitik, sozietate laboralen zorpetze- eta berme-mailak balio osasungarrietan daude kokatuta.

5.7 taula
ZORPETZE-RATIOAK, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA
 (% Kanpoko funtsak/Funts propioak)

	Zorpetze-ratioa
S. Koop	3,0
SAL	2,0
SLL	2,0
Guztira	2,9

5.8 taula
BERME-RATIOAK, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA
 (% aktiboa guztira/Galdagarria guztira)

	Berme-ratioa
S. Koop	1,3
SAL	1,5
SLL	1,5
Guztira	1,3

Zorpetze-maila enpresaren tamainaren arabera aztertuz gero, azpimarratu behar da 201 eta 500 enplegu dituzten enpresek lortutako maila. Horien zorpetze-ratioa 7,1 da, 2006. urteari (4,3) zegokiona baino hiru puntu altuagoa ia. Neurri txikiagoan bada ere, arriskua handitzeko joerak ere 101 eta 200 enplegu bitarte dituzten enpresei ere eragin die, eta 2006an 0,9ko zorpetze-ratioa izatetik 2008an 2,5ekoa izatera pasatu da.

Aitzitik, 100 langile baino gutxiago dituzten enpresek dituzten zorpetze-ratioak finantza-maila optimoetan daude. 2008an enpresa txikiak eta ertainak ere egoera horretan daude, 1,3ko zorpetze-tasa dute, alegia, 2006an erregistratutako 2,8aren aurrean. 500 enplegutik gorako enpresen egoera ere hobetu egin da, zorpetze-ratioa 2006 eta 2008 artean 4,0tik 1,4ra jaitsita.

5.9 taula
ZORPETZE-RATIOAK, ENPRESEN TAMAINAREN ARABERA
(% Kanpoko funtsak/Funts propioak)

	Zorpetze-ratioa
5 enplegu arte	1,3
6-15 bitarte	1,9
16-50 bitarte	1,3
51-100 bitarte	1,3
101-200 bitarte	2,5
201-500 bitarte	7,1
500 baino gehiago	1,4
GUZTIRA	2,9

2008. urtearen aurreko ekitaldian sortutako emaitzen ondorioz gizarte-ekonomiaren funts espezifikoei egindako hornidurari dagokionez, egiaztatu egiten da hornidura horien bolumena nabarmen handitu egin dela kooperatibei dagozkien funts espezifikoen kasuan, batez ere Derrigorrezko Erreserba-Funtsaren kasuan.

Termino absolutuetan, gizarte-ekonomiak derrigorrezko erreserba-funtsari egindako hornidura agregatua 178,5 milioi euro izan da, eta hezkuntza eta sustapen kooperatiboari egindakoa, berriz, 59,9 milioi eurokoa. Kopuru horiek, 2006. ekitaldiarekin alderatuta, %63 eta %20 hazkundera eman dela adierazten dute, hurrenez hurren¹⁷.

Hezkuntza eta sustapen kooperatiboaren aplikaziorako funtsari dagokionez, 2008an 24,2 milioi eurokoa izan da. Partida horren %30,6 prestakuntzara bideratu da, %25,3 enpresen arteko lankidetzara, %35,3 kultur, lan eta asistentziaren alorreko sustapenera, eta gainerako %8,8a beste helburu batzuetara. Aipatu beharreko beste datu garrantzitsu bat da aipatzen ari garen funtsaren kopurua 2006. ekitaldikoa baino askoz baxuagoa dela, heren bat baino gehiago jaitsi baita.

Azkenik, Sozietate laboralek egindako hornidurei dagokienez, hornidura horiek %38 jaitsi dira 2006arekin alderatuta. Hortaz, 2008an egindako hornidura agregatua 9,7 milioi euro da.

¹⁷ 2008 epean egindako hornidurak, emaitzei lotuak, 2007 epean lortutako emaitzei dagozkie.

5.2.- GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPRESEN INBERTSIOA ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN FINANTZIAZIOA

Gizarte-ekonomiaren alorreko enpresek 2008. urtean egindako inbertsio garbiaren¹⁸ zenbateko agregatua, ibilgetu materialean zein immaterialean, 327,6 milioi euro ingurukoa da. Ibilgetu materialean egindako inbertsioa 266,2 milioi eurokoa da guztira, eta ibilgetu immaterialean egindako inbertsioari, berriz, 61,5 milioi euroko kopurua dagokio.

Aurreko datuek erakusten dute inbertsioaren hazkunde orokorra %0,7 handiagoa ozta-ozta izan dela 2006arekin alderatuta. Inbertsio-prozesuaren itxurazko egonkortasun hori ziurgabetasun testuinguru batean eman da, eta itxaropen handirik gabeko eta ezegonkortasunezko testuinguru horrek ez du enpresa-dinamismo handi baterako biderik ematen. Hala ere, praktikan, barneko bilakaera oso desberdina izan dela ezkututzen du. Hori horrela, alde batetik, %81,9 handitu da immaterial ukiezinean egindako inbertsioa, eta zerikusia izan dezake industria-aplikazio eta jardueri loturiko ikerketara eta garapenera bideratutako jarduera handitu izanarekin. Baina, beste alde batetik, ibilgetu materialean egindako inbertsioa %8,7 jaitsi da.

Ibilgetu materialean egindako inbertsioaren bilakaera bereziki deigarria da. Hain zuzen ere, 2006-2008 biurtekoaren jaitsieraren aurretik, inbertsioaren bilakaera nabarmen mantsotu zen, gutxienez 2002. urteaz geroztik. Hori horrela, ibilgetu materialari dagokionez, 2004 eta 2006 artean inbertsioa %12,9 jaitsi zen, 2002 eta 2004 artean antzeman zen %10,2ko jaitsierari jarraipena ematen ziona. Hala ere, egiaztatu ahal izango denez, inbertsioaren aldagai horretan sektorez sektoreko ñabardura batzuk sartu behar dira.

A. Ibilgetu materialean egindako inbertsioa

2006n ez bezala, urte horretan industria eta zerbitzuen alorreko enpresek antzeko eran parte hartu baitzuten ibilgetu materialean egindako inbertsioetan (%49,9 eta %47,6, hurrenez hurren), 2008an industriaren parte hartzea nagusi izan da. Hori horrela, industriak kontuan hartutako inbertsioaren %84,7 egin du, zerbitzuek sektoreari dagokion %13,4aren aurrean. Eraikuntzaren sektoreak biltzen duen ehunekoa ozta-ozta iristen da %1,7ra, eta lehen sektoreari dagokion inbertsiorik ez dagoela ia esan daiteke (%0,2).

¹⁸ INEk Kapital Finkoaren Eraketa Gordinari buruz emandako definizioarekin koherentea izateko, atal honetan jasotzen den magnitudea gizarte-ekonomiaren alorreko enpresek 2007 eta 2008an egindako inbertsio garbiarekin dago loturik. Hori horrela, ibilgetuaren erosketak barne hartu dira, eta egindako lagapen eta salmentak kendu dira. Hortaz magnitude garbi negatiboa izan daiteke.

Industriak ibilgetu materialaren inbertsioetan duen parte hartzea handitu izanak adierazten du industria-sektoreak 2008. urtean izandako dinamismo berezia, nahiz eta epe horretan izandako emaitza ekonomikoak murrizagoak izan; ildo horretan, 2008an gizarte-ekonomiaren industria-enpresek egindako inbertsio garbiek %54,9ko hazkundea suposatzen dute 2006koekin alderatuta. Baina, horretaz gain, agerian jartzen du gainerako sektoreetan kontrako norabideko bilakaera izan dela. Hori horrela, nekazaritzan eta eraikuntzan inbertsioa %25etik %30era bitarteko kopuruetan murriztu den bitartean, zerbitzuen sektoreak ibilgetu materialaren inbertsioari egindako ekarpena %74,3 murriztu da 2006-2008 biurtekoan.

Zerbitzuen sektorearen parte hartze erlatiboaren murrizketa handia —2006ko %47,6tik 2008ko %13,4ra— loturik dago, neurri handi batean, gizarte-ekonomia osatzen duten hirugarren sektoreko enpresa handi batzuen kasuan erregistratutako desinbertsio handiekin.

Adierazitako aldeak enplegu bakoitzeko inbertsio terminoetan ere antzeman daitezke. Industria-sektoreak erdietsitako batez besteko ratioa enplegu bakoitzeko 7.534 eurotan dago kokatua, 2006an erregistratutako ratioaren %67,5 gaineratik. Zerbitzuekin loturik dagoen ratioa, berriz, 2006ko 4.890 euroetatik 2008ko 1.174 euroetara jaitsi da, %76ko jaitsiera. Hala eta guztiz ere, kasu horretan aldeak areagotu egiten dira, sektorez sektoreko bilakaera desberdinaren ondorioz (gorantz zerbitzuetan eta beherantz industrian).

5.10 taula
GIZARTE-EKONOMIAREN INBERTSIO MATERIALEN ARLOZ ARLOKO BANAKETA, FORMA JURIDIKOAREN
ARABERA. 2008 (c.a. eurotan eta % h.)

	GUZTIRA		S.KOOP.		SAL		SLL	
	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.
Lehen sektorea	539.829	0,2	536.767	0,2	0	0,0	3.062	0,0
Industria	225.386.584	84,7	193.537.034	87,6	25.037.514	80,0	6.812.036	48,5
Eraikuntza	4.656.746	1,7	579.648	0,3	405.212	1,3	3.671.885	26,1
Zerbitzuak	35.622.981	13,4	26.214.770	11,9	5.849.191	18,7	3.559.021	25,3
GUZTIRA	266.206.140	100	220.868.219	100	31.291.917	100	14.046.004	100

Industrian zein zerbitzuetan, kooperatibek sortutako inbertsioa arloz arloko inbertsio osoaren zati nagusia da. Kooperatibek inbertsio osoaren %83 biltzen dute, %85,9 eta %73,6 hurrenez hurren industrian eta zerbitzuetan.

Aurreko datuek ez dute ezkutatu behar, ordea, inbertsio magnitudeen bilakaera sektoriala desberdina izan dela. Hori horrela, 2006 eta 2008 artean kooperatiben alorreko industrian egindako inbertsioa %55,9 handitu den bitartean, zerbitzuen sektoreari loturiko kooperatiben inbertsioa %79,9 jaitsi da. Hain zuzen ere, zerbitzuen pisua kooperatiben ibilgetu materialean egindako inbertsioan 2006ko %50,2tik 2008ko %11,9ra jaitsi da.

Forma juridiko bakoitzaren barruan, 2008an industria-sektoreak inbertsioaren zati nagusia bildu du, %80a edo hortik gorako kopuruetan kooperatibetan eta SAL motako sozietateetan. Proportzioa %48,5era jaisten da SLLetan, zerbitzuetan %25,3 eta eraikuntzan %26,1 izanik. Eraikuntzak ibilgetu materialean egindako inbertsioaren papera 2008an SLL sozietateen jarreraren azpimarratu beharreko ezaugarri garrantzitsua da. Hori horrela, 2008an gizarte-ekonomiaren alorreko eraikuntzaren sektoreak egindako inbertsioaren %78,9 SLLei dagokie.

Enplegu bakoitzeko ibilgetu materialean egindako inbertsioaren ratioei dagokienez, kooperatiben eta SAL sozietateen adierazleak 2008an oso hurbil daude: 4.386 euro enpleguko kooperatibetan eta 4.200 euro SAL sozietateetan. Datuak bat etortze hori 2006. urtearekin alderatuta kooperatiben ratioan izandako %26,7ko jaitsieraren ondorioa da (urte hartan 5.984 eurokoa izan zen), hirugarren sektoreko enpreetan egindako inbertsioa atzeratu izanarekin loturik. Horrekin batera, %40,8 handitu da SAL sozietateen ratioa (2.982 euro 2006an).

SLL sozietateei dagokienez, ratioa 2006. urtean erregistratutako ratioaren antzeko mailetan kokatzen da (2.923 euro enpleguko 2008an, eta 2.888 euro 2006an, %1,2ko hazkundea ozta-ozta).

5.11 taula
ENPLEGUKO INBERTSIO-RATIOAK, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA

S.Koop.			SAL			SLL		
Inbertsioa	Enplegua	Ratioa	Inbertsioa	Enplegua	Ratioa	Inbertsioa	Enplegua	Ratioa
220.868.219	50.359	4.386	31.291.917	7.451	4.200	14.046.004	4.806	2.923

Lurraldearen araberako azterketak agerian jartzen du Gipuzkoako enpresek egindako inbertsio materialen pisua oso handia dela, EAEko gizarte-ekonomian egindako ibilgetu materialeko inbertsioaren %80 inguru enpresa horiek biltzen baitute. Horrek lotura estua du Gipuzkoako kooperatiben industria-sektorean duen pisu erlatiboarekin, sektore horrek kontzeptu honen barruan 2008an egindako inbertsio osoaren %72,7 bildu duelako.

Bizkaian, ordea, azpimarratu beharrekoa da inbertsio agregatuaren mailan izandako murrizketa handia. Horrek zerikusi estua du lurralde historiko horretan zerbitzuen sektoreak egindako inbertsioaren mailak murriztu izanarekin.

Lurraldeen araberako aldeak nabarmenak dira, era berean, enplegu bakoitzeko inbertsio gordina jasotzen duen adierazleari dagokionez. Gipuzkoak kopuru altuena lortu du, enplegu bakoitzeko 6.732 euro (2006ko ratioaren gainetik 2.000 euro), eta Araban eta Bizkaian, berriz, adierazlea nabarmen jaitsi da (2.109 eta 1.604 eurotara, hurrenez hurren).

5.12 taula

2008an GIZARTE-EKONOMIAK IBILGETU MATERIALEAN EGINDAKO INBERTSIOEN ARLOZ ARLOKO BANAKETA, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (c.a., eta % v.)

	EAE		ARABA		GIPUZKOA		BIZKAIA	
	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.
Lehen sektorea	539.829	0,2	202.923	1,5	2.314	0,0	334.592	0,9
Industria	225.386.584	84,7	7.502.337	55,0	169.294.327	79,4	48.589.920	123,9
Eraikuntza	4.656.746	1,7	95.956	0,7	3.729.845	1,7	830.945	2,1
Zerbitzuak	35.622.981	13,4	5.834.823	42,8	40.323.650	18,9	-10.535.492	-26,9
GUZTIRA	266.206.140	100	13.636.039	100	213.350.136	100	39.219.965	100

Arloz arlo, hiru lurraldeetan industria-inbertsioa nabarmentzen da, kasu guztietan lurralde-inbertsioaren erdiaren gainetik kokatzen diren mailekin, gutxienekoa Arabako %55a izanik. Industrian egindako inbertsioaren pisua Gipuzkoan %79,4ra iritsi da eta %97,7ra Bizkaian. Azkeneko egoera hori neurri handi batean azalduta gelditzen da 2006 eta 2008an Bizkaian antzemandako desinbertsio prozesua kontuan hartuz gero. Lurralde hori ordura arte hirugarren sektoreko enpresen inbertsioen pisu erlatibo handiagoa erregistratzen ari zen.

B. Ibilgetu ukiezinean egindako inbertsioa

Dagoeneko adierazi den bezala, ibilgetu ukiezinean egindako inbertsioa nabarmen hazi da 2006 eta 2008 artean. Hain zuzen ere, 2006an erregistratutako 33,8 milioietatik 2008. ekitaldian erregistratutako 61,5 milioietara pasatu da.

Hazkunde horren jatorria, funtsean, industria-sektoreak izandako bilakaera positiboan dago, sektore horrek %168,4 handitu baitu ukiezinetan egindako inbertsioa 2006. ekitaldian egindakoarekin alderatuz gero. Hirugarren sektorearen inbertsio dinamika ere positiboa da, nahiz eta hazkunde-tasa moderatuagoa izan: inbertsio garbiaren bolumena 2006 eta 2008 artean %10,3 handitu da.

Nolanahi ere, ibilgetu immaterialaren kasuan antzeman daiteke hirugarren sektorearen parte hartzea handiagoa dela. Hori horrela, 2006ko %52,5 abiapuntu hartuta, beheranzko joera eman da, eta zerbitzu-enpresen ibilgetu immaterialean egindako inbertsio guztien %31,8 sortu dute, industriaren sektorekoak, %67,9rekin, nagusi izanik (2006an %46).

Forma juridikoaren arabera, kooperatibak, berriro ere, nabarmendu egin dira inbertsioari egindako ekarpen erlatibo handiagoarengatik. Ukiezinetan egiten diren inbertsioen %95,6 mota horretako enpresek egindakoak dira. Batez ere nabarmentzekoa da industria-kooperatibek egindako ekarpena, 2008an gizarte-ekonomiak ibilgetu ukiezinean egindako inbertsio guztien %64,7arekin eta kooperatiben sektoreari dagozkion inbertsioen %67,7. Hain justu, industriaren alorreko kooperatiba zentro horietan, ibilgetu ukiezinean egindako inbertsioa 2006 eta 2008 artean %236,8 hazi da.

Sozietate laboralen inbertsio-mailak askoz moderatuagoak dira, batez ere forma juridiko horietako zentroen batez besteko tamaina txikiagoa delako. Hori horrela, SLL sozietateei 2008an gizarte-ekonomian erregistratutako inbertsio ukiezin osoaren %3,8 dagokie. Proportzio hori SAL sozietateetan %0,6 ingurukoa da.

Sozietate laboralek inbertsioari egindako ekarpena eraikuntzan baino ez da nabarmena. Sektore horretan sozietate laboralek gizarte-ekonomiak ibilgetu ukiezinean egindako inbertsio guztiaren %49,4 jarri dute (dagokien kopuru osoaren %36,7 SLLei atxiki behar zaie), eta gainerako sektoreetan egin duten ekarpena %10etik beherakoa da. Dena dela, sozietate laboraletan ere industria da 2008an sozietate laboraletan inbertsioen ehuneko handiena bildu duena (SAL sozietateen inbertsio ukiezin guztien %69,5 eta SLLei dagozkien %72,9).

Industria-sektorean inbertsioak duen nagusitasunezko paperaren aurrean, zerbitzuen sektoreak kooperatiben aldetik ukiezinetan egindako inbertsioen %32,2 suposatzen du. Sozietate laboralen kasuan, berriz, aipatu parte hartzea %25a baino zertxobait beherago dago kokatua.

Enplegu bakoitzeko inbertsio-maila aztertzerakoan, kooperatibak buruan kokatzen dira 2006ko ratioa bikoizten duen ratio batekin, eta enplegu bakoitzeko 1.167 euro biltzen duena. SLLei loturiko ratioa 2006-2008 biurtekoan kooperatibei loturikoaren antzeko terminoetan hazi bada ere, lortutako maila moderatuagoa da (483,8 euro enplegatu bakoitzeko).

Aitzitik, SAL sozietateen kasuan ratioa nabarmen jaitsi da. Jaitsiera horrek lotura estua dauka enpresa-establezimendu mota horrek ukiezinean egindako inbertsio-mailan izandako atzerapenarekin. Hori horrela, 2006an enplegu bakoitzeko erregistratutako 509,1 euroetatik 2008an enplegu bakoitzeko 47,9 eurotara pasatu da.

5.13 taula
GIZARTE-EKONOMIAREN INBERTSIO UKIEZINEN ARLOZ ARLOKO BANAKETA, FORMA JURIDIKOAREN
ARABERA. 2008
(c.a. eurotan eta % v.)

	GUZTIRA		S.KOOP.		SAL		SLL	
	c.a.	%v	c.a.	%v	c.a.	%v	c.a.	%v
Lehen sektorea	23.800	0,0	23.800	0,0	0	0,0	0	0,0
Industria	41.706.967	67,9	39.762.948	67,7	248.467	69,5	1.695.552	72,9
Eraikuntza	163.917	0,3	82.922	0,1	20.849	5,8	60.146	2,6
Zerbitzuak	19.561.896	31,8	18.904.252	32,2	87.981	24,6	569.663	24,5
GUZTIRA	61.456.580	100	58.773.922	100	357.297	100	2.325.362	100

Lurralde historikoaren arabera, Gipuzkoako enpresa-establezimenduek ibilgetu immaterialean egindako inbertsio osoaren %54,1 sortzen dute, Bizkaian %23,3 eta Araban %22,6 sortzen duten bitartean. Nolanahi ere, 2006an gertazen zen bezala, enplegu bakoitzeko ibilgetu immaterialean inbertitutakoaren ratio handiena Araban dago (1.153,6 euro), Gipuzkoan eta Bizkaian antzematen denaren oso gainetik (478,2 eta 461,4 euro, hurrenez hurren).

Hala eta guztiz ere, enplegu bakoitzeko ratioen terminoetan, ratio handiena Araban dago (2.143,5 euro enplegu bakoitzeko), aurreko edizioan bezalaxe, Gipuzkoako (1.050 euro/enpleguko) eta Bizkaiko (585,5 euro/enpleguko) ratioen gainetik oso.

Arloz arloko banaketari dagokionez, berriro ere industriaren alorreko inbertsioaren parte hartze handia antzeman daiteke bai Araban (inbertsio osoaren %81,9) bai Gipuzkoan (%71,4). Bizkaia, ordea, urrundu egiten da eredu horretatik, inbertsio gehiena zerbitzuen sektorean eginez (%53,3, industriara bideratutako %46aren aurrean).

Egoera horrek neurri batean zerikusia du 2006 eta 2008 artean industria-sektorean Bizkaian ibilgetu ukiezinean egindako inbertsioaren hazkundera txikiagoa izatearekin. Hori horrela, Araban %272,6 eta Gipuzkoan %207,6 hazi den bitartean, Bizkaian inbertsioaren hazkundera %38,1 izan da.

5.14 taula

GIZARTE-EKONOMIAREN INBERTSIO UKIEZINEN ARLOZ ARLOKO BANAKETA, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA 2008 (c.a. eurotan eta % v.)

	EAE		ARABA		GIPUZKOA		BIZKAIA	
	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.
Lehen sektorea	23.800	0,0	23.800	0,2	0	0,0	0	0,0
Industria	41.706.967	67,9	11.352.899	81,9	23.773.504	71,4	6.580.564	46,0
Eraikuntza	163.917	0,3	4.607	0,0	52.690	0,2	106.620	0,7
Zerbitzuak	19.561.896	31,8	2.481.267	17,9	9.450.318	28,4	7.630.312	53,3
GUZTIRA	61.456.580	100	13.862.573	100	33.276.511	100	14.317.495	100

C. Herri administrazioen finantziakzioa

EAEko gizarte-ekonomiaren egoeraren balantzea egiterakoan garrantzi handia duen beste alderdi bat da Herri Administrazioek sektore horretako enpresei emandako finantza-laguntzaren azterketa egitea, enpresa horiek egindako inbertsioei loturik egin behar den azterketa.

Jakina denez, finantza-ikuspegitik —arreta dirulaguntzetan jarrita— enpresentzat funtsezko bi sarrera iturri daude administrazio publikoen dirulaguntzetatik datozenak.

Gizarte-ekonomiaren enpresei laguntzeko lehenengo bideak dirulaguntza, dohaintza eta kapital legatuekin du zerikusia.

Kontabilitatearen ikuspegitik, dirulaguntza horiek diru sarreren 74 zenbakiko partidan daude adierazita, mozkinen eta galeren kontuan, kontabilitate plan berrian ohiko dirulaguntzen kontua ordezkatzuz. Arestian kontuaren izenean egindako aldaketa gorabehera, dirulaguntzen barruan sartutako magnitudeek, neurri handi batean, jaso egiten dute herri administrazioek enpresen ohiko gastuak mantentzera egindako ekarpena. Ildo horretan, enpresen ohiko jarduera finantzatzera bideratutako laguntzak direla kontsidera daiteke.

2008an dirulaguntzen kopurua guztira 282 milioi euro izan da, 2006. ekitaldiko kopuruaren %25,8 gehiago termino nominaletan. Hortaz, finkatu egin da 2004-2006 biurtekoan antzemandako goranzko joera (epe horretan %19,9ko hazkundea izan zen)¹⁹.

Magnitude horren arloz arloko banaketak zerbitzuen sektorearen aldeko joera nabarmena jasotzen du. Dirulaguntzen %85,1 sektore horretan jarduten duten enpresei bideratzen zaizkien bitartean, industria-enpresei kopuru osoaren %14,3 baino ez zaie egokitzen. Zerbitzuen sektoreari loturiko kontuen pisu handia tradizionalki loturik egon da Herri Administrazioak oinarritzko zerbitzu publikoen eskaintzarekin zerikusia duten jarduera-adarretan egin ohi dituen ohiko transferentziekin, batez ere hezkuntzan eta arlo sozio-sanitarioan.

Enpresei laguntzeko bigarren bidea da Kapitaleko dirulaguntza ofizialen kontuan (130) ibilgetuan egin beharreko inbertsioetarako biltzen diren dirulaguntzak. Horiek urtero ekitaldiaren emaitzara pasatzen dira zehaztutako amortizazioaren periodifikazioaren arabera (Diru sarreraren 746 kontua, mozkinak eta galerak jasotzen dituen eta, hortaz, 74 kontuaren barrukoa).

2006 eta 2007 artean 130 kontuaren hazkundea 20,1 milioi eurotan kokatzen da. Termino erlatiboetan, ibilgetuan egindako inbertsio garbiarekiko, kontuaren hazkundea 2007 eta 2008 ekitaldien artean %6,1en kokatzen da, eta kopuru hori ez dago 2005 eta 2006 artean erregistratutako %7,4a baino askoz beherago, eta nabarmen gorago mantentzen da 2003-2004 epeko %4aren gainetik.

5.15 taula
KAPITALEKO DIRULAGUNTZA OFIZIALEN HAZKUNDEAREN ARLOZ ARLOKO BANAKETA

	Inbertsioak (Materiala + Immateriala)²⁰	Kapitaleko dirulaguntza ofizialen hazkundea²¹	
		c.a.	%
Industria	267.093.551	8.279.310	3,1
Eraikuntza	4.820.663	15.168	0,3
Zerbitzuak	55.184.877	11.550.211	20,9
GUZTIRA*	327.662.720	20.068.805	6,1

*Lehen sektoreari buruzko datuak barne daude

Azpimarratu beharra dago interes handia duela kontuan hartzea 2008. ekitaldian ohiko diru sarrera gisa sartutako hornikuntzari dagokionez, dirulaguntza, dohaintza eta kapital legatuen barruan sartutako kopurua, ekitaldiaren emaitzei transferituak (746 kontua, 74 kontuaren barruan sartua). Magnitu horrek aukera ematen du baloratzeko gizarte-ekonomiaren alorreko enpresek sortutako etekinaren gainean egindako inbertsioak finantzatzeko enpresei ematen zaizkien dirulaguntzek duten eragina.

¹⁹ Aipatu beharra dago 2006. urtearekin alderatu ahal izateko, ekitaldi horretako 74 eta 775 kontuei loturiko magnitudeak agregatu direla. Kontabilitate plan berrian bi partidak 74 zenbakiko kontu berrian sartu dira.

²⁰ 2.1. (Ibilgetu immateriala) eta 2.2. (Ibilgetu materiala) kontuen hazkundea, 2007. urtearekiko.

²¹ 130 kontuaren hazkundea, 2007. urtearekiko.

2008. urtean magnitude hori guztira 26.309,9 eurokoa zen, 2006an izandako etekinen %20 gehiago. Hortaz, azkenaldiko bilakaerak kontrastatu egiten du 2004 eta 2006 artean izandako jaitsierarekin (%17,1).

Beste alde batetik, magnitu horrek adierazten ditu epean izandako etekinen %7,4, 2006ko %4,2tik gora nabarmen, eta 2004an izandako mailetatik aurrera goranzko bidea hartu duela esan nahi du (urte hartan %7,2 zen).

Hala eta guztiz ere, komenigarria da adieraztea 2004 eta 2006 arteko jaitsiera neurri handi batean loturik zegoela 2006an gizarte-ekonomiaren enpresen emaitzetan izandako hazkunde handiarekin. Era berean, azkenaldian eman den gorakadak kontuan hartu behar du emaitza horien beheranzko joera handia izan zela 2006-2008 biurtekoan.

5.16 taula

2008. EKITALDIAREN EMAITZARI TRANSFERITUTAKO DIRULAGUNTZA, DOHAINTZA ETA KAPITAL LEGATUEN EGITURA SEKTORIALA (746)

	Emaitzei transferitutako kapitaleko dirulaguntzak		
	Mozkinak	c.a.	%
Industria	127.272.560	9.785.112	7,7
Zerbitzuak	224.196.014	16.364.228	7,3
GUZTIRA	356.078.485	26.309.923	7,4

Azkenik, adierazi behar da dirulaguntza, dohaintza eta legatuei —74 kontua— loturiko magnitudeak era agregatuan aztertzerakoan, emaitzei transferitutako kapitaleko dirulaguntzei loturiko diru sarrerekin batera —746 kontua—, esan daitekeela Herri Administrazioaren ekarpen zuzena 2008. urtean 308 milioi eurokoa izan dela. Kopuru horrek 2006. urtekoarekin alderatuta %38ko hazkundera adierazten du.

I ERANSKINA
EMAITZEN KONTUAK FORMA JURIDIKOAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN
ARABERA

1.- taula
KOOPERATIBEN EMAITZEN KONTUAK, JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA. 2008
(c.a. Eurotan) (Ohiko prezioak)

	GUZTIRA	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
DIRU SARRERAK					
70 Salmenta garbiak	8.763.108.835	21.211.392	4.632.792.612	108.673.693	4.000.431.139
71 Izakinen aldaketa	35.245.568	339.151	32.259.678	1.342.537	1.304.203
73 Ibilgeturako egindako lanak	39.092.570	274.369	33.215.767	0	5.602.435
74 Ustiapeneko dirulaguntzak	267.629.113	1.193.053	32.196.024	149.816	234.090.219
75 Diru sarrera osagarriak	392.900.328	267.671	139.025.956	522.880	253.083.822
76 Finantza-sarrerak	220.660.788	43.162	89.710.436	365.863	130.541.327
77 Ezohiko diru sarrerak	201.508.147	530.949	33.200.211	110.587	167.666.400
79 Gehiegizko hornidura	40.714.868	0	25.509.191	53.285	15.152.392
	9.960.860.217	23.859.746	5.017.909.874	111.218.661	4.807.871.936
GASTUAK					
60 Erosketa garbiak	5.649.910.794	13.542.320	2.782.791.417	58.857.838	2.794.719.219
61 Izakinen aldaketa	-17.159.865	146.960	-23.705.296	2.233.074	4.165.397
62 Kanpoko zerbitzuak	1.089.993.463	3.014.895	686.707.931	10.581.326	389.689.311
63 Jarduerari lotutako zergak	-23.497.639	23.237	-18.560.838	163.119	-5.123.156
64 Pertsonal-gastuak	1.694.589.177	4.146.045	900.696.300	30.785.105	758.961.728
65 Kudeaketa-gastuak	183.158.746	171.442	76.698.213	1.698.916	104.590.175
66 Finantza-gastuak	359.521.570	553.972	172.685.011	1.684.333	184.598.254
67 Ezohiko gastuak	32.152.151	133	21.765.519	154.075	10.232.424
68 Ekitaldiaren amortizaziorako hornidura	287.927.493	1.730.201	186.643.223	2.649.841	96.904.229
69 Hornidura zuzkidurak	362.812.707	20.898	109.191.981	466.733	253.133.096
	9.619.408.597	23.350.103	4.894.913.460	109.274.359	4.591.870.675
MOZKINAK (+) edo GALERAK (-)	341.451.620	509.643	122.996.415	1.944.301	216.001.261
CASH FLOW	992.191.821	2.260.742	418.831.618	5.060.875	566.038.586

2.- taula
SAL SOZIETATEEN EMAITZEN KONTUAK, JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA. 2008
(c.a. Eurotan) (Ohiko prezioak)

	GUZTIRA	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
DIRU SARRERAK					
70 Salmenta garbiak	672.814.040	720.606	471.909.257	50.627.753	149.556.423
71 Izakinen aldaketa	4.767.889	0	4.486.086	47.872	233.930
73 Ibilgeturako egindako lanak	6.899.987	0	245.610	0	6.654.377
74 Ustiapeneko dirulaguntzak	6.499.090	270	3.991.823	0	2.506.997
75 Diru sarrera osagarriak	3.065.478	86	1.058.543	71.340	1.935.509
76 Finantza-sarrerak	2.106.233	0	1.438.916	65.151	602.166
77 Ezohiko diru sarrerak	4.975.044	182	4.385.704	315.997	273.161
79 Gehiegizko hornidura	1.908.879	0	587.513	978.369	342.997
	703.036.639	721.144	488.103.452	52.106.483	162.105.560
GASTUAK					
60 Erosketa garbiak	321.079.111	474.365	239.043.277	30.998.716	50.562.753
61 Izakinen aldaketa	1.836.113	0	-1.381.420	62.376	3.155.157
62 Kanpoko zerbitzuak	82.265.467	66.760	61.565.898	6.081.442	14.551.367
63 Jarduerari lotutako zergak	2.743.762	543	1.789.587	325.303	628.330
64 Pertsonal-gastuak	243.289.19	191.689	152.639.243	12.392.718	78.065.543
65 Kudeaketa-gastuak	5.699.801	0	1.075.270	295.779	4.328.751
66 Finantza-gastuak	9.384.411	10.474	7.811.909	328.220	1.233.809
67 Ezohiko gastuak	928.189	1.540	707.425	6.789	212.435
68 Ekitaldiaren amortizaziorako hornidura	25.352.111	7.807	20.936.960	589.335	3.818.010
69 Hornidura zuzkidurak	3.498.570	0	2.229.643	502.359	766.568
	696.076.728	753.178	486.417.791	51.583.036	157.322.723
MOZKINAK (+) edo GALERAK (-)	6.959.911	-32.034	1.685.661	523.447	4.782.837
CASH FLOW	35.810.592	-24.227	24.852.264	1.615.141	9.367.415

3.- taula
SLL SOZietateen EMAITZEN KONTUAK, JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA. 2008
(c.a. Eurotan) (Ohiko prezioak)

	GUZTIRA	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
DIRU SARRERAK					
70 Salmenta garbiak	321.177.964	1.119.014	122.896.798	54.838.538	142.323.614
